

ESKOLAUMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2011

ORIO



Oriko Udala

Azala: Mikel Lizarralde
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

AURKIBIDEA

<i>Hitzaurrea. Goiuri Unanue</i>	
<i>Erle ziztalaria. Nikola Rekalde</i>	
<i>Udaberrian. Iraia Ruiz</i>	
<i>Pailazo gaiztoa. Leire Olariaga</i>	
<i>Zeruan loreak. Marina Zaldua</i>	
<i>Nire urtebetetzea. Naroa Arriaran</i>	
<i>Izartxo baten distira. Unax Esnal</i>	
<i>Jon ninja. Ander Aldabaldetrekua</i>	
<i>Sorgindutako kanposantua. Naroa Arriaran</i>	
<i>Amona bat. Antton Iturain</i>	
<i>Mendian dauden loreak. Irati Vivas</i>	
<i>Ane, Lan eta bi liburu magikoak. Josu Manzananas</i>	
<i>Bost bertsolari. Laida Urbitarte</i>	
<i>Itsas gizona. Ramunas Almanaitis</i>	
<i>Michael Jackson. Jon Idarreta</i>	
<i>Izurde polita. Alex Agirre</i>	
<i>Horitxo. Niobe Ferreira</i>	
<i>Ni. Jokin Azkonobieta</i>	
<i>Maitasuna. Borja Esnal</i>	
<i>Harrapatutako printzesa. Ainhoa Bontigui</i>	
<i>Xubi eta gelako komeriak. Iñaki Sarasola</i>	
<i>Balearen Eguna. Rut Atxega</i>	
<i>Basoa kantari. Aitor Fernandez de Betoño</i>	
<i>Benetako bizitza gogorra. Mikel Etxarri</i>	
<i>Odol egarria. Ainhoa Grijalba</i>	
<i>Erregearen etorrerako graffitiak. Sara Iparragirre</i>	
<i>Xabierren ahalmena. Enara Larreta</i>	
<i>Bizitzaren alde positiboak eta negatiboak. Olatz Lukas</i>	
<i>Aimar kruzeroan. Mikel Orbañanos</i>	
<i>Agur, arrebatxo. Gorka Segurola</i>	
<i>Maddi eta Karen. Mireia Zinkunegi</i>	
<i>Sentipenitsuak. Eider Arruti</i>	
<i>Udazkena eta negua. Ander Beldarrain</i>	
<i>Begirada haien atzean. Ane Arriola</i>	
<i>Tula hiria. Unai Etxeberria</i>	

Hitzaurrea

Sei urte nituela amarekin hondartzara joan nintzen egun bat dut gogoan. Ahizpa txikiarekin jolasean genbiltzan gure erreinua itsasoaren erasoetatik babestuko zuen gaztelu eta harresia eraikitzen. Bizkor ibili behar genuen, erasotzaileak geroz eta hurbilago baikenituen ... Gure burua ezinean ikusita, inguruko erresumetara jo genuen laguntza eske. Besteak ere ezinean zebiltzala oharturik guztion indarrak batu eta elkarrekin harresi sendo bat eraikitzea erabaki genuen. Elkarlan horren fruitu izan zen gaztelu hura, inoiz imajinatuko ez genuen bezain altu eta sendoa ...

Lau dorre zituen izkina bakoitzean bat eta tunel bi, igerilekua bete ahal izateko. Izkinetan bosna dortoka guardia egin genituen hondarrez eta gaztelu osoa txirla zuriz adornatu genuen. Antilako Erreinua deitu genion.

Igerilekuan jolasean genbiltzala, aurreko dorretako guardiek itsasoko piraten berri eman ziguten. Hori zela eta, Erreinuko bilera bat egitea erabaki genuen. Bilera hartan piratei eskutitz bat idatzi, botila batean sartu eta itsasora jaurtitzea erabaki genuen. Karta hartan, Antilako Erreinuaren izenean itsaslapurrei Itxaspeko altxorraren berri eman genien, baina hori bai, maparik gabe! Izan ere, gure asmoa altxor hura elkarlanean bilatzea zen.

Handik egun batzuetara, galerna zela eta, arranplan genbiltzan Orioko haur guztiak, arroka artean Ron botila huts bat, zeinak barruan gutun bat zuen aurkitu, genuenean. Bereala deitu nien nire erreinuko kide guzitei. Piraten erantzuna zen, eta honela zioen:

Antilako Erreinuko kide maiteok,

Jon Barrabas pirata eta bere tripulazioa gaituzue. Bi albiste ditugu, bata ona eta bestea txarra... Txarrarekin hasiko gara; esan beharra dugu ezin izango garela Orioko herrira agertu, izan ere, egun ez gaude batere ongi ikusiak lehortarren artean, baina lasai, onari emango diogu lekua. Nahiz eta ezin agertu, itsas-korreo hau erabiliko dugu komunikazioa ahalbideratzeko, horrela altxorra aurkitzen lagunduko dizuegu, baina guk altxor hori das-tatu ezin izango dugunez trukean mesede bat eskatuko dizuegu: Kaioak oso kuxkuxeroak direla eta literatura lehiaketetan parte hartzen duten haur kopuru handi batek behartuta idazten dutela esan digute. Horregatik, piraten lege den modura promes egin behar diguzue aurrerantzean hizkien lagun izaten saiatuko zaretela, eta bizia alaituko duten istorio eta olerki dibertigarriak idatziko dituzuela!

Zuen omenez RONEZKO TOPA BAT!

Jon Barrabas eta bere tripulazioa

Ba bai, egun hartatik aurrera hizkien lagun naiz, eta egun elkarrekin jolastuz ipuin eta olerki bikainak asmatzen ditugu, hainbat aldiz irabazi izan dut Orioko haurren lit-

eratura lehiaketa, iaz Euskadi mailan Urruzuno literatura lehiaketa irabazi nuen eta Euskal Herri mailan Azkue sarietan aipamen berezia lortu nuen. Aurten berriz, zarauz-tarrei bi sari kendu dizkiet, Salvatore Mitxelena sarietan nire kategorian ipuinarekin lehena eta olerkiarekin hirugarrena irabazi ditut.

Goiuri Unanue

Erle ziztalaria


Badator erlea.
Zertara dator?
Zizta egin nahi dik.
Baina zergatik?
Atera du eztena,
ai, ene! ai, ama!
Korrika hasi naiz ni.
Erlea prest dago...
banoa hemendik.
Erleak zizta egin dit,
ai, ene! ai, ama!
zizta ipurditik.

Nikola Rekalde

Udaberrian

Udaberria da,
maiatza da,
batzuetan bero egiten du;
besteetan, hotz.
Kometa airean
haizeak darama

Iraia Ruiz



Martin Alberdi

Pailazo gaiztoa

Egun batean, Aitorren urtebetetze eguna zen. Aitorrek bere gelako lagun guztiak gonbidatu zituen. Oso urduri zegoen, benetan oso egun berezia izango zelako.

Amak pailazo bat ekarri zuen urtebete festara. Dena apain-apain zegoen: globoak, girnaldak, goxokiak... Aitor poz-pez zegoen. Leirek argazki-bilduma bat oparitu zion. Denak primeran pasatzen ari ziren; baina, halako batean, pailazoak sudur gorria kendu eta dena puskatzen hasi zen.

Haur guztiak asko beldurtu ziren. Aitorren amak telefonoa hartu eta poliziarri deitu zion. Poliziak pailazoa atxilotu egin zuen, gizon gaizto bat zelako.

Azkenean, denak lasaitu ziren eta denek tarta goxoa jaten bukatu zuten eguna.

Leire Olariaga

Zeruan loreak

Behin batean, baziren zeruan bizi ziren pertsona batzuk. Egun batean, loreak hazi ziren eta haziak landatzea erabaki zuten. Koloretako lore pila bat hazi ziren eta zerua oso polita geratu zen...

Baina lurrean dena oso ilun geratu zen eta jende guztiak esaten zuten:


—Ai, ama! Zer ilun dagoen dena!

Orduan, zeruko biztanleek eta lurreko biztanleek bilera bat egitea erabaki zuten.

—Denon artean lorategi bat egingo dugu!

Eta argitasuna kentzen ez zuen lorategi bat egin zuten eta ume guztiak oso pozik bizi izan ziren lore artean.

Marina Zaldua



Naia Orzaiz

Nire urtebetetzea


Martxoak 31n nire urtebetetzea DA
DAntza daukat eta lotsatuta naGO
GOizean zorionak kantatu didaTE
TEmpertura ona egiten zuEN
ENtsalada jan dugu jangeLAN
LANGile fina naizela esan dit irakasleAK
AKerra bezala jarri da nire ahizPA
PArtida bat ikustera joan nintzen eguna bukatzeko.

Naroa Arriaran

Izartxo baten distira

Gaez zerura begira
zure irribarrea ikusiko dugu
izartxo baten distira.

Unax Esnal



Candy Ostolaza

Jon Ninja

Orain dela urte asko asko, gaztelu handi batean, Jon izeneko mutil bat bizi zen. Oso azkarra zen eta bere ezpata, oso gogorra. Ezpata hura altxatzeko, indar handia eduki behar zen, baina Jonek soberan zuen. Ezpata harekin mendirik handiena ere puskatuko zuen.

Baina, egun batean, gizon maltzur batek bola erraldoi bat bota zuen Jon bizi zen gaztelura. Gaztelu osoa puskatu zuen. Jon oso azkar atera zen gaztelutik eta justu justu salbatu zen. Ezpata gaztelu barruan utzi zuen eta, horregatik, gizon maltzurarekin egindako borroka guztiak galdu egin zituen. Halako batean, erraldoi bat etorri zen Joni laguntzera. Erraldoiaren laguntzarekin gaztelua berriz eraiki zuten eta ezpata aurkitu zuen.

Handik aurrera, Jon eta erraldoia gazteluan bizi izan ziren eta borroka guztiak irabazten zituzten. Hala izan zan, eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila gure etxe ondoko gaztelu beldurgarrian.

Ander Aldabaldetrek

Sorgindutako kanposantua

Baziren behin bi neska eta bi mutil, Orion bizi zirenak. Rakel, Luzia, Karlos eta Julen izena zuten. Rakelek ilea luzea eta lisoa zuen, eta begiak marroiak. Luziak ere ile luzea zuen, baina ondulatua eta begiak urdinak. Karlosek ile motza zuen eta lisoa, begi berdeekin. Julenek, ile motz kizkurra eta begi marroiak. Askotan ibiltzen ziren elkarrekin jolasten eta abentura asko izaten zituzten.


Gau batean, Rakel, Luzia, Karlos eta Julen kanposantuan sartu ziren. Herrian aspalditik esaten zen kanposantua sorginduta zegoela. Ibiltzen hasi ziren eta, bat-batean, zarata ikaragarriak entzun zituzten:

—Pam! Pam! Pam!

Eta, orduan, Frankenstein, Zonbia, Banpiresa eta Otso gizona azaldu ziren. Rakel, Luzia, Karlos eta Julen, beldurtuta, korrika eta garrasika hasi ziren:

—Aaaaaaaaaaaaaaaaaa!

Frankenstein, Zonbia, Banpiresa eta Otso-gizona ere korrika hasi ziren Rakel, Luzia,



Axel Palau

Karlos eta Julenen atzetik eta, orduan, haiek ere gero eta azkarrago egiten zuten korrika.

Orduan, Banpiresak oihu egin zuen:

—Aizue! Guk zuen lagunak izan nahi dugu!

Eta Rakelek erantzun zion:

—Benetan?

—Bai! —esan zuen Zonbiak.

Eta, orduan, Luziak esan zuen:

—Oso nekatuta gaude; baina, deskantsatu ondoren, goazen elkarrekin jolastera.

—Bale! —esan zuten denek batera.

Handik aurrera Rakel, Luzia, Karlos eta Julen egunero joaten ziren kanposantura, Frankenstein, Zonbia, Banpiresa eta Otso-gizonarekin jolastera. Beren sekretua zen. Eta herrian denek kanposantura joateko beldurra zutenez, sorginduta zegoela pentsatzen zutelako, lasai asko ibiltzen ziren kanposantuan denak jolasten.


Hala izan zan, eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila zure herriko kanposantuan.

Naroa Arriaran

Amona bat

Futbolean nabil
amona batekin,
erori egin da
baloi batekin.
Amonak baloia
erosi dit
eta futbolean
nabil potolo
batekin.

Antton Iturain



Naroa Arriaran

Mendian dauden loreak

Mendian dauden loreak
eder ederrak
kolore biziak
ostadarra zela.
Pinu baten ondoan
eserita daudenean
lo egiten dute
pinuaren magalean.

Irati Vivas

Ane, Lan eta bi liburu magikoak

Bazen behin Ane izeneko neska bat. Anek 9 urte ditu, ile gorria du, hanka luzeak, eta polita da. Gainera, oso alaia da, jakintsua eta oso langilea.

Anek liburu magiko bat dauka 7 urte zituenetik. Egun batean, bere logelan aurkitu zuen lurrean botata. Liburua sorginkeria magikoz beteta dago, eta Anek denbora asko pasatzen du liburu potoloa irakurtzen. Sorginkeria asko ikasi ditu, baina jendeari laguntzeko bakarrik erabiltzen ditu.

Aurreko udaran Danielekin hondartzan jolasten zebilen Ane.


Daniel Aneren txikitako laguna da. Danielek 8 urte ditu, ilehoria da, betaurrekoak ditu, alaia da eta oso txintxo.

Harrapaketan jolasten ari ziren eta, bat batean, Daniel arroka batean irristatu zen eta uretara erori zen. Danielek ez zekien igeri egiten eta itotzen hasi zen. Baina Anek bere liburu magikoa hartu zuen eta azkar-azkar hasi zen sorginkeria bat bilatzen.

—Atera, areta, uretatik atera! —esan zuen Anek eta pixkanaka-pixkanaka uretatik ateratzen hasi zen Daniel.

Anek beti uste izan du liburu bat bakarrik existitzen zela eta berak zeukala. Baina, bi urte beranduago, hondartzan Danielekin eta bere arreba Mariarekin jolasten ari zen. Mariak 7 urte ditu, ile arrosa du eta begi berdeak. Oso polita da eta alaia.

Egun guztia hondartzan ibili eta gero, Ane, Daniel eta Maria etxera joan ziren. Ane,



Jon Erkizia

lo egitera joan aurretik, sorginkerien liburua hartu zuen, pixka bat irakurtzeko. Lasai-lasai irakurtzen zegoen eta, bat batean, beste liburu bat zegoela ikusi zuen. Ane asko harritu zen eta irakurtzen segitu zuen, liburua aurkitzeko modua jakin nahi zuelako.

Beste liburua aurkitzeko, Anek bere liburua almodaren azpian ipini behar zuen. Gero, ohean sartu zen eta ametsetan hasi zen. Ametsean mutiko bat azaltzen zen. Mutiko hura bere eskolan ibiltzen zen, eta Lan zuen izena. Lanek 9 urte ditu Anek bezala. Ile marroia du; jatorra eta jakintsua da.

Hurrengo egunean, gosaldu eta gero, gogoratu zen gauean pasatakoaz eskolara iritsi zenean Lan ikusi zuenean, liburuagatik galdetu zion. Lan harrituta geratu zen, berak ere liburu magiko bat zeukan-eta. Anek, orduan, bere etxera gonbidatu zuen arratsaldean. Liburu magikoa eramateko esan zion.

Arratsaldean, Lan Aneren etxera joan zen. Lan Aneren etxera iritsi zenean, Anek esan zion bere logelara igotzeko. Logelan bi liburuak atera zituzten eta barrutik berdin-berdinak ziren, baina kanpotik kolore ezberdina zuten. Anerena morea zen eta Lanena, urdina.


Egun hartatik aurrera, oso lagun minak egin ziren, zeren bi liburu horiekin jendea askoz azkarrago ahal zuten lagundu. Gainera, biak elkarrekin banaka baino botere gehiago eta indar handiagoa zuten.

Urte batzuk geroago, Lanen liburuan notatxo bat atera zen, esaten zuena beste liburu bat zegoela. Lanek liburua almodaren azpian jarri zuen, Anek bezala, eta ametsean mutiko txinatar bat ikusi zuen.

Hurrengo egunean, Lanek harritu-harrituta Aneri kontatu zion ametsa eta, asko pentsatu ondoren, bien artean Txinara joateko plana egin zuten.

Hala bazan edo ez bazan, sor dadila kalabazan... eta atera dadila Orioko plazan.

Josu Manzananas



Ibai Lizarralde

Bost bertsolari

Baziren behin bost bertsolari gazte, plazarik plaza bertsoan ibiltzen zirenak. Bostetatik hiru neskek ziren; Maialen Lujanbioren jarraitzaile sutsoak ziren. Beste biak, berriz, mutikoak ziren, Andoni Egañaren eta Sebastian Lizasoren jarraitzaileak. Hiru nesken izenak Ainara Goikoetxea, Aitziber Elola eta Amaia Larrañaga ziren eta bi mutilak Asier Urresti eta Unai Manterola ziren.

Ainara Goikoetxea ikasketetan buru belarri zebilen, enpresa-zientzien karrera bukatu nahian. Aitziber Elola eta Amaia Larrañaga magisteritza ikasketak egiten ari ziren. Gure mutil gaztea, Asier, eskubaloian ibiltzen zen eta ikaragarri amorratuta zegoen. Beste gaztea, Unai, apaiza izateko gogoarekin zebilen eta meza zegoen bakoitzean joan egiten zen.

Ostiral gau batean bostek dei bat jaso zuten. Orioko kiroldegira joan behar zutela; larunbat gauean San Pedro jaiak zirela-eta bertso saio on bat egin behar zutela. Bostak oso gustura jarri ziren, Orion zelako; baina gure bertsolari gazteak azterketetan zeuden eta Orioko plaza berentzako oso garrantzitsua zen.

Larunbat arratsaldean bostek trena hartu eta Orioko geltoki berrian gelditu ziren. Harrituta gelditu ziren geltoki berra ikusi zutenean. Handik herriko plazara abiatu ziren. Han, herriko jaiak zirela-eta, herri kirolak zeuden eta ikusten geratu ziren. Herriko gazteak hasi ziren parte hartzen.

Halako batean, neska indartsu bat jarri zen harriaren ondoan beroketak egiten. Beroketak egin ondoren, 150 kg ko harria altxatzen ari zen bitartean, aldamenetik esaten zuten oihuka:

—Aupa, Idoia! Hori da sasoia! —munduko errekorra egin duzu!

Bost bertsolariak harrituta gelditu ziren. Afaltzeko ordua etorri zen eta han zeuden gazte batzuei galdetu zieten:

—Hemen bokadiloa jateko lekurik? —mutiko gazte batek erantzun zien:


—Tortilla patata oso goxoa nahi baduzue jan, Gabon izeneko taberna bat dago eta, bestela, Aterpe edo Baraka.

—Kiroldegitik gertuen zein dago? Zeren, afaldu ondoren, bertso saioa daukagu.

Asierrek galdetu zien:

—Hombre! Zuek zarete bertsolari gazte famatu horiek? Ba, Gabon gelditzen zaizue gertuen, eta hango tortilla patata mundiala da.

Eta gure bost gazteak Gabonera abiatu ziren. Hango tortilla famatu hura jan



Sara Mujika

ondoren, kiroldegira hurbildu ziren. Hamar eta erdietan aulki denak beteta zeuden eta giro ederra zegoen. Bost bertsolariak eta gai-jartzailea oholtzara igo ziren. Hori txalo zaparrada kiroldegian! Ainara oso urduri zegoen. Aitziber eta Amaia dena emozionatuta zeuden. Asier, berriz, eskubaloian pentsatzen eta, azkenik, Unai lasai-lasai zegoen. Gai-jartzailea gaiak jartzen hasi zen.

Bostak oso dotore ari ziren bertsoak botatzen. Saioaren erdi aldean gai hau jarri zieten Aitziber eta Amaiari:

—Orain pentsatu oriotar peto-petoak zaretela eta bota bertso bana. Amaiak bertso hau bota zuen:


Bertso txiki bat bota nahi nuke
nungua naizen esanaz,
amak esan dit oriotarra
naizela bihotz-jaiotzaz,
hemen bizi naiz pozik ta alargun
beti euskara eginaz,
horregatikan bizi guztian
mintzatu nahi det euskaraz.

Eta Aitziberrek bota zuen:

Lehenengo kondiziyua
nahi det irakurri
norbere balizetan
aguro jarri
Oriyoko txalupa
handiya izugarri
hura mutil txikia
azkar nola ekarri
begira ginan jarri
bat aurrera ekarri
genion igerri
ez zeudela elbarri
ijituak botando
zaizkigu etorri.

Elik bertso hau bota ondoren, kiroldegia txalo pilaz inguraturik zegoen. Hori zorarena! Euskal Herriko txapelketa ematen zuen. Gure bost gazteak, emozionatuta, agur bana bota zuten eta, saioa bukatu ondoren, bostak erabaki zuten bertsoan segitzeak merezi zuela. Bertsoan segitu zuten, baina gure bost gazte bertsolariak kirolean eta ikasketetan ere jarraitu zuten. Hala bazan eta ez bazan atera daitezten bostak bertsoan plazan.

Laida Urbitarte



Gorka Amas

Itsas gizona

Itsaso urdina!
Non daude zure erregeak?
Zure baleak eta haien semeak?
Arrantzale ausartak eta gaueko haizeak?
Herriko emakumeak, malkoak eta sareak?
Arrainaren usainak, elizaren kanpai hotsak,
alegriak, tristurak, itxaropenak eta itsas lapurrak?
Non daude...?

Orain dela urte asko
desagertu zirela; kontatzen dit aitonak.


Ai, aitona maitea!
Itsas gizon menturazalea!
Zure bizitza osoan olatu eta haize artean!
Zenbat arrain harrapatu!
Zenbat ontzi hondatu!

Azkar joan ziren zure urteak.
Konturatu gabe pasa ziren egunak.
Non daude lehenengo indarrak eta ausardien arnasak?

Txuri txuria zara...
Zahar zaharra...
Eskuan bastoia, buruan txapela...
Barraren bukaeran zaude ...
Eserita.
Begiekin zeru ertza orrazten,
belarriekin zurrumurruak entzuten
eta larruarekin haizetxoa nabaritzen itsasoaren aparraz
besarkatuta.

Maite zaitut!

Ramunas Almanaitis



Manex Dorronsoro

Michael Jackson

Michael Jackson banintz
Izar bat izango nintzateke
eta jendeak txalo egingo luke.

Limusinarekin kontzertuetara
joango nintzateke,
kantatzera eta dantzatzera...
eta ondo pasatzera.

Baina ni Jon naiz,
handia izaten naizenean,
saiatuko naiz
Michael Jackson bezalakoa izaten.
Ez badut lortzen,
surfista izango naiz.

Jon Idarreta


Izurde polita

Duela ehun bat urte izurde bat bizi zen Orioko itsasertz aldean, oso gustura. Izurdeak 16 bat urte zituen gutxi gorabehera eta poz pozik bizi zen bere familiarekin. Bera izurde grisa zen, begi argiak zituen, garai hartako uraren kolorea bezala, oso arina zen eta oso pentsakorra.

Egun batean, lasai lasai zegoen eguzkia mendi artean nola sartzen zen ikusten, eta balea bat ikusi zuen urruti, baina oso oso urruti. Barra mutur aldetik zetorrela ikusi zuen eta bera ezkututzen saiatu zen, bazekielako balea hura arrazarik okerrenetakoa eta gaiztoenetakoa zela; hau da, oso arriskutsua.

Izurdeari asko gustatzen zitzaion gure herria eta hemen geratu nahi zuen. Beste animaliei esan zien laguntzeko baleak erasotzen bazien. Azkenean, bere ama konbentzitu zuen hemen geratuko zela eta esan zion elkar ikusiko zutela egunen batean.

Balea iritsita zegoen eta izurdeak nonbait gorde behar zuen. Azkenean, Itsaspe aldera joan zen, seguruago egongo zela pentsatuz, baina baleak ikusi egin zuen eta oso gose-



Nerea Olasagasti


tuta zegoen; hiru egun zeramatzan ezer jan gabe eta, gainera, baleak pazientzia gutxi zuen eta ia beti haserre edo umore txarrean egoten zen. Baleak izurdea ikusi zuen eta atzetik joan zitzaion. Izurdea alde egiten saiatu zen, baina Itsaspe azpian arroka bat jo zuen eta bat batean zauritu egin zen. Aldi berean, ordea, arroka ireki bezala egin zen eta, bera barruan zela, ondoren itxi. Zaurituta zegoen; baina, behintzat, balearen ahotik urrun.

Han barruan zegoela, zauria gaiztotu egin zitzaion eta oso gaizki jarri zen eta laguntza eske hasi zen bere hizkuntzan. Azkenean, bere familia etorri zen; amak oso ondo ezagutzen zuen leku hura; baina, oso arriskutsua zenez, ez zio beste inori haren berririk eman. Izurdearen aitak asko zekien gaixotasunei buruz eta begirada bat eman zion semearen zauriari. Orduan, ikusi zuen sendabelar klase bat behar zela eta bilatzera joan zen. Azkenean, Bilboraino joan behar izan zuen belar bila eta, gero, Itsaspeko kobazulora itzuli zen. Balea, berriz, bueltaka eta bueltaka zebilen geroz eta gosetuago.

Azkenean, izurdea sendatu eta indarberrituta zegoenean, kobazulotik familia osoa atera zen. Orain berek jakin nahi zuten ea balea non zegoen eta, kanpora atera zirenean, ikusi zuten oriotarrek beren trainerutxoekin, sokekin, arpoiekin eta dinamitarekin balea arrantzatzen ari zirela. Oriotarrek lortu zuten, azkenean, balea harrapatzea eta, gero, moilara eramane eta oriotar guztiek, gosez, parte hartu zuten balearen jan festan. Isatsetik bururaino janda utzi zuten.

Azkenean, poz pozik bizi izan ziren oriotarrak eta izurde familia. Esaten dutenez, gauero paseatzera ateratzen da izurde familia, oso gustura eta poz pozik, Orioko itsas bazterrean eta, Balearen egunean, barra muturrera joaten dira festan parte hartzera.

Alex Agirre



Nahia Uranga

Horitxo

Udako egun eguzkitsu eta bero batean, Maialen izeneko neskatxa eder eta alai bat Orioko hondartzako itsasertzetik paseatzen ari zen.

Maialenek hamar urte bete berri zituen eta Oriokoa zen. Ilea marroia zuen, marroi argia, eta nahiko luzea. Begiak oso ederrak zituen, ederrak, handiak eta urdinak, zerua bezain urdinak. Nahiko beltzarana zegoen eguzkiarengatik eta altua zen.

Maialenek erlojuari begiratu eta berandutu egin zitzaiola ikusi zuenean, etxerantz abiatu zen. Larriturik zihoan, arratsaldeko laurak ziren eta amak hirurak eta erdietarako etxean egoteko esan baitzion.

Bidean txori txiki bat ikusi zuen eta txoritxoa hori kolorekoa zen. Maialenek txoriak ezin zuela hegan egin ikusi zuen eta, txoriarengana urreratu zenean, hanka bat puskatuta zuela konturatu zen. Beraz, Maialenek mobiletik amari deitu zion eta esan zion:

—Ama, badakit berandu noala; baina, etxerantz nindoala, txori txiki batek hanka bat puskatuta zuela ikusi dut eta orain ezin du hegan egin. Badaukat al baitariarengana eramatea? Mesedez!

Orduan, amak erantzun zion:

—Ongi da, baina al baitariarengana ezin duzu zuk bakarrik joan. Elkarrekin joango gara! Etorri azkar eta ekarri txoria.

—Ongi da! Berehala naiz. Agur, ama.

Maialenek eta bere amak txoria, bere neurria baino pixka bat handiagoa zen kaiola txiki batean sartu zuten eta al baitariarengana eraman zuten. Al baitariak, txori batekin zeudela ikusi zuenean, esan zuen:

—Kaixo, zer pasatzen zaio zuen txoriari?


—Nire alabak txori hau kalean aurkitu du eta hanka bat puskatuta duela konturatu da.

Al baitaria txoriaren hanka begiratzen egon zen denbora batez eta esan zuen:

—Egun batez hemen egon beharko du eta, ahal baduzue, bihar eguerdiko hamabi eta erdietan bila etorri. Agur.

—Bale. Agur.

Ama alabak nahiko kezkatuta joan ziren etxera, ea txoritxoa ondo jarriko zen eta gaua ondo pasatuko zuen pentsatuz.



Elene Elizondo

Hurrengo egunean, eguerdiko hamabi eta erdiak zirenean, biak al baitariarengana joan ziren eta txoritxoa oso ondo zegoen, hanka sendatuta; baina, hala ere, ezin zuen hegan egin. Maialen, hori ikusi zuenean, konturatu zen ez zela hanka puskatuta zuelako, baizik eta ez zekielako hegan egiten. Beraz, Maialen erakusten saiatu zen.

Hasieran pixka bat kostatu egin zitzaion erakustea; baina, azkenean, al baitariaren laguntza pixka batekin, lortu egin zuen.

Maialenek txoritxoa berarentzat hartu nahi zuen.

—Ama, badaukagu guretzat hartzea? —galdetu zion amari.

Hasieran, ama pixka bat zalantzan geratu zen; baina, azkenean, esan zuen:

—Ondo zaintzen baduzu... ongi da.

—Baina zer izen jarriko diogu?


—Beno, horia denez, zer iruditzen zaizu Horitxo izena jartzen badiogu?

—Ongi da.

Orduan, biak poz pozik eta Maialenek Horitxo ondo zaindu beharko zuela esanez, etxera joan ziren.

Handik aurrera, Horitxo ama alaben etxeko lorategian bizi izan zen eta, hegan egiten ikasi zuenez, beti lorategiko zuhaitz batetik bestera hegan egiten ibiltzen zen eta, askotan, Maialenekin jolasten ibiltzen zen poz pozik.

Niobe Ferreira



Niobe Ferreira


Ni

Oriokoa naiz ta
izena dut Jokin,
hamaika urte ditut da
bizi naiz amakin.
Eskola joaten naiz
bizikletarekin,
Oihan ikusi eta
juten naiz beakin.

Ikastola juten naiz
ni zortzi t'erditan,
oso ondo ibiltzen naiz
soinketa ordutan.
Ondo pasatzen dut nik
baita tutoretzan,
ta ezin dut kejavu
nik klase honetan.

Futbola dut gustuko,
pilota ere nahi,
eta nire maisua
arraunen ondo bai.
Ondo ibiltzen denez
ikastolan alai,
ondo segi dezala
gurekin tralarai.

Jokin Azkonobieta



Maria Iparragirre


Maitasuna

Gaur goizen esnatu naiz
irrifar batekin,
neska bat ikusi det
bere lagunekin,
ederra zen neskatxa
bere masailekin,
musua emateko
nago gogoakin.

Neska eder ta ona
izarrez betea,
nik nahiko nuke bere
nobiyo izatea,
ezpain gorri politen
musua jartzea,
biok ondo pasa ta
zita eukitzea.

Maitea, zu polita,
pentsakor alaia,
San Balentin eguna
ospatzeko nahia,
zu zea ametsetako
nire neska guaya,
baina nire ametsa
da benetan zaila.

Borja Esnal



Ioritz Tapia

Harrapatutako printzesa

Bazen behin ateak eta eskailerak ez zituen dorre batean harrapatutako printzesa bat. Dorreak ez zuen ez aterik ezta eskailerarik ere ihes egiteko. Dorreak bi txakur zaindari zituen, bat gizen xamarra zen eta bestea txiki txikia. Gizena azkarra zen, baina oso serioa eta txikia alferra zen, baina dibertigarria. Dorrea oso altua zen, berrogeita lau metrokoa gutxi gorabehera, eta inguruan krokodiloak zituen urez betetako zulo batean.

Erregea, printzesaren aita, erreinu guztiko zaldunei abisatu zien bere alaba erreskatatzeko. Egunero zaldun bat aukeratzen zuen eta printzesa erreskatatzen zuen zalduna harekin ezkonduko zen.


Aukeratutako zaldunak bidea hasi behar zuen bere txilibituarekin, baina erregeak esan ez ziona zen printzesa erreskatatzeko oztopo ugari pasa beharko zituela: dragoi baten kobazulotik pasa beharko zuen minik hartu gabe, labirintotik ateratzea lortu beharko zuen, baso sorgindu batetik pasa eta dorrera iritsi... horrez gain, dorrera iritsitakoan, krokodiloz eta urez betetako zulotik salto egin beharko zuen eta, bi txakur zaindariak konturatzerako, printzesa erreskatatu beharko zuen azkenik. Zaldunak bideari ekin zion eta, dragoiaren kobazulora iritsi zenean, dragoia oso haserre zegoen, sua botatzen zuen ahotik eta gorri gorria jarri zen. Orduan, zaldunak esan zion bere buruari: “Poliki joaten banaiz dragoiaren atzealdera eta bere gainean esertzen banaiz kontu handiarekin, uste dut kasu egingo didala” eta horrela egin zuen.

Dragoiaren gainean eseri zen zarata askorik egin gabe eta, hegan egiten hasi zenean, dragoia berde-berdea jarri zen; horrek ondo pasatzen ari zela esan nahi zuen. Dragoia kolorez aldatzen zen bere sentimenduen arabera: triste zegoenean, urdina jartzen zen eta, pozik zegoenean, berdea. Dragoiak zaldunari zergatik zegoen haserreturik azaldu nahi zion keinuen bidez, eta zaldunak ulertu egin zion, keinuen hizkuntza ikasi zuelako bere herrian. Dragoiak esan zion haserre zegoela, lagunik ez zuelako jolasteko eta bakarrik sentitzen zelako.

Horrela, labirintora iristerakoan, zaldunak lepoan lotuta zeukan txilibituari putz egin zion bere zaldiari deitzeko, dragoiaren kobazuloan utzi baitzuen. Zaldia iritsi zenean, martxan jarri aurretik, esan zuen:

—Nire kaparen hariak erabiliko ditut, zein bidetik joan naizen gogoratzeko eta, bidez nahasten banaiz, atzera egingo dut eta nahastu naizen tokitik edo hasieratik berriro hasiko naiz ateratzea lortu arte.

Eta horrela egin zuen. Era horretara, labirintotik ateratzea lortu zuen eta, irteeran, zaldunak dragoia ikusi zuen. Dragoia zaldunaren atzetik ibili zen berarekin denbora gehiago gelditu nahi zuelako eta bere laguna izan nahi zuelako. Zalduna ere konturatu



Eneko Eizagirre

zen oso ondo pasa zutela bidean hitz egiten eta berarekin eraman nahiko zuela, baina ezin zuen eta, orduan, zaldunak agindu zion dragoiari egunero joango zitzaiola kobazulora janaria ematera eta berarekin jolastera eta, agian, printzesa erreskatatu eta gero, etxera eramango zuela elkarrekin bizitzeko. Dragoiak ulertu zuen eta, gutxienez, poztu egin zen bi lagun berri zituelako, zaldia eta zalduna, eta, again, bizitzeko etxe berri bat izango zuelako.

Dragoiak zaldunari etxe berri bat egitea eskatu zion, kobazuloan ez zituela lagun asko egiten beldurra ematen zuelako lekuak. Bestalde, esan zion beste hainbat zaldun joan zirela kobazulora bera baino lehenago, printzesari erreskatatzeko asmoarekin, baina berengana hurbiltzen zenean, denek korrika ihes egiten zutela. Zalduna, oso gustura, dragoiari etxe berri bat egin zion zulotik gertu, aurkitutako gauzekin eta, azkenean bukatu zuenean, zaldunak bere zaldiarekin jarraitu zuen bidea.


Bidetik zihoanean, ilundu egin zen eta zaldunak gertu zegoen basora joatea erabaki zuen, janari bila. Zaldia zuhaitzean lotu zuen soka batekin eta zalduna beste zuhaitzetan begiratzera joan zen, fruiturik zegoen jakiteko. Konturatu zen baso hura ez zela betiko baso xume bat. Ilunago ikusten zen dena, zuhaitz askok ez zuten hostorik eta ez zegoen animaliarik. Zaldunak ahal zuen janaririk gehiena hartu zuen eta, bueltatutakoan, zaldia ez zegoen berak utzitako tokian: soka puskatua zuen eta zapata arraro batzuen oinatzak zeuden. Zalduna, oinatz haiei jarraituz, etxe arraro batera iritsi zen. Etxea okertua zegoen, teilatu borobila zuen eta egur ustelez egina zegoen. Orduan, zaldunak, etxeak zuen leiho bakarretik begiratu zuen eta ikusi zuen sorgin moduko batek bere zaldia lapiko batean zeukala. Segituan gogoratu zen txilibitua zuela lepoan, putz egin zion eta zaldia atea puskatuz etorri zen bere ondora. Zaldia etorri bezain laster baso arraro hartatik atera ziren, sorginak harrapatu baino lehen.

Lehenago bide beretik segitu zuten eta, lotarako ordua zenez, leku eroso batean etzatea erabaki zuen, oso egun nekagarria izan baitzen eta gosetuta eta nekatuta baitzeuden. Tamalez, ordea, zalduna gogoratu zen janaria sorginaren etxe aurrean utzi zuela ahaztuta, leihotik begira jarri zenean. Orduan, oso triste jarri zen. Zaldiari ez bazion janaria ematen, hil egingo zen seguruenik, oso azkar ahultzen baitzen janaririk gabe. Bi aukera zituen: baso sorgindura itzuli janariaren bila, sorginarekin topatzeko arriskuarekin, edo gau hartan bertan printzesa erreskatatzen saiatu beharko zuten, indarririk gabe geratzeko arriskuarekin.

Zaldunak esan zion zaldiari pentsakor:

—Printzesa erreskatatzera joaten banaiz, ez dut lortuko gau batean iristerik; gainera, ez dut ezer ikusiko, gaua delako. Orduan, nik uste dut hobe dugula baso sorgindura bueltatzea janariaren biba; baina, badaezpada ere, hemen utziko zaitut, zalditxo, sorginak berriro eraman ez zaitzan.

Basora bueltatu zen zaratarik egin gabe, sorgina ez konturatzeko. Janaria hartu eta lo egin behar zuten lekura bueltatu zen. Iritsitakoan, afaldu egin zuten eta egunsentira arte



Ane Ramos

lo egin zuten. Zalduak indarrak berreskuratu zituenean, dragoia zaindu behar zuela gogoratu zen zalduna. Agindu bat zen eta zaldunek beti betetzen dute agindutakoa. Dragoia zaindu ondoren, bidea jarraitu zuten. Dorrera iristean, ikusi zuten berek pentsatu baino askoz ere altuagoa zela eta, behera begiratutakoan, konprobatu zuen urez betetako zuloetan krokodilo asko zeudela. Hori guztia ikustean, oso urduri jarri zen, eta ez zekien zer egin. Baina, bat-batean bururatu zitzaion:

—Idea bat daukat! Ur gainetik salto egingo dugu, krokodiloak dorrearen atzealdean daudenean. Zaldi gainean jarri zen eta “1, 2 eta 3!” esan zuen. Beste aldera iritsi ziren eta zalduna dorrea eskalatu zuen, zaldia behean utzita.

Txakur zaindariak oraindik lotan zeuden eta, orduan, printzesa erreskatatzera joan zen, eta printzesa negarrez zegoen. Zaldunak esan zionean erreskatatu egingo zuela, askoz tristeago jarri zen eta negar gehiago egin zuen. Printzesak esan zion ez zuela bueltatu nahi, berak etxetik alde egin zuela nazkaturik zegoelako, eta negarraldien zergatia azaldu zion:

—Nire arreba faltan bilatzen dudalako ari nintzen negarrez; baina, hala ere, ez dut nahi etxera itzuli. Hori eskatzen dizut, zaldun.

Txakur zaindariak berehala esnatu ziren zaldiaren usainarekin. Berehala, bi txakur zaindariak, beren sokarekin, bigarren solairura igo ziren eskalatzen eta, iritsitakoan, harrituta gelditu ziren zalduna ikusita, pentsatzen zutelako inork ez zituela pasako dragoiaren kobazuloa, labirinto nahaskorra, baso sorgindua eta krokodiloak. Burura etorri zitzaien lehen gauza hau izan zen:

—Hainbeste diru gastatu genuen krokodiloak erosten eta, azkenean, ez dute ezertarako balio.

Baina, gero, haserretuta, zalduna eta zaldia bota zituzten dorretik, eta hauek gaztelura bueltatu behar izan zuten.

Bidean zihoala, zaldunak pentsatu zuen:


—Printzesa horrengatik arrisku pila bat pasa ditut eta, azkenean, ezertarako ez.

Zalduna erregearen gaztelura haserretuta iritsi zen eta erregeari bizi izan zuena kontatu zion.

Erregeak erantzun zion:

—Baina printzesak ez du-eta ahizparik! Zer azpikeriatan ibiliko ote da?

Zalduna eta erregea horretan pentsatzen egon ziren gau osoan, bakoitza bere etxean; baina, hala ere, ez zioten azalpenik aurkitzen. Hurrengo egunean, erregeak zaldunari deitu zion eta esan zion dorrerantz joateko berehala. Zalduna dorrera iritsi zen eta printzesa beste zaldun batekin ikusi zuen, haren mutil laguna zena. Orduan, zaldunak ulertu zuen zergatik ez zuen nahi berarekin bueltatu: ez zuen berarekin ezkondu nahi,



Iñaki Sarasola

baizik eta bere mutil-lagunarekin.

Printzesak dena kontatu zion zaldunari: berak esan zion mutil-lagunari dorre hartan giltzapetuko zela, bazekielako aitak zer esango zuen: erreskatatzen zuenari alabarekin ezkonduko zela agindu. Hori ez gertatzeko, printzesak bi txakur zaindari erosi zituen; bestalde, bazekien hor gertu baso arriskutsu bat zegoela eta dragoi bat ere gertu bizi zela. Plan perfektua zen, bere mutil-laguna erresumako zaldun hoberenetako bat zelako.

Dena jakin eta gero, zalduna haserre joan zen bere etxetxora. Bukaeran, errugabea zela pentsatzen genuen printzesa dena kontrolatzen zuen neskatoa zen; berak nahi zuena lortzeko, buruan jarritako guztia egiten zuena. Zalduna inoiz ez zen berriro harekin fidatu eta bere bizitza lasaia jarraitu zuen dragoiarekin, zaldiarekin eta abarrek.

Ainhoa Bontigui

Xubi eta gelako komeriak

Ikasturteko aurreneko eguna zen eta 5. mailako ikasleak eskolara joan ziren. Ikasleek andereñoa ezagutzeko gogo handia zuten. Guztiak oso pozik zeuden bere lagunekin eta kontu kontari ari ziren. Azkenean, goizeko 9:00ak iritsi ziren eta ikasleek beren andereñoa ezagutu zuten. Baina beren andereñoa maisua zela konturatu ziren.

Aurreneko astean ondo ibili ziren, baina hurrengoan... Eskolara etorri ziren batean, lo hartu zuten ikasle guztiek eta, esnatu zirenean, gelak diskoteka bat ematen zuen. Batean, Xubi, beren maisua, gelara sartu zen eta guztiek uste zuten haluzinazioak zituztela. Baina, ez, Xubi hippya bihurtu zen eta izugarrizko melena zeukan.


Ondoren, Xubik botoi bat sakatu zuen eta bola ispiludun bat atera zen sabaitik. Geroxeago, beste botoi bat sakatu zuen eta, orduan, sabaia bozgorailu bihurtu zen; eta musika ozenki jarri zuen ordenagailuan. Musika gelditu egin zen eta Xubik Estebani deitu zion, beste botoi bat sakatuz. Esteban etorri zen eta audio-kable berria jarri zuen.

Orduan, Xubik Estebani esan zion:

—Esteban! Ekarri irabiaki bat!

—Oraintxe!

Estebanek irabiakien makina ekarri zuen. Irabiaki bana eskaini zien gelakoei. Gelakoek esan zuten:



Gaizka Uranga

—Nik marrubizkoa!

—Nik bananarena!

—Nik limoizkoa!

Estebanek galdetu zien ikasleei:

—Zein da zuen izena?

Eta ikasleek:

—Ni Iñaki naiz! —eta beste batzuek:

—Ni Nerea naiz!

—Ni Nagore!

—Ni Mainer!

—Ni Kelly!

—Ni Jenni naiz!

—Ni June!

Estebanek guztiei irabiaki bana atera zien eta, gero, joan egin zen.

Egun batean, eskolara inspekzioa egitera etorri ziren eta ez ziguten aurretik esan. Orduan, Xubi arraro zegoen eta inspektoreak flipatu egin zuen. Ikuskariak konortea galdu zuen hartu zuen sustoarekin. Orduan, Xubik 112ra deitu zuen eta anbulantzia bat eskatu zuen.

Anbulantziakoa oso jatorra zen eta zer gertatu zen galdetu zuen. Baina orain datoz komeriak. Ospitalean zegoen medikurik petralenarekin jarri zuten inspektorea. Inspektoreak amnesia bat izan zuen konortea galdu zuenean, kolpe handi bat hartu baitzuen buruan. Esnatu zenean, honela hasi zen:

—Burukomina dut. Nor naiz? Non nago? Burukominaa...

Medikuak esan zion galdeketa bat egingo ziotela.


—Nola duzu izena? —galdetu zion medikuak.

—Ze izena dudan? Ez dakit —erantzun zuen inspektoreak.

—Ongi! Ez dakit. Zein izen arraroa, ezta? —esan zuen medikuak.

—Esan dizut ez dakidala nire izena, eta ez Ez dakit denik —erantzun zion inspektoreak.

—Bale! O sea, que borramos —esan zuen mediku petral hark.



Rut Atxega

—Zuk euskaraz hitz egiten duzu ala ez?


Inspektoreak Euskaltzaindiakoari deitu zion. Orduan, euskaltzain mozkor bat etorri zen eta Xubik (modu normalean) joateko eskatu zion. Eta euskaltzain mozkor hura joan egin zen. Baina, bidean, puzker usaintsu bat bota zuen, parrrrrrrrrrrat, eta denak mareatu egin ziren.

Horrek zerbaiterako balio izan zuen, behintzat, inspektoreak gauza guztiak gogoratu zituen-eta. Orduan, herrira itzuli ziren. Baina 24 ordotara gauzak berriro ahaztu egin zitzaizkion inspektoreari eta, hurrengo egunean berriz eskolara etorri zenean, ordurako Xubi normal prestatuta zegoen: ile motza, bozgorailurik gabe... beno, eta gitarrarik gabe.

Inspektoreak, dena ondo begiratu eta gero, gurea munduko eskolarik jasangarriena zela esan zuen eta izugarrizko publizitatea egin zuen mundu guztian zehar. Hainbesteko publizitatea egin zuen, mundu guztiko eskola garatuena egin eta izendatu zutela.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila pendraifan eta atera dadila Orioko webgunean.

Iñaki Sarasola



Aitor Indo


Balearen eguna

Maiatzak hamalaua
Balian eguna,
Orioko guztiek
ospatzen deguna,
arrantzalez jantzita
hau da zoriona!
Denetan gustuena
daukagu amona.

Dantza eta parranda
gauean kalia,
mozkor mozkor eginda
jendia tabernan,
bat lurrera erori
ta ospitalian,
gaixuai gertau zaio
egunik onenian.

Kalea degu hutsa
hurrengo egunian,
denak lo geratuta
etxeko ohian,
baño gero esnatu
ta herriko bazkarian,
dago(e)lako jateko,
txuleta parrillan.

Rut Atxega



Jon Lizarralde


Basoa kantari

Ni oraintxe nago
basoan kantuan,
milaka txori daude
beren habiatan,
urtxintzak hor dabilta
ezkurren bilketan,
batera hasi dira
nirekin bertsotan.

Guztiekin batera
ni orain kantari,
“animatu!” esanez
horri eta hari,
nik orain animala
bati bakarrari
esan diot joateko
esatera amari.

Ama etorri zait ta
esan dit joateko,
gaua egingo dela
ta etxera etortzeko,
nik animaliei esan
ez kezkatzeko
bihar etorriko naiz
berriz kantatzeko.

Aitor Fernandez de Betoño



Josu Saez

Benetako bizitza gogorra

Ashar, egunero bezala, uraren bila joan zen herriko iturrira. Ashar bost anaietatik nagusiena zen eta berak egiten zuen lana familia aurrera ateratzeko. Ashar oso mutiko jatorra zen, hitz gutxikoa; bere bi begi urdin argitsuek eta bere ezpaina handiek neska guztiak txunditzen zituzten. 14 urte zituen eta mutil handi eta argal bat zen; bere herrian ederki bizi zen momentuz, eta esaten zuen ez zela herritik aterako. A! Herri txiki eta polit horrek Agrara izena zuen, biztanle gutxikoa zen; baina, elkarri laguntzen ziotenez, ez zuten arazorik.

2001eko maiatzaren 5a ez zaio inoiz ahaztuko. Uraren bila joan zenean, bidean bi gizon handi eta sendo topatu zituen eta Ashar ek, kasurik egin gabe, bere bidari jarraitu zion. Aurrerago, zerbait sumatu zuen bere atzean. Mutilak buelta eman eta bi gizon handiak gainean zituen, bakoitzak esku batetik hartu eta zapi bat jarri zioten ahoan; zapiak kloroformoa zuen.

Mutila esnatu zenean, kamioi baten barruan zegoen. Kamioia oso zaharra zen; handia, baina zaharra; kanpotik berdea zen eta barrutik herdoilduta zegoen.

Iritsi zirenean, dena azaldu zioten: kuartel batean egongo zela urtebete, soldadu izateko ikasten eta hileroko 200 rupia ordainduko ziotela. Mutilak buruarekin baiezkoa egin zuen; baina, lehenengo, gurasoei deitu beharko ziela esan zuen. Jeneralak ezetz esan zion; baina, orduan, Asharrek, mehatxatuz, esan zuen dena kontatuko ziela poliziei.

Jeneralak, ordea, berdin zitzaiola esan zion. Poliziek bazekitela hori egiten zutela umeekin. Orduan, Ashar, etsita, ongi zela esan zuen; baina bere diruaren erdia eskutitz sekretu batez bere familiari emateko, eta asko maite zituela esateko.

Egunak joan, egunak etorri, Ashar konturatu zen urtea joaten ari zela eta oraindik ez zuela bere familia ikusi. Lehenengo hilabetea oso gogorra egin zitzaion mutikoari. Aspalditik han zeuden mutikoek gorrotatu egiten zuten, Ashar oso bakarrik zegoen eta, gainera, ez zuen lagunik.

Urte bat igaro eta gero, mutila gudura eraman zuten. Berak ez zekien nora, baina hegazkin baten barruan sartu zuten. Orduak igaro ondoren, motxilak jartzeko esan zien pilotuak, hegazkinetik salto egin behar zutelako. Bombayera iritsi ziren. Bombay Indiako hiri aberatsenetako bat da; baina, aldi berean, jende xume askoren bizitokia. Berak Bombayeko tokirik xumeenera joan ziren, gobernuak bidalita.

Ashar iritsi zenean, bere herria etorri zitzaion gogora. Dena oso antzekoa zen, baina gauza bat zuen desberdin: han jende gehiago zegoen, eta ez zegoen bere etxea. Bestela, dena berdintsua zen. Asharrek urtebete zeraman etxetik kanpo eta ez zekien bere herritik bota zituztela bere familia eta inguruko denak, eta gehienak Bombayera joan zirela.

Bere familia, orain, Bombayen bizi zen eta, ohartu gabe, bere familiaren aurka egiten ari zen gerra. Berak nahi gabe, etxe asko eta asko bota behar izan zituen lurrera. Etxe bat botatzen zuen bakoitzean, begi bakoitzetik malko bat erortzen zitzaion. Ikusten zuen guztiak bere herria ekartzen ziolako burura.

Etxe ugari bota eta gero, bere familia bizi zen etxea topatu zuen, halako batean. Batean, ama ikusi zuen eta harengana joan zen, korrika, besarkatzera. Asharrek esan zien bere familiakoei berari jarraitzeko, berak bazekien-eta non gorde gudua bukatu arte.

Ezikutuka, auzo hartatik urrundu ziren eta mendi batera igo ziren. Han goitikan dena ikusten zen eta, segituan, horrenbeste gorrotatzen zuen uniformeak kendu zuen, lurrera bota zuen eta amarekin hasi zen hizketan. Amok hau esan zion:

—Non egon zara horrenbeste denbora etxetik kanpo?

—Bahitu egin ninduten —erantzun zuen Asharrek—, eta gero kuartel batera eramanez ninduten. Jeneralarekin hitz egin nuen eta 200 rupia ordainduko zizkidatela esan zidaten. Gero, baietz esan nuen, baina zuei deitu nahi nizuen eta ez zidaten utzi.

Elkarrizketa guztia bukatu ondoren, Asharrek bere 5 anaiak besarkatu zituen eta mendian igaro zituzten egun batzuk. Geroago, bere aitak berri on bat eman zien: beren herria berriz ere eraiki zutela.

Orain, berriz beren herrian bizi dira eta dena beti bezalakoa izatera bueltatu da; baina Asharrek eta bere familiak ez dute inoiz ahaztuko 2001. urtea.

Hala bada eta ez bada, sar dadila kalabazan eta atera dadila Agrarako plazan.

Mikel Etxarri

Odol egarria

Negua zen Transilvanian, Errumaniako eskualde ezagunetarikoa batean. Azken urteetako negurik gogorrena aukeratu zuen Johnek hara bidaiatzeko. 18. mendea zen eta Londreseko egunkari ospetsu bateko langilea zen John. Beti izan zuen gogoan eskualde horri buruzko erreportajea egitea. Treneguz egin zuen bidaiak osoa eta, hotz izugarria pasa ondoren, nekeak jota iritsi zen Cluj izeneko Transilvaniako hiriburura. Hala ere, hango paisaia ikusi bezain laster ahaztu zitzaizkion neke guztiak. Begi aurrean zituen Karpato mendiak, bizitzan ikusi ahal izan zuen gauzarik ederrena.

Hango baso zabalak eta gaztelu misterioitsuak ere bere erreportajerako gai politak zirela iruditu zitzaion. Ezer egiterako, gaua pasatzeko ohe bat behar zuela-eta, hurren-

go egunerako utzi zituen gainontzeko eginbeharrak.

Hiritik bi kilometrora aurkitu zuen gaua pasatzeko tokirik apropos bat. Gaztelu handia izateaz gain, Karpato mendien paisaia izugarria ikus zezakeen gelako leihotik. Toki ederra zen, benetan. Gazteluaren sarreran gazte apain batek egin zion ongietorria eta John harrituta geratu zen haren jokaerarekin.


—Hau da tipo jatorra, hau —pentsatu zuen barrenerako. Gainean zituen lan tresna guztiak gelan utzi eta hiriburu polit hura bisitatzera joan behar zuela pensatu zuen.

Ordu erdi behar izan zuen herrira oinez iristeko. Hango pertsonaren bat aurkitzeko esperantzan zebilen John, baina ez zen hain lan erraza izango. Hotz jasangaitza zela-eta, errumaniar gehienak etxeetan sartuta zeuden. Apur bat ibili ondoren, hiriko tabernarik zaharrenera iritsi zen eta hara sartzea otu zitzaion. Aspaldiko urteetan pasatako kontuez estaliak zeuden tabernako hormak eta ezin izan zion irakurtzeko tentazioari eutsi. Beldurtu zen gizajoa berriak irakurri orduko. Azken hamar urteetan ehun desagertu baino gehiago izan zirela irakurri zuen eta bere erreportajerako primerako gaia zela pensatu zuen.

Tabernan zegoen agure bati galdetzen saiatu zen arren, ez zuen gustuko erantzunik izan haren partetik. Gai horri buruz galdetu izanak agurea beldurtu egin zuen erabat eta ziztu batean alde egin zuen. Tabernako nagusiak bertako gauzetan muturrik ez sartzeko eskatu zion John gazteari, arazoak ekarriko zizkiola eta bueltan bere hirira joateko eskaera egin zion.

Berriro ere gaztelu aldera joatea hobe zela pentsatuz, tabernatik ospa egin zuen Johnek. Iritsi bezain laster, gazteluko nagusi gazteak ireki zion atea. Berari galdera bera egin zion eta, oraingoan, erantzuna jaso zuen. Gazteak azaldu zion hiriko jendearen kezka arrazoi nagusia: azken urteetan jende asko desagertzen ari zen, batik bat gauez. Ondoren, gorpuak aurkitu zituztela azaldu zion, baina denak odolustuta. Gorpu guztiek lepoan bi zulo handi zituztela agertu ziren, baten batek hortik odola xurgatu balie bezala. Johnek barre egin zuen, hori umeak izutzeko ipuin bat besterik ez zela esanez; baina gazteluko gazteak, keinu serioarekin, barrerik ez egiteko esan zion, serioa zela esanez. Gaua oso luzea izan zen Johnentzat. Ezin izan zuen lorik hartu gau osoan, entzundakoak behin eta berriz buruan biraka zituela. Bi egun gehiago pasa zituen hiri-an, etxera bueltatzeko garaia iritsi zen arte.

Egun hartan goiz esnatu zen, tren aldera abiatzeko. Gazteluko gazte misteriotsua agurtu zuen eta etxerako bideari ekin zion. Erreportaje polita egin zuen bertako gaztelu eta mendiei buruz. Harro zegoen egindako lanarekin. Milaka argazki ere hartuak zituen Karpato mendien inguruan. Londresera iritsi eta aste betera izan zuen bere bizitzako sustorik handiena. Egunkarian Transilvaniako berri irakurri zuen. Hiltzaile bat topatu zutela zioen albisteak. Munduan sekula harrapaturiko hiltzailerik arriskutsuena. Bere biktimak odola xurgatuz hiltzen zituen munstro batez hitz egiten zuen egunkariak. Hiltzailearen argazkia ere azaltzen zen albistearen alboan, eta horrexek



Nahia Agudo

izutu zuen John gehiena. Bera Transilvanian izan zenean ostatutzat erabili zuen gazteluko jabe gaztea zen hiltzailea; bere ondoan hainbeste denboran egon zen gazte hura, alegia. Gorputz osoa dardarka jarri zitzaion John gizajoari hiltzailearen alboan pasaturiko denbora guztiaz oroitzuz. Baina, era berean, eskerrak eman zizkion Jainkoari bizirik zegoelako. Gaur egun, Transilvania eskualde bikaina da bisitan joateko; baina, argi, orain dela bi urte kartzelatik ospa egitea lortu zuen hiltzaile ospetsuak eta inork ez du hura non ote dagoen arrastorik.

Ainhoa Grijalba


Erregearen etorrerako graffitiak

Baziren behin Xabier eta Intza izeneko bi gazte graffitiak egitea asko gustatzen zitzaienak. Xabier txikia zen, begi marroiak zituen, ile beltza zeukan, bihurria zen eta kirola gustatzen zitzaion: surfa, batez ere. Intza, berriz, ezberdina zen; altura normalekoa zen bere adinerako —hau da, 12 urterako—, begiak berde argi kolorekoak zituen, ile horia zeukan, zintzoa zen eta kirola gustatzen zitzaion: saskibaloia eta futbola, batez ere. Graffitiak egitea asko gustatzen zitzaenez, eta Intzak nahi ez zuenez denen aurrean graffitiak egitea —alegia kalean—, abandonatutako leku batera joaten ziren eta han egiten zituzten beren graffiti guztiak.

Egun batean, hondartzan zeudela, bi tren gidari pasa ziren zerbaitetaz hitz egiten eta Xabier eta Intzaren lagun batek entzun egin zuen tren gidarien elkarrizketa guztia; ziztu bizian joan zen gazteak abisatzera. Konturatu zirenean erregearen trena zetorrela, segituan spray poteak erostera joan ziren, pentsatuz ideia ona zela erregearen trenean graffiti pare bat egitea, mundu guztiak ikus zezan zer graffiti politak egiten zituzten. Kolore biziak erabiltzea pentsatu zuten, jendeak graffitiak hobeto ikus zitzaizkien: horia, urdina, berdea, gorria...

Erregearen trena iristeko bi egun falta zirela, etxe abandonatura joan ziren Xabier eta Intza, graffitiak egitera, beren teknika hobetzeko asmotan. Halaxe ibili ziren egun osoa graffitiak egiten; bazkaria ere eramane zuten, goserik ez pasatzeko.

Beren gurasoak oso urduri zeuden seme-alabak ez zirelako etxera itzuli. Orduan, gazteen lagunei galdetu zieten ea bazekiten non egon ahal zuten. Gehienak isilik geratu ziren, nahiz eta jakin non zeuden, sekretu bat zelako. Baina bazegoen gehiegi arduratzen zen lagun bat eta hark segituan esan zien non zeuden Intza eta Xabier; hau da, etxe abandonatuan. Lagunaren hitzak entzun orduko, gurasoak korrika bizian joan ziren etxe abandonatura beren haurren bila. Hantxe aurkitu zituzten bi gaztetxoak loak harrapatuak, egun guztia jo eta ke lanean ibili baitziren, graffitiak egiteko teknika



Oihana Aramendi

hobetu nahian.

Hurrengo egunean planifikatu egin zuten ea nola margotuko zuten erregearen trena inor ohartu gabe. Pentsatu zutena izan zen jantzi beltzekin edo ilunekin joatea, inork ikus ez zitzaizkien; hori bai, gauez, erregearen trena orduan baitzeturten; zehazki esanda, gaueko hamarretan. Irudikatuz agian ez zela ondo aterako, aurrena tren arrunt batekin probatzea erabaki zuten, baina graffitiak saiatu gabe egiten; hau da, gogorik gabe. Han agertu ziren gaueko hamabietan gaztetxoak, inork ez zituen harrapatu eta, nahiz eta gogorik gabe egin graffitiak, oso politak irten zitzaizkien.

Poliziak goizeko ordu batetan konturatu ziren graffiti batzuk egin zizkietela trenari eta nor izan zen aurkitu nahi izan zuten lehenbailehen, erregearen trenarekin gauza bera gertatu ez zedin; baina gazteak ordurako ohean zeudenez ametsetan, ez zuten haien susmorik hartu.


Erregearen etorrerako egunean, berriz ere, spray poteak erostera joan ziren, gauean falta ez izateko. Goiz guztia etxe abandonatuan pasa zuten, graffitiak egin eta egin, nahiz eta oso ondo zekiten beren gurasoek ez zirela uzten hara joaten. Han zeudela, gizon bat etorri zen, etxea bota egin behar zutela esanez, zinema bat egiteko. Gazteak, alde batetik, poztu egin ziren, zinema bat edukiko zutelako herrian; baina, gehienbat, tristatu egin ziren, beren afizio handiena betetzeko lekurik gabe geratuko zirelako. Hala ere, planarekin aurrera jarraitu zuten, beren graffitiak ikusi eta gero, agian, jendeak marraztu ahal izateko leku bat lortuko zirelako.

Azkenean, iritsi zen momentua: gaueko hamarrak. Jende mordoa joan zen erregea ikustera —seguruenik, herri guztia eta alboko herrietako jende asko ere bai—. Polizia pila ere bazen eta, orduan, pixka bat beldurtu egin ziren Xabier eta Intza. Jende guztia joan zenean —erregea ere bai—, guardia batzuk besterik ez ziren gelditzen: gauez trena zaindu behar zutenak, hain zuzen ere. Orduan, berehalaxe ekin zioten marrazteari, beste lagun batzuk guardian zeuden bitartean. Ia-ia bukatzen ari zirela, polizia bat etorri zen eta harrapatu egin zituzten bihurrikeriatan. Ziegara eraman zituzten hurrengo egunean, erregeak zigorra jarri ziezaien.

Hurrengo goizean, erregeak galdetu zuen ea zer pasa zen eta poliziek erantzun zioten bere trena margotzen harrapatu zituztela gazte batzuk. Momentu horretan erregeak esan zuen marrazkiak ikusi nahi zituela; eta hala izan zen: berehalaxe joan ziren marrazkiak ikustera. Ikusi zituenean, aho zabalik gelditu zen. Orduan esan zuen: "Izugarri gustatzen zaizkit zuen marrazkiak, gazteok!" Hori entzutean, oso pozik jarri ziren. Hori gutxi balitz, lan bat eman zien: berarentzat marrazketan jardutea, alegia. Eta, horrez gain, beren herrian horma handi-handi bat jartzeko agindu zion erregeak alkateari, nahi zuenak graffitiak egin ahal izan zitzaizkien.

Gazteak, hortik aurrera, ezin hobeto bizi izan ziren, beren afizioz betetako bizitzarekin, beren lagunekin, beren soldatarekin...

Sara Iparragirre



Paula Argintxona

Xabierren ahalmena

Bazen behin Gorliz izeneko herrian 17 urteko mutil bat, Xabier izenekoa. Oso alaia zen, denekin ondo eramaten zen, gurasoekin jator portatzen zen eta denak oso gustura egoten ziren berarekin.

Egun batean, Xabier bere lagunekin gelditu zen eta, 17 urte zituenez, gurasoek ondoko herriko festetara joateko baimena eman zioten eta bertara joan ziren.

Han festa handia zegoen eta gauza asko zeuden: kontzertuak, tiobiboak... ederki pasatzen ari ziren. Gaua iritsi zenean, Xabier gehiegi edanda zegoen eta ez zekien zer egiten zuen; orduan, gazte koadrila batek, hura ikusita, drogak eta zigarroak ematea erabaki zuten. Segituan, Xabier eta bere lagunak inor ez zegoen toki batera eraman zituzten eta erretzen hasi ziren denak. Xabierren lagunek, Jon eta Josebak, joan egin nahi zuten toki arraro hartatik. Gainera, drogak benetan zer ziren ikusi zuten eta Xabierri behin eta berriz esan zioten gaizki bukatuko zuela lagun talde harekin; baina, berari gustatu egin zitzaionez, bertan geratu zen eta, ordutik aurrera, drogekin ibiltzen hasi zen.

Handik hilabete eta bi astera, Xabierrek jateari utzi zion. Ez zeukala goserik esaten zuen eta gurasoek, kezkatuta, esaten zioten:

—Zerbait jan behar duzu, bestela ahuldu egingo zara.

—Ez dut ezer jan nahi! —erantzuten zien berak oihuka—. Bakean uztea bakarrik nahi dut.

—Medikuarengana eramango zaitugu. Ezer jan gabe ezin duzu egon.

—Ez. Ez deitu medikuari, bestela... ikusiko duzu zer egingo dudan!

Ama negarrez hasi zen. Beldurturik zegoen; ez zekien zer gertatzen zitzaion semeari, baina arazoa segituan konpontzea nahi zuela nabari zen.

Ostiralean, ikastolan zegoela, gaizki sentitzen zela esan zion Xabierrek Joni eta hark erantzun zion:


—Ez jatearen ondorioz zaude horrela. Joan zaitetz medikuarengana amarekin.

—Ez hasi nire ama bezala! —erantzun zion haserre—. Nik badakit zer egiten dudan.

—Ez, ez dakizu. Zure buruari kalte egiten ari zara eta...

—Utzi bakean! —esan zuen Xabierrek, eta joan egin zen.

Etxera zihoala, zorabiatzen hasi zen eta, lurrera erortzear zegoela, aulki batean eserita geratu zen. Jarraian, Jonek arrazoi izango zuen ala ez pentsatzen geratu zen une



Eider Begiristain

batean eta erabaki zuen berak bere buruarekin nahi zuen guztia egingo zuela inori kasurik egin gabe. Segituan pasa zitzaion zorabioa; baina, etxera iritsi bezain azkar, jarabe bat hartu zuen, berriro ez gertatzeko arratsalde hartan gertatutakoa. Jarabea edaten ari zela, ama sartu zen sukaldera eta, harriturik, galdetu zion:

—Medikuarengana joan al zara? Zureak al dira pastilla hauek?

—Ez dut medikuaren beharrik, eta pastilla horiek nireak dira; baina ez egin galdera gehiago, ez baitizut erantzungo.

—Ezin duzu jaraberik hartu medikuak ez badizu hartzeko esan! —oihukatu zion—. Kalte egingo dizu!

—Ez oihukatu niri! Nahi dudana egingo dut!

Ama korrika joan zen Peio aitarengana, eta esan zion:

—Zerbait gertatzen zaio gure semeari. Psikologo batengana eraman behar genuke. Gureak ez diren pastilla batzuk agertu dira eta, gainera, batzuk falta dira. Ke usaina ere badago eta guk ez dugu erretzen.

—Zer esan nahi duzu, gure semea drogekin dabilela?

—Bai, eta zerbait egin beharra daukagu.

Gaua iritsi zenean, etxeko txirrinak jo zuen eta Xabier korrika jaitsi zen. Bere amak nor zen galdetu zuen, baina berak ez zion erantzun. Bere lagun berriak ziren: Mikel, Asier, Andoni eta Xanti. Segituan, auto batean sartu eta joan egin ziren.

Hurrengo egunean, hamabietan esnatu zen Xabier eta, izugarrizko buruko mina zuenez, jarabea hartzera joan zen; baina, sukaldera sartu zenean, ez zegoela jaraberik konturatu zen eta oihuka hasi zen. Pixka bat lasaitzeko, kalera irtetea erabaki zuen; baina, badaezpada, ez zen oso urrutira joan. Paseo bat eman zuenean, ibai ondoko arroka batean eseri zen; harri bat hartu eta lurlean berak bakarrik ulertzen zituen marrazkiak egiten hasi zen. Gainera, ez zekien zergatik egiten zituen marrazki haiek... burua joaten hasi zitzaion. Hasieran, zerura begira egoten zen pixka batean eta, bere barruan gauza arraroak sentitzen zituenean, marrazten hasten zen. Lehenik, gizon bat marraztu zuen uretako motorrarekin ibaian eta, halako batean, ibaian gizon bat agertu zen uretako motorrarekin. Bera harrituta geratu zen eta pentsatu zuen gerora gertatuko zena igartzen zuela. Minutu batzuk igarotakoan, zerura begira jarri zen berriro eta ambulanzia bat marraztu zuen, baina ez zen ambulanziarik agertu inon. Korrika hasi zen amarengana azkar iristeko, baina mareatu egin zen eta lurlean etzanda geratu zen. Esnatu zenean, bi gizon zeuzkan ondoan eta bere ama zetorren etxe ondoko dendatik korrika.

—Goazen medikuarengana! —esan zuen amak larriturik.

—Lasai, emakumea, ambulanzitari deitu diogu —esan zion gizonetako batek—, segi-

tuan iritsiko da.

—Eskerrik asko.

—Segituan iritsi zen anbulantzia eta bertan eraman zituzten Xabier eta bere ama.

Ospitalera iristear zeudela, Xabier berak marraztutako anbulantziaz gogoratu zen eta ziur zegoen gerora gertatuko zena iragartzen zuela eta anbulantziako medikuari, Unairi, esan zion hori guztia, baina medikuak barrez erantzun zion:

—Horiek zure irudimenak dira!

—Ez da nire irudimena, baina ez esan inori.

—Ez, lasai.

Ospitalera iritsi zirenean, Xabier berriro zorabiatu zen eta segituan atenditu zuten. Medikuek ez zekiten zer gertatzen zitzaion eta, azkenean, Xabierrek esan zuen:

—Gau batean, mutil talde batek drogak eman zizkidan eta, drogak hartzea gustatu zitzaidanez, berekin geratzen nintzen. Gainera, jateari utzi diot eta oso ahulduta nago.

—Zure zorabioak horren ondorio dira eta zure irudimen arraro horiek ere bai.

Xabier gela batean sartu zuten. Han ez zegoen inor, berarentzat zen gela guztia. Lo hartzeko zorian zegoela, zerura begiratu zuen eta berriro ere marrazkiak egiten hasi zen. Oraingoan, mutil bat marraztu zuen koman, baina pentsatu zuen erietxean zegoe-lako izango zela; ez zuen ulertzen zergatik marraztu zuen hura. Gero, Unai medikua sartu zen gelan eta, marrazki hura ikustean, errieta egin zion:

—Ezin duzu nahi duzun guztia egin! Ez dut nahi horma berriro pintatzerik.

—Baina... nahi gabe egiten dut, ez dakit zergatik egin dudan marrazki hori.

—Ez egin berriro! Garbitzaileari deitzera noa.

Hamar minutura etorri zen garbitzailea eta, hormako marrazkia ikustean, haserre esan zion Xabierri:

—Orrietan marrazten da, eta ez horman! Dena nik garbitu behar dut; beraz, ez egin berriro horrelako ezer!

Bi egun igarotakoan, Jon eta Joseba joan ziren bisita egitera eta medikuek ospitalearen kanpora paseotxo bat ematera joateko baimena eman zioten. Paseatzen ari zirela, Xabierrek barkamena eskatu zien Joni eta Josebari, ikastolan eta kalean jaramon ez egiteagatik. Zazpiak aldera erietxeko aulkian eseri ziren hirurak eta Xabierrek pintura potoa hartu eta aurrean zuen etxe zaharreko paretan marrazten hasi zen. Hondartza bat marraztu zuen lehenik; baina, gero, zuhaitz erori batzuk marraztu zituen hondartza haren gainean. Xabier marrazkiari begira geratu zen bost minutu eta oiuhuka esan zuen:

—Hondartzako zuhaitzak eroriko dira laster eta bertako jendea hil egingo da!

—Deitu medikuari, Jon! —esan zuen Josebak—. Burua joan zaio.

Eta Jon korrika abiatu zen mediku baten bila. Xabierrek behin eta berriz errepikatzen zuen hondartzan gertatuko zen hondamendia eta jende guztia berari begira geratzen zen.

—Mutil hau eroa dago! —esan zuen andre batek—. Eroetxera joan beharra dauka.

Medikuak iritsi bezain azkar, Xabier zorabiatu egin zen; baina, oraingo honetan, ez zen esnatzen eta, azkenean, koman amaitu zuen.

Unai Xabierrek ospitaleko gelan egin zuen marrazkiaz gogoratu zen eta esan ziona egia zela ohartu zen. Horregatik, segituan, beste mediku baten bila abiatu zen; baina, Xabierrek inori ez esateko esan zionez, sekretua gorde egin zuen.

Bi hilabetera Xabierrek koman segitzen zuen eta bere lagunak egunero joaten ziren bisita egitera; baina, egun batean, Jon eta Joseba ospitalera joan zirenean, Xabier ez zegoela ikusi zuten eta haren gurasoek esan zieten hil egin zela. Hori entzun orduko, negarrez hasi ziren eta etxera joan ziren.

Hurrengo egunean, Xabierren hileta izan zen eta, hileta amaieran, Joseba etxera joan zen oso triste eta, iritsi zenean, telebista piztuta zegoen: albisteak ipinita zeuden eta bertan hondartzako zuhaitzak erori egin zirela eta jende asko hil zela entzun zuen. Segituan, Joni deitu zion esanez:

—Gogoratzen zara Xabierrek ospitalaren kanpoan esan zuenaz?


—Bai, zergatik? —erantzun zion.

—Telebistan entzun dut zuhaitzak erori eta jende asko hil dela. Xabierrek gerora gertatuko zena zekien!

—Hori harrigarria da! Jendeari esan beharra daukagu!

Hurrengo egunean egunkarian azaldu zen Xabierrek zeukan ahalmena eta bere bi lagunak ipuin bat idatzi zuten haren oroigarri.

Enara Larreta



Teresa Argibe


Bizitzaren alde positiboak eta negatiboak

Alemaniarriko Berlin hiriburuan Edurne eta bere familia bizi ziren. Edurnek 13 urte zituen eta oso polita zen. Gainera, begi berdeak zituen, ile horiarekin eta ez zuen udan eguzkia hartzeko beharrik, nahiko morena baitzen. Oso argia zen ikasketetan eta irakasle guztiei oso neska jatorra eta leiala iruditzen zitzaion. Baina bere gelakideei ez zitzaion gauza bera iruditzen; horregatik, berak ez zuen lagunik. Beti bakarrik ibiltzen zen eta asteburu arruntetan, ez bazuen ezer egiteko, bere amonaren etxera joaten zen eta amonak bere gaztetako istorioak kontatzen zizkion. Edurne oso edukatua zenez eta gauza horiek interesgarriak egiten zitzaizkionez, oso adi entzuten zion bere amonari, lau belarri edukiko balitu bezala.

Edurnek bi anai zituen. Batak Ander zuen izena eta 17 urte zituen. Institutuan oso ongi ikusia zegoen; esan daitekeenez, liderra ere bazen. Deskribatzeko garaian, jende guztiak berdin deskribatzen zuen: ile horia, ederra, surfista, mazizoa... Gainera, nork esango zuen, baina Berlingo etxerik politenean bizi ziren. Edurneren beste anaiak Martin zuen izena eta hark, aldiz, 10 urte zituen. Oso bihurria zen eta beren aitak askotan joan behar izaten zuen irakaslearekin hitz egitera beti bihurrikeriaren bat egiten baitzuen. Hirugarren anai hark ere oso ile horia zuen eta ez zen batere motza. Hirurak oso pozik bizi ziren, beren ama bularreko minbiziaren ondorioz hil zen arte. Ama alemaniarra zen —horregatik bizi ziren han— eta baita psikologoa ere eta asko laguntzen zion Edurneri bere arazoekin, orain egin ezin zuen gauza bat.

Amaren familia ez zen oso aberatsa; baina aitarena, aldiz, bai, hiru anai-arreba hauen aitona erregea izan baitzen. Aita euskalduna zen eta abokatua; bi enpresen jabe ere bazen eta, nahiz eta orain burusoila izan, bere garaian oso mutil ederra zen. Ezkontzeko garaian, tratu bat egin zuten gurasoek: ez zekitenez non biziko ziren —hau da, Euskal Herrian edo Alemanian—, esan zuten bietako edozeinen herrian geratzen baziren, bestearen herriko izenak edo besteak aukeratutako izenak jarriko zizkietela hurrei; eta horrela egin zuten. Horregatik izena zuten horrela: Ander, Edurne eta Martin. Baina etxea handia zen eta ez ziren laurak bakarrik bizi. Bi neskame zituzten, janaria prestatzeko, arropa garbitzeko, etxea garbitzeko eta, batez ere batek, Edurnerekin ordu asko pasatzen zituen, elkarri nork bere arazoak kontatuz. Bi neskameek Carolina eta Paula zuten izena eta biak Hego Ameriketako jatorria zuten eta Alemaniara lan bila joan ziren; horregatik zeuden haien etxean.

Baina horiek guztiak orain dela 17 urteko kontuak dira, Edurnek bere egunerokoan idatzita dauzkanak. Edurnek, gaur egun, 30 urte ditu eta bere bi alabei kontatzen ari da bere gaztetako istorio hauek, kaxa batzuetan 2011n idatzi zuen eguneroko zaharra aurkitu baitu. Orain 2028. urtean dago eta bere bi alabari, Julieti eta Klarari, ari zaie



Eider Arruti

kontu kontari. Hirurak amaren ohean daude, manta artean, eta aitaren zain daude ea noiz iritsiko den etxera lanetik, jada gaueko 22:00ak direlako. Klarak, egunerokoa eskuetan hartuta, zera dio:

—Ama, eskuz idazten al zenuten?

Amak alabari:

—Bai, garai haietan ez zegoen orain dagoen teknologia aurreratua.

—Hau aspermena! Eskuz idatzi beharra zeure sentimenduak!

Klarak 14 urte ditu eta txoriak ditu buruan; horregatik, dena "mierda" bat iruditzen zaio. Julietek oraindik 9 urte ditu eta ez du ulertzen gauza askorik; baina, nahi duenerako, oso espabilatua da. Klara egunerokoa irakurtzen hasten da:

"Gaur, 2011ko martxoaren 21a da eta gauza negargarri bat gertatu zait. Niri, askotan hemen idatzi dudan bezala, Dani gustatzen zait eta ez dut ia inoiz berarekin hitz egin, ez bada ikastolak antolatzen dituen herri kirolatan edo berarekin tokatzen bazait."

Bat-batean, Julietek Klararen irakurketa hausten du eta zer den herri kirolak galdetzen du. Amak zer den azaltzen dio:

—Juliet, herri kirolak nire garaian egiten ziren: klaseko egun bat galduz, edade ezberdineko eta sexu ezberdineko gazteak bildu eta bata bestearen aurka borrokatzen ginen.

Alabak oso interesgarria dela aitortzen dio amari. Elkarrizketa amaitzean, Klarak irakurtzen jarraitzen du:

"Gelara neska berri bat etorri da, Niccó. Oso polita da. Ile beltza du, gerriraino edo ipurdiraino gutxi gorabehera. Sudur txikia du, punta finarekin amaitzen den horietakoa. Nire ondoan eseri da ikasgelan eta Danirekin tontoarena egiten hasi da. Orduan nik ea Dani gustatzen zaion galdetu diot eta berak oso ederra dela erantzun dit. Arrazoi horregatik nago lur jota. Niccó Danitaz egoteak ez du ezer esan nahi orain, baina etorkizunean Daniri ere Niccó gustatzen bazaio? Zer egin dezaket? Gainera orain ez dut ama eta... Gauzak zailak dira... Ea Edurne, pentsa dezagun ondo..."

Klarak irakurtzeari utzi eta dio:

—Ama, hemen zeure ama aipatzen duzu eta galdera bat egin nahi nizuke. Nolakoa zen? Esan nahi dut, nolakoa zen fisikoki?

—Klara maitea, nik zeure adina nuen ama galdu nuenean eta ez dut asko oroitzen, ez bada argazkietan ikusten dudana; beragandik gogoratzen dudabn gauza bakarra da oso jatorra zela jende guztiarekin eta oso alaia. Barre alaia zuen eta hitz egiten zuen bakoitzean, bere ile gorria ukitu behar zuen eta horrekin oso urduri jartzen ginen gu.

Julietek ama mozten du:

—Ama, horregatik naiz ni ile-gorria!

—Hori da Juliet, amonarengandik zatoz zu.

—Bai!

—Jarrai dezaket irakurtzen? —dio Klarak.

—Noski.

"Gaur, aldiz, 2011ko martxoaren 22a da eta ohean nago etzanda, esan daitekeenez, negarrez. Nire anaiarekin haserretu naiz (Anderrekin). Nazka ematen dit! Ikastolako liderra delako, munduko onena dela pentsatzen du eta gauzak ez dira horrela! Gainera, lehen, Dani eta Niccó komunean musuka harrapatu ditut eta nire gelako bi neskei, Sara eta Laurari, elkarrizketa bat entzun diet eta zera zioten:

—Ba al dakizu azken berria? —Sarak lagunari.

—Ez, zein da? —Lurak, harriturik.

—Neska berria —hau da, Niccó— eta Dani batera daude. Lehen, goizean goiz, Danik eskatu dio.

—Edurne izorratuko dela!

—Hori da hitz egitea, Laura! —Sarak maltzurki.

Oso gaizki sentitu naiz hori entzun dudanean eta gero komunekoa jada izan da...

Gaur aitak bilera bat dauka kanpoan eta Martin, Ander eta ni bakarrik gaude etxean Carolina eta Paularekin eta, nahiz eta 21:00ak izan oraindik, ohera sartu naiz.

Aste honetan eta hilabete honetan, jendearen ahotan Dani eta Niccó besterik ez dira egongo! Hau nazka ematen didana! Gainera, matematikako klasean, Niccó denbora guztian bihotzak egiten eta D letra idazten ari zen leku guztietan, nire eskuan ere idatzi du! Begira zein enamoratua dagoen! Bihar nire urteak dira baina berdin zait jada. Inork ez nau maite... Nire bizitza zaborretara botatzeko bizitza bat bezalakoa da! Ea handia egiten naizenean gauzak aldatzen diren!"

—Ama, gauzak aldatu dira! —Klarak eta Julietek batera, oso pozik.

—Bai, zorionez, bai. Zeuen aita ezagutu nuen egunetik nire bizitza goitik beheraraino aldatu zen!

—A ze poza! —Klarak.

"2011ko martxoaren 23a da gaur eta nire urteak. Aitak kontzertu baterako bi sarrera erosi dizkit, baina ez dakit nor gonbidatu nirekin joateko. Agian, nire gelako bati oparitu dizkiot; aprobeztatuz, bere laguna ere egin naiteke, baina ez dakit. Anderrek ez dit ezer oparitu (ez nuen espero) eta Martinek marrazki bat oparitu dit. Amonak dirua

eman dit, baita izeba-osabek ere eta Carolina eta Paulak, arropa. Arropa asko. Hori izan da eduki dudan oparirik onena. Gona bat, I love NY-ko jertse bat, hainbat kamiseta...

Beste alde batetik, uste dut eroa nagoela eta hementxe dago arrazoa: Niccó eta Dani, jolas-garaian, musukatzen zebiltzan eta Daniri bere lagunak deitu diote. Orduan joan egin da (ni bitartean espiatzen nengoen). Eta, bat-batean, Niccók ni begiratzen ari nintzen zulara begiratu du, barre maltzur bat egin eta desagertu egin da; baina ez desagertu azkar joan edo horrelako zerbait, EZ! DESAGERTU EGIN DA! Orduan, ni korrika hasi naiz ikastolarantz eta bera han zegoen jendearekin hitz egiten. Barrura sartu naizenean, liburuak hartu ostean noski, leihotik begiratu dut eta euria ari zuen. Lurrerantz begiratu eta zer ote zegoen? Niccó euritan bustitzen ari zen. Gainera, bera lasai zegoen, esan nahi dut, bi eskuak behean, eta beherantz begiratzen zegoen eta bat-baten korrika hasi da ikastolarantz. Irakaslea sartu da eta Niccó haren atzetik. Pentsatuko duzu busti-bustita zegoela; baina ez, lehorra zegoen, oso lehorra gainera. Nola azal dezaket hau? Ezinezkoa da! Baina zer egingo diot? Utzi egingo diot nahi duena egiten."

—Ama, komunera noa, orain jarraituko dut irakurtzen.

—Ongi da; bitartean, Julietek eta biok zerbait prestatuko dugu jateko. Juliet zer nahi duzu? —amak, oso jator.

—Nik txokolatea nahi dut eta suposatzen dut Klarak ere gauza bera nahi izango duela.

—Ongi da, goazen sukaldera.

Ama eta Juliet txokolatea eta zerbait edateko hartzera joan dira, Klara bitartean komunera joan baita. Ama-alabak iritsi direnean, Klarak irakurtzen jarraitzeko asmoa du, baina jada berandu denez, hiruak amaren ohean egin dute lo. Hurrengo egunean jaiki direnean, goizeko 9.00ak dira eta irakurtzen jarraitu dute. Hasieran, Juliet hasi da; baina, oso makala denez irakurtzen, Klarak segitu du:

"Gaur, 2011ko martxoaren 24a da eta Niccórekin hitz egiten ausartu naiz. Jangelan geunden eta bazkaltzen amaitu dugunean, eskuak eta hortzak garbitzera joan garenean, Niccóri gaia atera diot, hau da, lehengoan gertatutakoari buruz hitz egin diot eta berak mamua dela aitortu dit. Nik lagunak izan gaitezkeela proposatu diot; baina kondizio bat jarri dit: inori ezin diodala kontatu bera mamua dela eta horrela egingo dut. Nik ere beste kondizio bat jarri diot eta hauxe izan da: Dani uzteko, mesedez. Berak esan dit jada uztekotan zegoela eta, beraz, gaur arratsaldean utziko duela. Nire bizitza zertxobait aldatu da eta, hori pentsatzean, oso pozik jartzen naiz."

—Ama, Niccó izan al zen zeure lehen benetako laguna? —Julietek, harriturik.

—Bai eta, gainera, orain hemen egon daiteke berak nahi badu. Ez baitugu ikusten.

—Ama, eta orain guri laguntzen al dago? Kar, kar, kar! —Klarak, barrezka.

—Klara! Ez itzazu esan horrelako gauzak ezagutzen ez duzun pertsona bati buruz.

—Ongi da...

—Irakurri adi eta, Juliet, entzun lau belarri izango bazenitu bezala oraingo zati honetan, hau oso interesgarria baita! —esan du amak.

"Gaur 2016ko ekainaren 17a da eta 19 urte ditut. Madrilen nago nire etxe berrian. Zertxobait arraroa egingo zaizu; baina bai, ikastera etorri naiz hona. Laster etxera noa uda pasatzera, gaur Martinen urteak baitira eta familiarekin egotera. Bost urte hauetan Niccók eta nik, pasarte asko eduki ditugu, haserreak, negarrak, barreak, oso egun alaiak, tristeak, ikasketak, arroparekin arazoak eta azkenekoa eta garrantzitsuena, elkarri eman diogun laguntasuna. Nik uste hori inork ez duela egin lagun batengatik zeren inork ez du lagun bakarra, gehiago ere baditu NORMALEAN, baina Niccók eta ni ez gara horrelakoak. Lehen dutxan nengoen eta uste dut ez dudala esan, baina Niccók ere nirekin dago Madrilen. Hona etorri da gu ez banatzeko, baina berak ez du ikasketarik. Berak egin zituen bere garaian (mamua baita, baina nire edadekoa ematen du).

Gurekin Iñigo ere bizi da. Orioko bat da eta unibertsitatean ikasten ari garenez eta biok gauza bera, Niccók eta biok gurekin bizitzera gonbidatu dugu. Etxea, berez, nirea da, bueno, nire aitak erosi dit nire ikasketak aurrera eramateko. Dutexan nengoen eta kantatzen, ohikoa den bezala, eta bat-batean, janztera nindoala nire gelara toaila eta guzti, Iñigo eta Niccók txaloka hasi zaizkit eta esan didate oso ongi kantatzen dudala. Proposamen bat ere egin didate: 'Operación Triunfo'-ra kantatzera joatea, baina ez dakit zer egin. Pentsatzen ari naiz oraindik."

—Ama, OT-ra joan zinela inork ez daki! Joan al zinen, bada? —esan du Klarak, oihuka.

—Ikusiko duzu, maitea.

"Operación Triunfora joango naiz! Bai. Niccóri galdetuko diot ea noiz diren casting-ak eta hara joango naiz. Esperientzia berria izango da."

—Hau urduritasuna, benetako liburu bat ematen du —esan du Klarak.

—Arrazoi guztia duzu —erantzun dio amak.

"2016ko azaroaren 9a. Aspaldian ez dut idazten eta berri onak ditut. Casting-era joan nintzen eta erantzunen zain geunden bitartean —hau da, OT-ko eskolara nor sartuko zen abisatzen ziguten bitartean— oso urduri egon nintzen; baina aste bat bakarrik izan zen. Karta bat idatzi zidaten, Madrilgo hotel batean elkartuko ginela esanez. Hara joan nintzen eta jende mordo bat zegoen. Presentatu ginen eta eskolara eraman gintuzten. Bertan zein zegoen kalean eta zein barruan esan ziguten eta, eskolan hartu nindutela esan zutenean, Niccóri eta Iñigori deitzera joan nintzen. Akademian hiru hilabete egon nintzen eta bai, irabazle atera nintzen. Lehenengo galan oso urduri nengoen. Kanta oso menperatua nuen; baina, hala ere, oso gaizki jarri nintzen. Kantatu ondoren, kritikak

entzun nituen (beti bezala eta guztiek bezala). Azkenean, oso pozik bueltatu nintzen akademiara eta horrela azkeneko galara arte. Azken galan hiru geratzen ginen: ni, Sergio eta Nahuel. Hirurok, lehenengo, batera abestu genuen eta, gero, bakoitzak berea. Publikoagatik nik irabazten nuen eta epaileek zioten Nahuelek irabazi behar zuela, batek izan ezik. Orduan, Nahuelek eta nik berriro abestu genuen eta irabazle atera nintzen. Horren ondorioz, mutila aurkitu nuen, Jon. Baina hilabete bat egin ostean, utzi egin genuen. Orain ohera noa, oso nekatua nago-eta. Mundu guztiari gomendatuko nioke esperientzia hori, oso polita baita."

—Ama, nork esango zuen horrelako gauza bat zutaz? —esan du Klarak.

—Kontatu nola ezagutu zenuen gure aita —erantsi du Julietek.

—Ongi da; baina gero gosaltzera, e! Goizeko 10:30ak baitira.


—Bale! —biak batera.

—Zuen aita bidiaia batean ezagutu nuen. Konkurtso horretan irabazi nuen diru mordoarekin eta autoarekin oporretara gonbidatu nituen Niccó eta Iñigo. Kaliforniara joan ginen. Han denek ingelesez hitz egiten zuten eta zertxobait ikasi ahal izan genuen. Hango hotelean, mutil eder bat ikusi nuen eta beregana hurbildu nintzen. Hitz egiten hasi ginen eta esan zidan Euskal Herrikoa zela. Orduan, lagun izaten hasi ginen eta, azkenean, begira nola amaitu dugun. Ezkonduta! —bukatu du amak irribarre handi batekin.

—Oso polita, ama, benetan.

Egun horretatik aurrera, familia hau oso pozik bizi izan zen eta Edurne eta Niccó berriro ere elkartu egin ziren eta oso lagun handiak izaten segitu zuten.

Olatz Lukas



Itxaso Azkonbieta

Aimar kruzeroan

Aimar izeneko mutikoak 13 urte ditu, Andoainen bizi da eta arreba txiki bihurri bat dauka, Ane izenekoa, 6 urte dituena. Beren amak Nerea izena du eta aitak, berriz, Txomin. Ama medikua da eta herriko anbulatorioan lan egiten du eta aita, kamioi gidaria izanik, egun asko etxetik kanpo egoten da. Denek bezala, ez du ikastolara joateko gogorik izaten; nahiago du etxean ordenagailuaren aurrean pasa egun guztia edo bere lagunekin kalean saskibaloian edo futboleak jolastea. Ikastolan lagun asko dauzka, baina lagun minenak bi ditu: Axel eta Mikel. Aimar udako oporretan dago eta laster gurasoekin eta bere arreba Anerekin oporretara doa: kruzero batean ibiliko dira eta Aimarrek izugarrizko gogo handia du. Bere ametsa kruzeroan ibiltzea zen eta, azkenean, bete egin da.

Azkenean, eguna iritsi zen; bezperan, maleta eta gauza guztiak prestatuak zeuzkatzen. Aimarrek aurreko gauean ez zuen ia lorik egin, baina ez zegoen hain nekatuta. Gurasoak maletak sartzen ari ziren bitartean, Axel eta Mikel agurtzera joan zen Aimar eta, ondoren, familiako kide guztiak autoan sartu ziren. Orduan, aitak ozenki esan zuen:

—Prest al gaude? —eta beste hirurek erantzun zuten, garrasi eginez:

—Bai! —eta, denak zoriontsu, Loiuko aireportura abiatu ziren.

Ailegatu zirenean, autoa aparkalekuan utzi eta Bartzelonarako hegazkina hartu zuten. Aimar oso urduri zegoen, hegazkinean lehenengo aldiz ibili behar zuelako; baina, behin aireratu zirenean, lasaitu egin zen. Ikusi zuenean pasilloan barrena karroekin zebiltzan emakume pinpirinak, atentzio handia eman zion Aimarri eta amari, harriturik, esan zion:

—Ama! —baina Aimarren ama lo kuluxka bat egiten ari zen eta ez zion erantzun. Aimarrek, orduan, garrasi egin zion:

—Ama!

—Zer, seme? Ez al duzu ikusten lo kuluxka bat ari nintzela egiten?

—Bai, baina... gauza bat galdetu behar dizut.


—Ea... zer nahi duzu?

—Ba, pasilloan dabiltzan emakume pinpilinpauza horiek zein dira?

—Emakume horiek?

—Bai!

—Horiek azafatak dira.



Jaione Illarramendi

—Eta zer lan egiten dute? —galdetu zion amari, jakin minez.

—Zerbitzari lanak egiten dituzte, janaria ematen dizute, baina zuk ordaindu egin behar duzu.

—Orduan, badaukazu niretzat freskagarri bat erostea, mesedez? —hori entzun zuenean, hasperen egin eta azafatari freskagarri bat erosi zion eta Aimar oso gustura geratu zen bere freskagarriarekin.

Bartzelonara iritsi zirenean, porturako bidea hartu zuten eta han aurkitu zuten oportu leku izango zuten ontzi ederra. Aimar liluraturik zegoen eta baita bere gurasoak eta arreba Ane ere. Azkenean, Aimarren familiak Mediterraneoko ibilbidea egingo zuen kruzeroa hartu zuen. Familia kamarotera iritsi zen; handia eta zabala zen. Maletak hustu, bakoitzak bere logela hartu eta itsasontzia ezagutzera joan ziren. Aimarren gurasoak paseo bat ematera joan ziren bitartean, Aimar eta Ane itsasontziaren brankara joan ziren eta Aimarrek uretan izurde talde bat ikusi zuen; lehenengo aldia zen izurde talde bat ikusten zuela.


Aimarrek lagun jator bat egin zuen, Carter izenekoa. Hark ere 13 urte zituen, Italiakoa zen eta elkar komunikatzeko gaztelera erabiltzen zuten. Biei futbola gustatzen zitzairen eta inoiz ez ziren haserretzen. Carterrek anaia zaharragoa zeukan, baina egun guztia neskalagunarekin pasatzen zuen eta Aimarrek ez zuen ezagutu. Carterren gurasoak eta Aimarren gurasoak ere harreman handia zeukaten; ia egunero elkarrekin afaltzen zuten eta emakumeak itsasontziko dendetara joaten ziren eta gizonek azkeneko pisuan zegoen golf zelaian pasatzen zuten egun guztia. Aimarrek, Anek eta Carterrek, berriz, bigarren pisuan zegoen kirol pista batean egoten ziren.

Hiru egun pasa ondoren, Greziaraino iritsi ziren eta han egun guztia pasa zuten herriak ezagutzen eta, ondoren, berriz itsasontzian sartu eta Afrika ekialderako norabidea hartu zuten.

Marokora iritsi zirenean, hango giroa oso desberdina zen Greziakoarekin konparatuz. Jendea oso haserre zegoen eta manifestazio jendetsuak egiten zituzten. Marokoko herritarrek esaten zuten bertako presidentek dimititu egin behar zuela, baina berak zioen agintzen jarraituko zuela. Horregatik jendea haserre bizian zegoen. Aimar eta bere familia oso beldurturik zeuden eta, kontu handiz, itsasontzira itzuli ziren. Horren ondorioz, kruzeroak Afrika hegoalderako norabidea hartu zuen.

Kruzeroa Ozeano Atlantikoan zehar zebilela, kapitainak ontziaren aurrean "yate" azkar bat ikusi zuen eta kruzeroari erasoko ziola iruditu zitzaion. Orduan, itsasontzian zeuden turista guztiei esan zien:

—Mesedez, joan zaitetzte zuen kamaroteetara! "Yate" azkar batek erasotzeko asmoa du! Mesedez, azkar ibil zaitetzte! —mezu hori jende guztiak entzun zuenean, aguro-aguro sartu ziren guztiak beren kamaroteetan.



Alazne Arruti

Bitartean, Aimar eta Carter kirol pistan zeuden saskibaloian jokatzen eta, bat- batean, Aimarrek eta Carterrek tiro hots batzuk entzun zituzten kanpoan. Aimarrek leiho batetik ikusi zuen talde afrikar batek turista guztiak bahituta zituela eta, orduan, beldurturik, Aimar eta Carter denbora luzez itsasontziaren biltegi batean ezkutatu ziren. Kanpoan, berriz, egoera oso larrian zeuden, afrikarrek dirua edo objektu baliotsuak nahi zituzten; turista batek ez zizkien nahi eman eta, orduan, afrikar batek, haserre biziz, atzaparrekin heldu eta uretara bota zuen; marrazoek minutu gutxitan jan zuten. Hori ikusita, turistak gero eta beldurtuago zeuden. Aimar biltegitik atera eta, isilka, kapitainaren kamarotean sartu eta mezu hau bidali zuen:

—SOS, lagundu! SOS, lagundu! Afrika mendebaldeko kostan, kruzero itsasontzia GE-3805 bahituta.

Nazioarteko erakundeek mezu hori jaso zutenean, segituan, bi itsasontzi bidali zituzten Afrika ekialderantz.

Itsasontziko turistak pare bat egun beldurtuta eta sufritzen igaro zituzten; baina, ondoren, salbamenduko bi itsasontzi ailegatu ziren eta, borroka gogor baten ondoren, afrikarren talde guztia atxilotu zuten. Atxilotuak beren herrietara bidali eta kruzero ontziak Bartzelonarako bidea hartu zuen. Turistei bidaia oso gogorra egin zitzaien eta gustura hartu zuten etxea. Aimarrek bere lagun jatorra agurtu zuen eta pena handia eman zion hura bere herrira joateak; baina, bestalde, oso pozik itzuli zen Andoainera.


Udako opor liluragarriak bukatu ondoren, ikastolara joateko garaia iritsi zen. Ikastolako ikasle guztiek Aimarri heroia zela esaten zioten, eta Aimar, berriz, lotsaturik egoten zen; baina, azkenerako, harro egoteko modukoa zen.

Mikel Orbañanos

Agur, arrebatxo!

Inauteriak ziren eta ni detektibez jantzia nindoan; asko gustatzen zitzaidan detektibez jantzia joatea eta, handitan, Jon detektibe izan nahi nuen. Nire arreba Mariak, aldiz, printzesa bat izan nahi zuen; 6 urte zituela kontuan harturik, oso logikoa zen. Nik 14 urte nituen eta Zarautzera joan nahi nuen nire lagunekin batera, baina amak ez zidan uzten; aita konbentzitzen saiatuko nintzen... beno, hori ezinezkoa da, nire aita nik 9 urte nituela desagertu baitzen. Nire arrebak ezagutu bai, ezagutu zuen, baina ez zuen gogoratzen. Hala ere, haren istorio asko kontatu izan dizkiegu amak eta nik, asko gustatzen baitzaizkio.

Zarautzera joan nahi nuen nire lagunekin batera eta, gainera, lehenengo aldia zenez



Laura Arruti

lagunekin Zarautzera gauzez nindoala, ilusio handia egiten zidan.

Ama konbentzitzen ari nintzela, pixka bat ahoa joan egin zitzaidan eta hitzak gelditu gabe irteten zitzaizkidan, denak itsusiak:

—Atso zarra! Zergatik ez didazu uzten? Nire lagun guztiak doaz eta nik ez dut intentziorik horrelako amona zahar eta itsusi batekin geratzeko.

—Ei! Niri ez iezadazu horrela hitz egin, mutiko! Nik ez zaitut horrela hitz egiteko hezi —baina moztu egiten nion eta ez nion esaldi oso bat bukatzen ere uzten.

—Ixo! Aita hemen balego, berak utziko zidan. Ez naiz hartaz oso ondo ere gogoraten, baina badakit nire defentsan irtengo zela eta ez nire aurka!

—Bai, baina bera ez dago hemen! Desagertu egin zen, edo ez al zara horretaz gogoraten? Berarekin haserretu zinen, panpin bat nahigabe puskatu zizulako eta bera, erdi negarrez zuk esan zenionagatik, joan egin zen eta ez zen itzuli!

Hori entzutean, amari malko bat erori zitzaion eta negarrez joan zen bere logelara. Nik, ateari begiratu eta bi aldiz pentsatu gabe, haren diru-zorrotik dirua hartu eta lagunei deitu nien mugikorrarekin atetik irteten ari nintzen une berean.

Esan bezala, detektibez nindoan jantzita; nire lagun bat, gangsterrez eta beste bat, biktimaz (hiru zulo zituela kamisetan tinta gorritz zikinduta). Autobusaren zain geunden, bankuan eserita, eta, beti bezala, autobusa berandu zetorren. Egia esan, ez zidan inporta, ez nuen pentsatzen—eta etxera itzultzea, eta berdin zidan bost minuturengatik. Ama zen une horretan gehien gorroto nuena eta gutxiena inporta zitzaidana.

Autobusa iritsi zen eta bertan sartu nintzen. Hamar minutu barru Zarautzen egongo nintzen. Ez nekien gero nora joango ginen ezta gaua eta gero zer egingo nuen: edo etxera joan izugarritzko errieta eta izugarritzko zigorra jasatera edota beste leku batera joan... baina nora?


Zarautzera iristean, gauza batean pentsatzen egon nintzen: nire beste anai zaharrenean. Mark zuen izena eta Madrilen bizi zen, eta berarekin oso-oso ongi konpontzen nintzen. Agian, berak ulertuko zidan eta berarekin geratzen utziko zidan.

Baina, lehenengo, gau hartan ondo pasa behar nuela uste nuen, nire azken gaua izango zen—eta lagunekin. Lehenik, diskoteka batera joan ginen; han neska bat ezagutu nuen, baina ez nion kasu handirik egin. Hark, hala ere, berarekin joateko eskatu zidan:

—Etorri nirekin, mesedez, eta ez zara aspertuko. Hemen triste itxura duzu. Nirekin poztuko zara.

—Ni hona ez naiz etorri neskekin egotera, baizik eta nire lagunekin ongi pasatzera. Gainera, zeinek nahiko luke zurekin musukatu, izugarritzko bafa duzu eta.

—Zeinek esaten du zurekin musukatuko naizela? Hara! Ez ezazu uste zutaz



Maitane Escudero

nagoenik.

—Orduan, zergatik esan didazu ez naizela aspertuko?

—Nire lagunak oso... —baina, momentu hartan, izugarrizko golpea hartu zuen lur-raren kontra.

Ez zen altxatzen eta, orduan, anbulantziari deitu nion.

Ospitaleraino nik lagundu nion anbulantzian. Ez nekien ziur zergatik, baina zerbait berezia sentitu nuen. Ospitalean nengoela, neska ia hil zela zioten. Medikuek esan zidan Andreak —hori baitzen neskaren izena— ez zuela alkoholik edan, baizik eta bere Coca-Colara crack-a bota ziotela eta, Andrea ohiturik ez zegoenez, gaindosiak ia hil egin zuela.

Une hartan pentsatu nuen nire azken gaua bukatu zela eta alde egiteko ordua zela. Momentu hartan medikuaren poltsa ikusi nuen eta pentsatu nuen dirua hartuko niola, trenerako.

Poltsa irekitzera nindoala, atea ireki zen eta poltsatik urrutiratzeko denbora justua izan nuen. Medikua eta beste bi pertsona ziren: Andrearen gurasoak.

—Ez dakizu zenbat eskertzen dizugun —hasi zen Andrearen ama, aurpegia malkoz beteta zuela—. Mila esker! Zerbait nahi baduzu, esan lasai.

—Ez, eskerrik asko! —momentu horretan diru-zorroa galdu nuen plantak egitea otu zitzaidan— Ea taxirako dirurik badudan...O, ez!

—Zer gertatzen zaizu?

—Diru-zorroa galdu dut! Diskotekan utziko nuen. Jada norbaitek hartuko zuen eta diru guztia gastatu.

—Zenbat diru zenuen?

—O, ez! Nire aurrezki guztiak bertan nituen!

—Baina zenbat zenuen?

—Ba, 150 bat euro edo horrela.

—Lasai, nik emango dizkizut

—Bai, zera... ez, ez! Nik ezin dut diru hori onartu.

—Lasai, ez da ezer gertatzen. Nire alabari bizia salbatu eta gero, edozer gauza. Tori eta hogeituro gehiago, diru-zorro berria erosteko.

—Eskerrik asko, benetan.

—Eskerrik asko zuk niri? Bai, zera, ez da ezer. Nire alaba salbatu duen mutilaren—

gatik ez dago eskerrak jaso beharrik.

Andrea esnatu egin zen eta botaka egin zuen. Eta medikuak lasaitzeko esan zion, hori normala zela.

Andrea, niri begira, eskerrak ematen saiatu zen, baina ezin izan zuen bukatu.

Atetik irten nintzen eta gertu zegoen hotel batean lo egin nuen. Diru asko nuen eta hurrengo egunerako taxia eskatu nuen hoteleko harrera lekutik.

Gauean ez nuen ia lorik egin. Hurrengo egunean Donostiara joan behar nuen, Madrilerako tren hartzeko. Eta hoteleko ordenagailutik Madrilerara joateko txartela eskatu nuen. Txartela ez zen garestia, baina beldurra ematen zidan Madrilerara bakarrik joateak. Beraz, atzera egitea hautatu nuen.

Amets egin nuen eta amaz gogoratu nintzen. Eta ez zen izan amets polita. Amak aitari dibortzioa eskatzen zion eta, aitak ezezkoa esan ondoren, abokatuari deitu zion. Beraz, amak esan zion aitari abokatuak bizitza izorratuko ziola. Hori entzunda, aitak esan zion tabernara zihoala eta ez zela inoiz itzuliko.

Goizean gosaltzen ari nintzela, egoerari buelta eman eta Madrilerara joatea erabaki nuen. Nire arreba amarekin uztea gogorra iruditu zitzaidan, baina ez nuen intentziorik itzultzeko.

Taxia iritsi zenean, barrura sartu nintzen:

—Kaixo, mutiko! Asko tardatuko al du zure amak?

—Ez! Bakarrik noa.

—Eta hori?

—Nire ama bertan dut zain.

—Ongi, ba. Goazen orduan.

Ez zitzaidan gustatzen gezurrak esatea, baina egun horretan nire errekorra hautsi nuen. Jendeari lapurtu; gezurrak esan; lagunak, ama eta arreba utzi...

Trena iritsi zen eta barrura sartu nintzen. 32. eserlekua nuen eta, kasualitatez, ez zegoen inor nire ondoan eserita. Bidaiak bost ordu eta erdi irauten zuen, baina logurak nengoen. Hortaz, lo hartu eta segituan iritsiko nintzelakoan nengoen. Baina ezin izan nuen lorik hartu; nire atzean ume bat baitzegoen eta aulkiari ostikadak ematen pasatzen zuen denbora guztia. Bere aita lotan zegoenez, ez zion umeari ezer esaten eta ni nerbioetatik nengoen.

Azkenean, iritsi ginen eta Madrilen beste taxi bat hartu nahi izan nuen; baina taxi gidariak ez zidan uzten bakarrik joaten eta, beraz, autobusen ordutegia eskatu nion. Baina atzetik norbaitek bi kolpetxo eman zizkidan eta, buelta erdia ematean, nire anaia

Mark ikusi nuen.

—Ei! Zer egiten duzu hemen bakarrik? Non da ama?

—Bakarrik nator, zurekin egun batzuk pasatzera, ez bazaizu inporta.

—Ez, lasai, ez zait inporta; baina zein da arrazoia?

—Nahiago nuke horretaz zure etxean hitz egin.

—Ongi, ba, goazen, autoa gertu dut-eta.

Anaiaren etxera iristean, neska batekin topo egin nuen eta Markek esan zidan bere neskalaguna zela; baina amari ezer ez esateko. Nik buruarekin baiezkoa egin nion eta, orduan, tratu bat egin genuen:

—Ongi! Ez diot amari ezer esango, baina ez iezaiozu esan ni hemen nagoela.

—Bale, baina zergatik?

—Amarekin haserretu nintzen eta oso hitz itsusiak esan nizkion. Ondoren, Zarautzera joan nintzen lagunekin. Eta handik Donostiara joan eta trenez etorri naiz —badaezpada ere, ez nion esan lapurtu egin nuela; baina, une hartan, galdera egin zidan:

—Eta nola lortu duzu dirua?

—Beno... diru asko nuen eltzetsuan eta dena gastatu behar izan nuen.

—Ba, barkatu hau esatea; baina ezin zaitut hemen eduki ama informatu gabe.

—Ez! Mesedez, Mark! Tratu bat genuen...

—Bai! Baina ezin duzu hemen geratu amari ezer esan gabe!

—Ongi da! Ez nuen zutaz horrelakorik espero, uste nuen ongi konpontzen ginela.

—Baina ezin duzu ama horrela bakarrik utzi! Gajoa orain negarrez egongo da eta errudun sentituko da.

—Bai; baina orain ezingo nioke aurpegira begiratu, egin diodan guztiagatik. Ezingo nuke berriz ikusi. Badakit ez dela gauza handirik berak egin didana, baina zuk badakizu segituan haserretzen naizela arrazoirik gabe.

—Ongi, ba! Hemen geratu zaitez, baina egun osoa bakarrik egon beharko duzu.

—Eskerrik asko, Mark! Banekien ulertuko ninduzula!

Orduan, Mark bere gelara joan eta amari deitu zion ezkutuan:

—Kaixo, ama.

—Mark! Nolatan zu?

—Ama, orain ez daukat denborarik pozetarako. Jon hemen dago.

—Ba, esaiozu jartzeko! —oso haserre zegoen—. Ederrak ikusiko ditu mutiko horrek.

—Ez! Utzi iezaiozu hemen geratzen. Haserrealdia pasa arte. Orduan ikusiko du zer gogorra den ama gabe bizitzea.

—Ongi, ba! Hemen zeu zara psikologoa.

—Bai; baina, itzultzen denean, ez egin errietarik, bestela berriro haserretuko baita. Eta, jakina, ez esan deitu dizudala.

—Ongi, ba! Agur!

—Bai. Agur, ama!

Hurrengo egunetan nire anaiak kasu gutxi egiten zidan eta etxean aspertu egiten nintzen. Huts bat ere sentitzen nuen, baina kasurik ez nion egiten. Nire arreba bai, bera faltan botatzen nuen, bere haserreak eta bere arrazoirik gabeko salaketak. Oso ongi pasatzen nuen berarekin. Ez ginen ongi konpontzen, baina bera zen nire lagunik onena. Momentu hartan malko bat erori zitzaidan eta nire anaia sartu zen neskala-gunarekin. Ni negarrez nengoen eta anaia ni pikatzen hasi zen:

—Hunkitu egin zaigu gizontxoa! Gaixoa! Bere neskalguna, pixka bat haserre, ni kontsolatzen hasi zen, baina Markek ezezkoa egin zion.

—Isildu zaitetz! Ez naiz ari negarrez, zerbait sartu zait begian eta ezin dut atera. Eta horrek malkoa erortzea eragin dit —esan nion, pikatuta.

—Lasai, anaiatxo, ez da ezer gertatzen. Normala da ama eta arreba faltan bilatzea. Tira, ez zaitetz izan burugogorra eta deitu amari eta eskatu barkamena. Oso kezkatu egongo da.

—Ez! Nik ez dut nahi amarekin hitz egin! Nik Maria bilatzen dut faltan. Ez ama!

—Ongi, lasaitu zaitetz eta, ondoren, hitz egingo dugu.

—Ez dut nahi inorekin hitz egin! Ongi nago! Baina, ahalko banu, Tuentian sartu nire lagunekin hitz egiteko.

—Ez! Ikusi egingo dute ongi zaudela eta non zauden galdezka arituko zaizkizu segundo bakoitzean —anaiak nire ilusio guztiak zapuzten zizkidan.

—Arrazoi duzu. Orduan, nola beteko dut nire hutsunea?

—Amari deitzea izango zen pasu bikaina.

—Ba, utz iezadazu zure mugikorra, nirea bateriarik gabe dago-eta.

—Har ezazu, baina ez iezaiozu esan Zarautzera joan zinela, bestela oso haserre jarriko da-eta.

Ez nuen amari deitzeko gogorik, baina ezin nuen une bat gehiago egon bere ahot-sa entzun gabe. Beraz, bere mugikorreko zenbakia markatu eta deitzen hasi nintzen. Amak hartu zuenean, eskegi egin nion, beldurraren beldurrez. Markek esan zidan berak hitz egingo zuela, ni ez kezkatzeko ezertaz.

—Kaixo, ama! Zer moduz zabiltzate? Jon hemen da! —nik ez nuen entzuten amak esaten zuena; baina, belarria gerturatzean, ama negarrez entzun nuen eta, orduan, Marki mugikorra kendu eta amarekin hitz egiten hasi nintzen

—Ama! Barka iezadazu! Oso haserre jarri nintzen eta ez nekien zer egin. Baina badakit oker egin nuela, ez nuela hau egin behar, eta faltan bilatzen zaitut, bai zu eta baita Maria. Itzultzeko gogo handia dut!

—Lasai, Jon! Nik ere faltan bilatzen zaitut! Baina gauza bat.

—Bai, bota.

—Zeuk badakizu zer gertatu den nire diru-zorroan?

—Ez, ze ba?

—Dirua falta zitzaidan.

—Ba, nik ez dakit horretaz ezer.

—Beno, agur, Jon. Esan Marki jartzeko.

—Agur, ama! Mark! Amak zurekin nahi du hitz egin!

—Kaixo, ama —esan zuen Markek

—Kaixo, Mark. Nola itzuliko da Jon?

—Lasai, neuk Oriora joateko gogoia nuen eta, beraz, neuk eramango dut. Itxaron, ama, Jonek beste norbaitekin hitz egin nahi duela esan dit lehen.

—Mariarekin, ez?

—Bai, asko bota du faltan. Eta oso gaizki pasatu du gizajoak.

Markek niri deitu zidan eta amak Mariari.

—Kaixo, Jon! —esan zuen Mariak pozez—. Faltan bilatzen zaitut. Noiz itzuliko zara?

—Ez dakit, baina laster, hori seguruki edukiko. Itzultzean biok izozki bat jatera joango

gara. Zin egiten dizut.

—Ongi! Baina izozki gozo-gozoa, e!

—Ongi, ba! Agur, Maria!

—Agur, Jon.

Orduan, Markek hurrengo egunerako txartelak zituela esan zidan.

Nik, bitartean, bere etxe inguruan paseoa eman nahi nuen; baina, behera jaitsi bezain laster, beldur pixka bat sartu zitzaidan. Blokeari buelta bat eman eta berriz etxera itzuli nintzen. Telebista piztu eta notiziak ikusten hasi nintzen. Bertan gertuko herri batean etxe batean sartu eta bonba bat jarri zutela zioten eta ETA izan zela uste zuten. Ni haserretu egin nintzen eta telebista itzali nuen. Zerbait txarra pasatzen zen bakoitzean ETAk izan behar zuen.

Mark lanetik itzuli zen eta ohean sartu zen, nekaturik baitzegoen. Bere neskalaguna ere berarekin sartu zen eta nik, egitekorik ez nuenez, ordenagailua piztu eta Tuentian sartu nintzen. Txat-a deskonektatu egin nuen nire lagunekin ez hitz egiteko eta profilean iruzkin mordoa nuela konturatu nintzen. Beraz, profilean sartu eta pentsatzen nuenaren aurkakoa zen dena: bat ere ez zen polita. Ez zegoen "faltan bilatzen zaitugu", edota "azkar itzuli" bezalakorik; denak aurkakoak ziran: "ez zaituz itzuli!" "Zeu gabe hobe!" edo "zer nahi duzu demostratu horrekin? Ume ziztrina zarela, besterik ez!"

Orduan, izugarri haserretu nintzen. Lagunik gabe geratu nintzen! Ez nuen gogorik lagunekin itzultzeko, baina nire arrebari zin egin nion... Egia esan, ez nuen gogorik itzultzeko, baina ezin nuen hemen geratu; beraz, hurrengo egunean trena hartu eta Oriora itzuli nintzen.

Ama ikustean, izugarritzko poza hartu nuen eta bera besarkatzera joan nintzen. Haren atzean Maria zegoen; orduan, ama askatu eta Mariarengana joan nintzen. Momentu horiek oso onak izan ziren. Etxera joan ginen eta afaldu egin genuen. Astelehena zenez, hurrengo egunean ikastola nuen, baina itzultzeko beldurra nuen. Ama konbentzitu nahi nuen ni ikastolara ez joateko Mark bere hotelera joan eta gero; baina, Mark atetik irteterakoan, amak esan zion Mariari bere gelara joateko eta atea ixteko. Esan zion bertan zegoen bitartean musika entzuteko kaskoak jartzeko eta musika ahal zuen altuen jartzeko. Orduan, Maria joan zenean, amak niri begiratu eta garasika hasi zitzaidan; berehala, ate atzetik beste norbait sartu zen: aita zen! Baina aitaren begiradan ez zegoen sorpresarik. Niregana hurbildu eta azkarra izango zela zin egin zidan. Orduan, mahaiian buruz behera etzateko eta kamiseta kentzeko agindu zidan, gerrikoak kentzen zuen bitartean. Etzan nintzenean, gerrikoarekin jotzen hasi zitzaidan bizkarrean. Gerrikoak nire bizkarraren kontra talka egiten zuenean, izugarritzko garra-sia irteten zitzaidan. Bukatzean, aitak esan zidan hau norbaiti esaten banion, oraindik gehiago joko zidala, eta denbora luzeagoan.

—Hau da hau ume bihurria —esan zuen aitak ironiarekin—. Bihar ikastolara joan behar duzu, ezta?

—Ba... bai —esan nion, ahotsa dardarka nuela.

—Ba, mugi, ohera!

Hurrengo egunean, ikastolako atea zeharkatzean, nire lagun batekin topo egin nuen eta mespretxuz begiratu zidan. Klasean sartzean, batzuk iseka egiten hasi zitzaizkidan eta beste batzuk aise begiratu bakarrik egiten zidaten, baina inork ez zidan ongietoririk egin.


—Joan hadi infernura, horrela hobeto biziko baikaituk! —esan zidan Igorrek. Horrek izugarrizko mina egin zidan; Igor nire lehengo lagunik onena baitzen.

Kasurik egin gabe, nire mahaian eseri eta pixka bat urrutiratu nintzen. Irakaslea sartzean, izugarrizko errieta egin zidan. Nik, orduan, nire gauzak hartu eta kalera joan nintzen. Bertan erabaki zail bat hartu nuen eta Orioko zubirantz joan nintzen, pita eskuan nuela. Baina, lehenik, nire bidaia idaztea otu zitzaidan, ondoren Mariari emateko. Beraz, leku ezkutu batean nire bidaia idazten hasi nintzen eta, gero, nire arreba maitearen gelako leihotik sartu nintzen eta bere burko azpian ipini nuen. Eta, izenburu bezala, azalean, AGUR ARREBATXO idatzi nion.

Orioko autopistako zubian nengoela, pitaren mutur bat zubian lotu nuen eta bestea nire lepoan. Azken malko bat isuri zitzaidan eta, hura masailean behera ari zen bitartean, salto egin nuen.

Nahiz eta ni joan, nire arreba maitea,
beti egongo naiz zurekin.
Ez ahaztu nitaz eta beti lagunduko zaitut.
Laguntza behar duzunean, egin kasu bihotzari
ni bertan egongo bainaiz.

Gorka Segurola



Maiden Manzanitas

Maddi eta Karen

"Atera orri zuri bat, ostegunero bezala diktaketa tokatzen da eta" adierazi digu euskarako irakasleak eta, ohikoa denez, gelako alferrak protestaka hasi dira harroekin batera. Baina Maitek, kasurik egin gabe, diktaketari hasiera eman dio izenburuarekin. Egoera hau asterokoa zen eta nazkatuta nengoen, beste askok bezalaxe. Diktaketan zehar isiltasuna da nabari eta niri zalantza bat jarri zait: "jakin mina" jarraian ala aparte idazten da? Beharrezkoa dut jakitea, hamarra atera behar dudalako nire 8.74ko bataz bestetik ez jaisteko. Beraz, Karlosi galdetzea erabaki dut, nire ondoan dagoelako. Baina bat-batean tutorea sartu da gelan eta nirekin hitz egin behar duela esan dit. Tutorea sartu denetik susmoa dut nire amari zerbait gertatu zaiola; izan ere, goizean bizkarretik operatu behar zuten... Maitek mugitzeko esan dit, diktaketarekin jarraitu behar dutela eta kanpora joateko esanez. Irten orduko, aita ikusi dut negarrez eta besarkatu egin nau, ama hil dela esanez. Ebakuntzan gauzak konplikatu egin direla jakinarazi digu medikuak.

Orain dela 20 urte hil zitzaigun ama; baina ez zait nire bizitzan ahaztuko jakinarazi zidateneko momentua: shock egoeran geratu nintzen, horrelako kontuak gure familian gertatzea pelikulakoa zela zirudielako. Ez zara ohartzen bizitza erreala horrelakoa dela, zuri gertatu arte. Gainera, etxeko anai-arreba zaharrena nintzenez eta naizenez, familiari laguntzea tokatu zitzaidan filmetan bezala. 16 urte nituen nik; Iñakik, 12 eta Jonek, Iñaki baino bi gutxiago.

Denboraldi batean amaz hitz egin gabe egon ginen, jatorduetan ez zegoen hitzik, bakoitza bere pentsamenduetan murgildurik... izebak psikologoarengana bidali gintuen arte. Hark esan zidan egoerari aurre egitea zela onena, errealitatea onartuz. Aholku hari jarraituz, pentsatzen jarri nintzen, nire buruari esanez: "Leire, aurrera begiratu bizitzan" eta jabetu nintzen amaz ez hitz egiteak ez zuela ezer aldatuko eta ezta lagundu ere.

Anaiak gaueroko musua eta esnatzean ama ez aurkitzea bilatzen zuten faltan gehien; baina nik, dudarik gabe, iluntzean anaiak oheratu ondoren berarekin hitz egiten pasatzen nituen momentuak. Aita oso goibel egon zen, indarrik gabe, burua beste nonbait zuen uneoro; amaren heriotzaz geroztik, aita ezberdina genuela zirudien. Ez zen lehengoa; lehen, irribarrea ahoan zuela, beti umore onez zebilen txantxak eginez eta etxeko "umorista" zela esaten zion amak. Baina nik, bizitzari aurre egin behar zaiola pentsatuz, aurre egin nion pixkanaka-pixkanaka. Eta amaren gauzak (liburuak, gogoetak, noizean behin idatzitako olerkiak, erosketen zerrendak, medikuak bidalitako botiken agiriak, argazkiak...) txukuntzen eta kuxkuxean nenbilela, bere gogoetak irakurtzen hasi nintzen. Ni jaio baino lehenago, bost bat urte lehenengo, hilda jaio zen

alabari buruzkoak ziren. Ez zuen guztiz gainditua gertaera krudel hura, bere alaba bizirik zegoela pentsatzen zuen. Askotan hitz egin dugu familia artean kontu honi buruz, ahizpa zaharragoko bat izango genuela, Maddi izenekoa. Geroztik, izen hori entzutean, ama triste sentitzen zela azaltzen zigun aitak. Lewis, Eduard eta Pello Artola aditzean bezalaxe, beren bizitzan pasatako momentu txarretan agertutako pertsonak, hain zuzen ere. Eta Jonek, anai gazteenak, Maddi ez bazen hil, bera ez zela existituko esaten zuen. Gu barrez hasten ginen eta, beti bezala, aitak gaiaz aldatzen zuen, amari umore pixka bat jarritz.

Baina, orain, nire etxean bizi naiz Iñigo senarrarekin eta Nerearekin. Nerea, alaba, eskolan da, senarra enkargu bat egiten ari den bitartean. Nik periodikoa dut eskutan eta, azkenaldian, bada izen bat darabilkidana buruan: Lewis Taylor; egunkarian, telebistan, irratian... entzuten dena, komunikabideek adierazi dutenez, ume trafikatzailerak dela susmatzen dute. Orduan, aitaren etxera joatea erabaki dut, bazkaldu bitartean Lewisi buruz hitz egiteko. Gainera, ama hil denetik, denbora gehiago du aitak, nahiz eta arratsaldero bere lagunekin musean jokatzera joan eta larunbat nahiz igande iluntzeetan poteoan ibili, ez da berdina etxean norekin egon izatea edo ostiralero andreak jatetxe batera gonbidatzea. Beraz, txaketa hartu eta aitaren etxera noa, bidean, arratsaldean Nereari ezusteko bat emango diodala pentsatuz, azkenaldian ez baikara ia ikusi ere egiten ze aldizkarian lana gainezka eduki dugu Japoniako lurrikarak direla medio. Lehenik, Txiki Parkera eramango dut eta, gero, berari hainbeste gustatzen zaion marrubizko izozkia jatera.

Aitak ez zuela bisitarik espero igarri diot aurpegian; baina, halere, asko poztu da ni ikustean. Eta aspaldian ez dugula elkarrekin bazkaldu eta jatetxe batera gonbidatu nau.

Eserita gaudela, Lewis Taylor aipatu diot eta segituan esan dit: "Leire, Taylor hori Maddiren erditzean egon zen medikua da; bai, bai, dudarik gabe" eta orduantxe gogoratu ditut amaren hitzak: mediku horrek zerbait ezkututzen zuela pentsatzen zuen, susmoa zuen, baina ez zuen ezer egin. Eta, azkenean, susmo hori buruan zuela hil zen.

Gaurko arratsaldea ahaztezina izan da. Nereak errepikatuko zuela eta guzti esan dit. Berak ere amatxorekin egoteko beharra zuen, duela bi hilabetez geroztik ez bainuen arratsalde bat alabarekin igaro. Lana gainezka izan dut azken bi hilabeteetan Japoniako lurrikarak zirela eta; horregatik, astebeteko oporrak merezi ditudala esan dit zuzendariak. Ondo etorriko zaizkidala alabari denbora gehiago eskaintzeko eta gizonarekin egoteko.

Eguna ahaztezina izan da, baina neketsua. Gaueko bederatzietarako biak ohera joan gara eta, aspaldiko partez, ni izan naiz senarrari eguna nola joan den kontatu diona; izan ere, azkenaldian bera izan da Nerea ikastolatik jaso, arratsaldea pasa eta oheratu duena. Baina gaur ez. Askotan esaten dit Iñigok berak gustura egingo lukeela etxetik kanpo lan, ondo etorriko litzaiokeela etxetik irtetea, baina ni seguru nago hobe dela etxean

bertan lan egitea, aldizkarira joan gabe egotea, bertako lankide gogaikarriak jasan behar izan gabe: "Leire, artikulua hau... eta beste hau...". Denbora gehiago edukiko nuke, goizean Nerea eskolara eraman eta, bitartean, erreportajeak idatzi; bazkalostean alaba ikastolatik jaso eta berarekin pasa arratsaldea...

Telebistako albisteak esan duenez, Lewis Taylor ume trafikatzailea izan daiteke. Leirek bere anaiekin hitz egitea erabaki du, hortaz, Kale Nagusiko Kutixi kafetegian geratu dira arratsaldeko bostetan.

Anaiek heldu bezain pronto esan diote Leireri ea zer dela eta hainbesteko presa. Arreba zuzena izan da: Maddi gogorazi die, amaren susmoen berri eman die eta adierazi die nola amak mediku izan zuen orain periodikoan ume trafikatzaile gisa aurkezten duten pertsona hori bera. Anaiek amaren susmoak gezurrak zirela esaten diote, ez zuelako Maddiren heriotza onartu nahi, eta medikuarena, berriz... bizitza kasualitatez beteta dagoela. Azkenean, Leirek bi anaiak konbentzitu eta Maddiren gorpua lurpetik ateratzeko baimena eskatzea erabaki dute gehiegi pentsatu gabe, nahiz eta bi anaiek arreba burutik joanda dagoela pentsatu. Ez dakite honen atzean edozerekin aurki daitezkeela: ahizpa bizirik, hilda, bahituta...

Maddiren hilobiaren parean dago familia, hiru anai-arrebak eta baita aita ere, ez baitie bera gabe joaten utzi. Aurrean zer egongo den jakin gabe, denak elkar besarkatu eta prest daudela pentsatzen dute aurrean dutenari aurre egiteko. Gizon bizardun bat Maddiren kutxa irekitzen hasi da gogor tiraz, 40 urtez egon baita itxita. Anaiek lagundu behar izan diote kutxa irekitzen, gizonak ez baitu indar nahikorik. Gogor tira ondoren, kutxa huts baten aurrean aurkitu dira zer esan jakin gabe. Familiako bat nonahi dagoela pentsatzen du Leirek; baina aitak, itxaropen gehiegi ikusita, hilda egon daitekeela esan dio. Familia, alde batetik, triste sentitzen da, amaren susmoei kasu ez izanagatik; baina itxaropentsu daude, arreba, ahizpa edo alaba bat dutelako ezagutzeko.

Komisarian itxaropenak daudela; baina zaila izan daitekeela esan diete. Martxan dagoela Maddiren bilaketa; baina ez dakitela ze egoeratan egongo den. Ertzainak adierazi die Lewis Taylorren etxea miatuko dutela pistaren bat aurkitzeko.

—Apendizitis izateko sintoma guztiak dituzu.

—Apendizitis?

—Bai, baina lasai egon, ebakuntza erraza da. Astero izaten ditugu horrelako kasuak eta %99ko probabilitatea dago ondo irteteko.

—Baina ezin du izan; ni ondo nago, tripako min pixka bat besterik ez dut.

Oso urduri dago Karen, inoiz ez baita operatu ezta ospitale batean gau bakar bat pasa ere. Gainera, bihar oporretara joateko asmoa genuen, Tunisiara, izan ere, nire urtebetet-

zea zela-eta, Karen Tunisiarako bi hegaldi eta aste beterako bost izarreko hotelean ostatu hartuta zuen. Baina ezingo dugu joan, dagoeneko arratsaldeko zortziak baitira eta ez dute operatu oraindik. Honez gain, beste bigarren mailako kezka dugu: hegaldia eta hotelarena hain zuzen ere. Izan ere, ez dakigu atzeratzeko aukerarik izango dugun, hotel horretara jende asko joaten baita.

Laster Karen gelara ekarriko dutela esan dit erizainak, anesthesiaren eragina guztiz pasatakoan, eta bi gau ospitalean igaro beharko dituela, operazioari aurre egin dion ziurtatzeko. Ea noizko indarberrituko den galdetu diot, bidaiaria zenbat atzeratu behar dugun jakiteko eta, txantxetan, astebete barru maratoian parte hartzeko moduan egongo dela jakinarazi dit. Beraz, erreserba astebete atzeratu nahi nukeela esan diot agentziakoari, eta hark Tunisiako hotelarekin kontsultatu eta deituko didala esan dit. Azkenean, bidaiaren atzerapenagatik inauteriak kanpoan igaroko ditugu, mozorroa aukeratzea kostatu zitzaiguna eta gero.

Dagoeneko gaueko hamarrak dira eta Karen gelan dago, nolako orbaina geratuko zaion pentsatzen. Gelan sartu naizenean, sustoa hartu du, bere pentsamendutan murgildurik baitzegoen.

—Zer moduz zaude? Ebakuntzaz jabetu al zara? —galdetu diot, horren beldur baitzegoen.

—Minbera sumatzen dut eta infekzioak saihesteko gau osoan ezin dudala ezertxo ere jan edo edan esan dit medikuak. Baina, tira, nahiko ongi. Gainera, ebakuntzan zehar ez dut ezertxo ere sumatu.

Medikuak alta eman dio eta prest dago etxera joateko. Baina, hori bai, sabel aldean min pixka bat sentitu orduko, medikuarengana jotzeko agindu dio, ebakuntza egin berritan ahul dagoenez, gorputzak edozein infekzio hartzeko besoak zabalik baititu.

Irrikaz nago gure ohean deskantsatzeko, ospitaleko butaka zaharrea ezin baita lorik egin. Bi egunen buruan Tunisian egongo gara, eta gogo handiz gabiltza maletak prestatzen: galtza motzak eta niki tirantedunak egunez janzteko, praka luzeak eta jertse lodiak gauerako, eguneko bi momentu hauen arteko tenperatura aldeak nahiko handiak baitira.

Arazo meteorologikoak direla eta, hegazkina bi ordu inguru atzeratu da eta, azkenean, ordu dezente igaro dira etxetik atera eta Tunisiako aireportura iritsi garenerako. Beraz, bidaiaria nahiko neketsua izan da; baina, azkenean, iritsi gara. Maletak hotelean utzi eta herrian bertan, Kelibian, kalez kale ibili gara, herria ezagutzeko. Niri asko gustatu zait, baina Karenek "kutre" samarra dela esan du. Berehala, hotelera joatea erabaki dugu, eguna luzea izan delako, eta gainontzeko egunetan indarberriturik egoteko, egunak ondo aprobeztatzeko.

Goizean goiz jaiki gara, 7:30eko gosarira iristeko. Gosaldu bezain laster, autobusa hartu eta San Vicente de Paul katedrala ikusi dugu eta, jarraian, Tunis hiria bisitatu dugu. Herrialde interesantea iruditu arren, ez nintzateke bertan biziko, Donostian ditugun baldintzak askoz aurreratuagoak daude eta. Gainera, bertan musulmanak dira gehienak eta ez nintzateke txerrikirik jan gabe biziko. Baina, hori bai, oso ondo tratatu gaituzte.

Bosgarren egunerako Tunisia erdia ikusita dugu, egunak guztiz aprobe txatu baititugu irteera gidatuekin. Hara eta hona ibili gara autobusean; baina, zoritxarrez, etxera iristeko egunak geroz eta gerturago daude. Gaur goizean hamaikak arte lo egitea erabaki dugu, bart hoteleko dantzatokian ordu txikitan ibili baikin. Bazkalostean, gameluan ibiliko gara eta Camp Mars, Tunisia inguruan dagoen mendia, bisitatuko dugu. Hona helduta ikusi beharreko tokia dela esan zigun hegazkinean topatu genuen bikote batek; urtero etortzen direla eta merezi duela.

Goizean, Karen tripako minez jaiki da; baina, beherakoa zuenez, horren eragina dela pentsatu dugu. Baina orain, gamelu gaineko mugimenduarekin, apendizearen aldean mina duela konturatu da eta medikuarengana joan beharko dugula iruditzen zait, izan ere, mina sentitu orduko ospitalera joateko agindu baitzigun. Horregatik, gameluen jabeari Karenen egoeraren berri eman diogu eta herrira bueltatzea erabaki du, gurekin dauden gazte batzuen kexei kasurik egin gabe. Buruari bira batzuk eman ondoren, Donostiara bueltatzea erabaki dugu, ostatu dugun herritik gertu ez dagoelako lizentziadun medikurik, hauek Libian dagoen gerran izandako zaurituak sendatzen ari baitira buru-belarri.

Ertzainek diotenez, Lewisen etxean ez dute ezer susmagarririk aurkitu oraingoan, baina bila jarraituko dute. Bere sakelakoa miatzen ari zirela, zenbaki arraro batzuekin kontaktuan egon dela konturatu eta berehala informatu gaituzte. Ez dira Berlingo zenbakiak ezta Alemaniakoak ere; apika, Europatik kanpokoak. Hari honi jarraituko diote eta Lewisekin hitz egingo dute, ea umeen trafikoaren parte dela aitortzen duen eta Maddi non eta nola dagoen esaten digun. Mundua gaizkilez josia dago, zintzoen artean ere mordoxka baitaude. Edonon. Nonahi. Eta gure familia gaizkilez inguratuta dagoela uste dut.

Gure familiak momentu askotan ez du zoriona alde izan, momentu zail, gogor eta neketsu askori egin behar izan diegu aurre: Maddiren "jaiotza", amaren heriotza, aitaren enpresaren porrota, anaien arteko iskanbilak... ama hil zenetik zorte txarra segika dugula dirudi.

Karenek peritonitisa izan du azkenean, lehen ebakuntzan apendizeti zati bat kendu gabe utzi eta infekzioa zabaldu zitzaiolako. Kirurgialariak barkamena eskatu dio Kareni,

sufritu behar izan dituenengatik eta bidaiia oztopatu izanagatik, kariñoa hartu baitio. Oso emakume gogorra eta indartsua dela esaten omen dio, Karenek jakinarazi didanez, inoiz ezagutu duen emakumerik ausartena dela. Momentu batean, medikuak Karen gustuko duela pentsatu dut, baina korridorean bi erizainei entzun diet gaur gauean seigarren urteurrena dutela eta ospatzeko afari erromantiko bat dutela Xalegi jatetxean. Horregatik egongo da doktorea hain umore onez.

Erizainak esan digu oraingo ebakuntzaz errekuperatzeko denbora gehiago beharko duela eta gaua ZIUn (zainketa intentsiboetako unitatean) pasa beharko duela. Baina astebete barru etxean egongo dela seguruenik. Eta oraingoan ez duela ospitalera bueltatu beharko ziurtatu didate, apendizera guztiz kendu baitiote, eta ez duela inongo arriskurik. Oraingo kezka bakarra Karenek atsedean hartu eta indartzea da. Ez bidaiia atzeratzea, ez maletak egitea, ez ezer... osasuna zaintzea baizik. Onena gaua etxean pasatzea dudala adierazi dit medikuak, ezin baitut Karen bihar arte ikusi. Edozein arazo gertatuz gero, nire mugikorreko zenbakia utzi dut, andregaiaren egoeraren berri izateko.


Atzo erizainak esan zidan Karen gelara pasa orduko deituko zidatela. Dagoeneko goizeko hamarrak dira eta ez didate hots egin. Beraz, ospitalera joatea erabaki dut zuzenean. Karenen gelara sartzean, bi poliziekin topatu naiz. Horietako batek Karenen benetako familia bere bila dabilela esan dit eta, ziurtatzeko, DNAren frogak egin behar dituela. Zur eta lur geratu naiz: Karen jaioz gero, bere benetako gurasoak ez dira ezertaz kezkatu eta orain, 40 urte igaro ondoren, bere bila hasi dira. Karen adoptatu zuen bikotea oso jatorra da, ez dute arazorik eduki eta, normala den bezala, bere benetako guraso izango balira hartu ditu Karenek. Berak lehendik esan didanez, ez du bera mundura ekarri zuten pertsonekin egon nahi eta ni berarekin guztiz ados nago, ez baitzait normala iruditzen jaioberri bat kale gorrian uztea.

Karen isilik da eta poliziek DNAko frogak lehenbailen egin behar dizkietela adierazi diote. Familia berekoak badira, Maddi dela bere benetako izena esan diote.

DNA frogako emaitzek familia berekoak direla baieztatu du. Beraz, Karen eta Maddi pertsona bera dira. Alemanian irrikaz daude Maddi ezagutzeko. Baina Euskal Herrian, berriz, ez diete egoerari aurre egiten lagundu. Batetik, peritonitisa pasa berri duenez, oso ahul dago. Bestetik, bere benetako familia aurkitu duela eta, orain arteko gurasoek ez dute ulertzen egoera. Alaba kendu nahi dietela uste dute. Eta Maddi, bitartean, zer egin ez dakiela dabil. Adoptatu zuten gurasoei beti esan izan die ez dituela bere benetako gurasoak ezagutu nahi; baina, bestalde, beti izan du bere odol berekoak aurkitzeko gogo. Hala ere, beldur da ingurukoei min egiteko, bere bizitzako zati handi bat baitira. Azken finean, bere 40 urtetako gurasoak izan dira. Baina, azkenean, Maddik Alemaniako txartela erostea erabaki du, baina txartel bakarria erosi du, bakarrik egin beharreko gauza dela sentitzen duelako.

Poliziak, bitartean, kasua argitzen saiatzen dabilta eta, oraingoz dakitenez, bahiketan Lewis Taylor medikua eta Maddi adoptatu aurretik egon zen umezurtz-etxeko mojak daude sartuta. Eta, oker ez badaude, Faber-Castell umezurtz-etxe hartatik pasa diren ume guztiak bahituak ziren. Beraz, ume haien gurasoak aurkitzeko programa prestatu dute. Berlineko apaiza lur jota dago, moja haiei sekulako mirespena baitzien.


Mireia Zinkunegi



Ander Dorronsoro

Sentipenitsuak

Laguntasunaren mugak zeharkatzean...
egun oso bat pertsona hartaz oroitu gabe pasa ezin duzunean...
bera ikustean, bihotzak bularretik salto egiten dizunean...
ezpainetatik "maite zaitut" entzun, eta belaunek dardara egiten
dizutenean...
hitz egin, eskutik heldu, edota berarekin oroitze hutsarekin irri
txiki bat aurpegian margotzean...
maitasun kantu guztiekin bere aurpegia burura etortzean...
aspertuta bazaude, mezu zaharrak irakurtzen jarri eta, hala ere,
tximeletak sabelean dantzatzean...
bikotea aldatuaz ere, bihotzean bere tokitxoa daukanean...
berarekin haserretuz gero, gela bakartian ezkutatu eta musika
triste entzunez negar egiten duzunean...
Orduan, bai, orduan maitasuna da.
Sekula ez amaitzea desio duzunean...
zure buruari berak gauza bera sentituko ote duen galdetzen
dionzunean...
"agur" esatea zaila egiten denean...
zure arropan bere usaina sumatu eta behin eta berriz usaintzen
duzunean...
berari begietara begira orduak pasako zenituzkeenean...
oharkabea, egun osoan zehar bere berririk ba ote den begira
ibiltzean...
goizean jaiki eta burura etortzen zaizun lehen pertsona bera
denean...
orri zurietan etengabe bere izena idaztean...
begiak itxi eta berarekin bizitako momentuekin amestean...
arrazoirik gabe beti umoretsu gaudenean...
pertsona berezi horrekin geratu eta isilpean mantendu ezin
duzunean...
mutil edo neska hau aldamenen izate hutsak asetzen gaitue-
nean...
olerki hau irakurri ahala identifikatua sentitu zarenean...
Orduan, benetako maitasun itsua da.
Eider Arruti
Udazkena eta negua
Etorri zen udazkena, eta hil negua,
loratu egin zen udaberria eta argitu uda,



Irati Eizagirre

eta berriz ere udazkena...
Esnatu zen egun hura,
zure gutunak gezurrez bete ziren,
zure maitasun hitzak isildu,
zure begiak itsutu.
Esnatu zen egun hura,
baita minez hil ere, zu, ispilu aurrean,
gure maitasuna amaitzeko
hitzak bilatzen zenbiltzala ikustean.

Ander Beldarrain

Begirada haien atzean

"Esaten ez diren gauzak garrantzitsuenak izaten direlako"

"Lehengusinak esan ohi dit, lehenengo maitasuna ez dela inoiz ahazten eta, zoritxarrez edo —agian— zorionez, arrazoi guztia du. Egia esan, maitasuna hitza, jada desagertua dago nire hiztegitik. Dagoeneko urte bi pasatu dira, baina honi buruz hitz egiteko garaia ez zait iritsi oraindik. Denok "lehenengoa" hitzez definitzen duguna bakarria dela bakarrik esan dezaket bi urteren ondoren. Bai, bakarria, parekorik ez duena; zuk nahi ez baduzu ere, beti barruan gordeta geratzen dena, ahaztezina. Horrexegatik, bakarria delako bakarrik, nahiz eta memento txar asko izan ziren garai haietan, memento onak gogoratzen ditut oraindik. Nik uste, batzuetan nahiago izango nukeela oroitzapen txarretaz gehiago gogoratu eta, egia esan, oraindik ez dakit zergatik gogoratzen naizen memento onetaz gehiago, baina bada garaia, aitortu beharra daukat hala dela, eta nahiz eta ez ditudan gehiago gogoratu nahi, benetan diotsut ezin dudala ahaztu oroitzapen guzti haietaz, bi urte pasa badira ere. Eta ni, horregatik jabetzen naiz orain lehengusinarekin hitz sakon haiez, lehen ezin nuena ulertu, orain ulertzen baitut.

Ez dizut egia ez den gezurrik esan nahi, baina tipo hori jada ez da nire laguna. Tipo hori, bai, entzun duzuna! Ez dauka beste hitz hoberik. Eduki zuen arren, berak ere badaki noiz galdu zuen. Badaki niretzat izena galdu zuela, eta ez duela berriro lortuko."

Herriko kale ilunenetik zihoan eta lepoa gorantz begira zuen, bertako leihoak estaltzeko erabiltzen zituzten egurrezko ate haiei begira. Beti esaten zuen atentzioa deitzen ziotela, gorriak zirelako agian, edo beti itxita egoten zirelako bestela. Beti pentsatzen zuen hain kale iluneko etxeetan nolatan izaten zituzten beti leihoak itxita eta gortinak beheraino jaitsita. Ez zuen ulertzen. Baina arreta handiz gorantz begira zegoela, konturatzeko, tipo hura parean zuen. Izu aurpegiaz begiratu zion une batez, baina hark, bere harroputz aurpegia jarriz, aurrera begira jarraitu zuen: neska ikusi zuen

arren, konturatu ez balitz bezala egin zuen. Baina berak ederki zekien tipo hark ikusi zuela, begiratzeko kapazitaterik ez zuelako egin zuela ez-ikusiarrena, eta horrekin, tipo horri tipo izena ongi jarri ziola konturatu zen, beste izenik ez zuela pentsatzen baitzuen.

"Aspaldian ez zitzaidan horrelako kasualitaterik gertatu, konturatzerako, parean neukan. Eta ez neukan beste inor inguruan, disimuluan tipo hari begiratu orde, beste edozeini begiratzeko. Gainera, hartu dudan sustoarekin, nahigabe begiratu diot. Horrelakoetan, esfortzu txiki bat egin ondoren, berari ez begiraten saiitzen bainaiz. Ez zait batere gustatzen berak egiten duena egitea, ikusi ez banu bezala, ez baitut bera bezalakoa izan nahi. Baina nahiago dut une batez bera bezalakoa izaten saiatu eta ezer gertatuko ez balitz bezala pasatu bere aurretik, bere harrotasuna baino handiago izango banu bezala."

Aitak, alabak eskatuta kontatu zienez, ama lagun batekin hirian egon zela esan zion. Seguruenik, bertako dendetan zeuden erakusleihoetako arropa originalei begira zegoela zioen berak, ongi ezagutzen baitzuen emaztea. Lagun harekin zerbait jan, bere betiko azukrerik gabeko kafesne handia hartu eta autora sartu eta hamabost minutu beranduago, hona heldu baino kilometro erdi bat lehenago, amildegi batetik erori zela esan zion. Hogeita hamar metroko erorketa izan zela eta orduko ehun kilometro baino abiadura handiagoa zeramala. Berehala hil zela.

Asko sentitu zuen, eta anaiari baino gehiago igartzen zitzaion berari, berarentzat ama bere lagun mina izango balitz bezala baitzen, tipo hark tipo izateari utzi zionetik, asko lagundu zion amak. Josebak botata uzteak, bere bihotz ona ez zela aldatuko sinestarazi baitzion.

"Ez nintzen behin ere lurrera erori, baina ama hilerrian lurperatu baino lehen, apaizak egin zuen otoitzean, negar malko bi erori zitzaizkidan matrailetatik behera. Ez nuen han, denen aurrean, horrela agertu nahi, baina sabelaren barruan nuen presioaren eztanda entzuten nuenez, malkoak erortzen utzi behar izan nituen. Une hartan, amak, malko haiek baino askoz gehiago merezi zituela konturatu nintzen."

Ama gabe zaila egiten zitzaion bizitzea. Etxera sartu orduko, hutsune handia sumatzen zuen bertan. Orain, inor ez baitzen etxean egoten. Eta norbait egonez gero, aita. Baina beti erdi mozkortuta ibiltzen zenez, etxean egonez gero, kasurik ere ez zion egiten Maitek. Berak lehen zeukana ez zeukala sumatzen zuen. Faltan botatzen zuen etxean sartzen zen bakoitzean amak ematen zion musua. Edota zer moduzko eguna izan zuen galdetzen zion uea.

Bat-batean, bere mugikorraren soinu hotsa entzuten zuela konturatu zen. Sukaldeko hormaren beste aldetik zetorren. Maite, ziztu bizian, ondoko gelara sartu zen, norbait

deika ari zitzaion egiaztatzerara.

—Kaixo, Maite! Zer moduz? —entzun zuen telefonoaren beste aldean.

—Arratsaldeon, neska! Aspaldiko! Beno, zu zer moduz zabilta?

—Ederki, ederki! Aspaldian ez genuela hitz egin eta zure berri jakin nahi nuen.

—Hemen nabil. Orain etxean lan gehiago dago niretzat eta ez daukat aspertzeko denborarik ere! —esaten dio lehengusinari.

—Bai, pentsatu dut, bai. Laguntzerik nahi al duzu? —esan zion, laguntzera joateko asmotan. Baina Maitek, ez zuen lehengusina molestatu nahi eta erantzun zion:

—Lasai, ez arduratu nitaz. Moldatzen naiz.

—Beno, nahi duzun bezala. Dena ongi orduan? —galdetu zion. Zer gertatzen zitzaion jakin nahi baitzuen.

—Ongi esan beharko...

—Zer? Joseba?

—Ez, ez —dio Maitek. Baina hark ez dio ezer sinisten, eta barrez erantzuten dio:

—Bai... "Ez, ez" diozu baina, ongi ezagutzen zaitut! Kontatuko didazu!

—Benetan, ez da Joseba, niretzat tipo hori ez da existitzen —esaten dio, bere arazoak ezkutatu nahiko balizkio bezala.

—Noiz daukazu libre? —galdetzen dio. Izan ere, konturatu egin da Maiteri ez zaio-la Josebaren gaia gustatu.

—Ba, nahi duzunean! Hona etortzen bazara, hemen ibiliko naiz seguruenik!

—Ongi da, egunen batean azalduko naiz zure etxera orduan —erantzuten dio irribarrea ahoan duelarik.

Hortxe moztu zen bi mugikorren arteko lotura eta, dagoeneko, Maite pentsatzen hasi zen zein istorio kontatu behar zion lehengusinari. Berak ez baitzuen Josebaz hitz egin nahi, ez baitzuen gehiago aipatu ere egin nahi. Ahaztu nahi zuen, nahiz eta ez zuen onartu nahi oraindik ez zuela ahaztu. Horregatik, mugikorra hartu, eta pixkanaka bere etxeko korridorea zeharkatu zuen, egiten zuen urrats bakoitzaren taupada entzunez. Segituan iritsi zen bere logelako ohearen aurrera. Eskuan zuen telefonoa hartu, ohearen ondoko apalean utzi, eta hankak ohera sartu orduko itxi zituen begiak. Ez zituen ireki ere egin gau guztian. Hurrengo eguneko txirrina entzun arte. Soinu zaratatsu hura entzun zuen une berean, hankak izara artetik atera eta sarrerako atea irekitzera joan zen.

Soineko koloretsu eta oinetako altuak zituen jantzita. Aurpegia margotuta eta ilea bilduta zuen. Lehengusina pinpirina zuen. Berari ere asko gustatzen zitzaion ongi prestatzea bere burua, baina beti pentsatzen zuen lehengusinare hanka azpiraino ere ez zela iristen moda kontuetan. Ez zuen hura baino ederrago egotea behin ere lortzen. Hura beti baitzegoen eder.

Atea ireki eta segituan sartu zen hura, konfiantza guztiarekin. Harreman oso ona zuten bien artean, eta ama ez zeukanetik, asko lagundu zion. Hari ez zitzaion ahaztu zertara etorri zen, eta denborarik galdu baino lehen hasi zitzaion Josebaz galdezka. Baina Maite orduantxe esnatu zenez, oraindik ez zuen motorra piztuta. Horregatik, bere oinetako takoidun haiekin batera, sukaldeko armairu batetik bestera hasi zen katilu eta koilararen bila. Kan, kan, kan, entzuten zen Nuriak ematen zuen pauso bakoitzean. Bere indar guztiarekin egingo balu bezala. Hari berdin zitzaion nor zeukan inguruan eta zer esaten zioten. Ahoan zuen irribarre hura mantentzean bakarrik pentsatzen zuen. Bitartean Maite, erdi lotan, Nuriari begira zegoen. Izugarritzko inbidia ematen zion hura horrela ikusteak. Hura bezalakoa izan nahiko lukeela pentsatzen zuen.

Maiteri gosaria prestatu behar ziola sartu zitzaion buruan lehengusinari eta, prestatu bitartean, logelara bidali zuen: dutxa bat hartu eta arropa jantzi behar zuela esan zion. Behin eta berriz aipatzen zuen azkar mugitzeko, hitz egin behar zutela eta.

"Nuria. Ez da aldatuko lehengusina hau. Josebarengatik ez nengoela ongi konturatu zenean, hitz egin beharra geneukala sartu zitzaion buruan. Baina hainbeste denboraren ondoren, jada ahaztuta izango zuela pentsatzen nuen. Baina, bai zera! Atean sartu bezain laster hasi da gai horrekin bueltaka. Hasieran ez nion kasurik egiten, baina badakit ongi ezagutzen nauela, eta azkenean dena esan beharko diodala. Baina ez dut derrigortuta egiten. Kosta egiten zait aitortzea; baina, azken finean, berarekin hitz egitea niretzat hobe dela konturatzen naiz. Hobeto sentitzen bainaiz harekin hitz egin eta gero."

Sukaldera heldu zen Maite, eta berehala hasi zitzaion galderekin. Ez zion esan nahi Josebarengatik horrela zegoenik, baina bazekien lehengusinak bazekiela zer edo zer bazegoela.

—Ezetz! Nik aspaldian ahaztu nuen Joseba! Ez bazara konturatu ere, jada bi urte igaro dira moztu genuenetik! Eta zuk ere badakizu zergatik bukatu zen: beragatik! ez esan oraindik beraz oroitzen naizenik! Nola gogoratuko naiz ba tipo hortaz, egin zidana egin eta gero!

—Maite, ez didazu onartu nahi, baina badakit horregatik dela! Ongi ezagutzen zaitut, eta ezin didazu hori ezkutatu! Baina nazkatu naiz! Ez dut nahi tipo horren erruz zu eta ni haserretzerik! Gauzak argitu bakarrik nahi ditut!

Nuriak aulkia atzera bota zuen bere indar guztiaz. Maiterekin haserretzen ari zen. Maitek, Nuriak ezerren errurik izan gabe, errua izango balu bezala tratatzen baitzuen.

Jada ez zekien zer esan. Onena alde egitea zela pentsatu zuen.

Berak bazekien oraindik Josebaz oroitzen jarraitzen zuela. Baina ez zuen berarekin eztabaidan hasteko gogorik. Azken batean, bere ahizpa izango balitz bezala zen, eta bazekien gaur edo bihar ohartuko zela. Eta arrazoa zuelako, barkamena eskatzera joango zitzaiola. Denbora behar zuen, denborak ekarriko zuen guztiaren erantzuna. Berari itxarotea besterik ez zitzaion geratzen.

"Ez dut ongi egin. Bera, bere borondate on guztiarekin, ni lasaitzera etorri da. Zer gertatzen zitzaidan bakarrik jakin nahi zuen, lagundu nahi zidan. Eta nik, berriz, ez dizkiot nire bihotz barruko atea ireki. Ate horiek irekitzeko laguntzarik beharko ez banu bezala erantzun diot, eta berak, laguntza behar nuela bazekielako, ate horiek irekitzen besterik ez da saiatu. Eta nik, berriz, dena niretzat gorde dut eta, horrekin, gauzak okertu besterik ez ditudala egin konturatu naiz. Barkamena eskatu beharra daukat, ezin dut horrela jarraitu. Nahiko nahaste baditut nik, harreman gehien dudana pertsonarekin horrela egoteko. Bera baita, ama joan zaidanetik honetan laguntzeko daukadan pertsona bakarra."

Eskerrak, azkenean, Maitek lehengusinarekin hitz egin zuen. Askoz ere hobeto sentitzen zen. Arazo bat gutxiago zuen, gorputzari pisua kenduko balio bezala sentitzen zen.

Etxera iritsi eta giltzak bere tokian utzi ondoren, logelara joan zen. Kaxoi guztiak irekita zeuden. Baina, nor ibili da hemen? galdetzen zion bere buruari. Paper guztiak lurrean, arropa kanpoan botata, aulkia lurrean. Hasieran, aita izango ote zen ari zen pentsatzen. Ia inoiz ikusten ez zuenez, mozkortuta zegoela hasi ote zen bere armairuan zerbait aurkitzen. Baina, ezinezkoa zela esaten zion bere garunari. Aita lanean zela eta, beste norbait izan behar zuela zioen. Baina zein etorri ote zen bere logelara? Eta zergatik ez zituen beste gelak horrela utziko? Zer aurkitu nahi ote zuen? Pentsatzen zuen behin eta berriz.

Nuriari deitu zion mugikorretik. Dena azaldu behar zion. Hura izan zen guztiaren erantzuna eman ziona.

—Nor ote da?

—Nor izango da, ba!

—Zein dela ari zara pentsatzen?

—Joseba, neska, Joseba. Nor bestela?

—Bai, zera! Nola izango da, ba, Joseba?

Maitek ez zuen sinetsi nahi, baina nor bestela? Aurreko egun horietan deitzen ari zitzaion tipo madarikatu hura ere Joseba izango ote zen?

Ez zuen segundo erdi bat gehiago galdu. Unibertsitatera berarekin joaten zen neska bati dei egin zion. Josebarekin askotan hitz egiten zuen hark eta bere zenbakia ba ote zuen galdegin nahi zion. Baina ez zion telefonoa hartu.

—Kaka zaharra! —oihukatu zuen.

Mugikorra lurrera bota zuen bere amorrazio guztiaz, eta hainbat zatitan sakabanatuta geratu zen segundo gutxitan. Une batez, Joseba bere etxera sartu zela sinetsi zuen.

"Ez dut ulertzen. Joseba, nire Joseba hura, nire etxera sartu da? Nola alda daiteke pertsona bat hain epe motzean? Nirekin ez zen horrelakoa, ezberdina zen. Hura bakar-ra zen, edo hori uste nuen nik. Ez zuen orain duen harrotasun hori. Zintzoa zen."

Ez zuen gehiago idazteko gogorik. Haren izena egunerokoaren gainean islatzen zuen bakoitzean, begiak distiratsu jarri, eta malkoa erortzen zitzaion, parkean umeak txirristatik behera jaisten diren abiadura berean.

—Maite! Zer moduz asteburua?

—Asteburua? Ezin zaio asteburua hitza eman ere egin.

—Gaizki, ala?

—Motza izan dela esan nahi nuen —ezkutatu zuen Maitek. Nahiago zuen inork ezer ez jakitea. Nuriarekin hitz egin behar zuen aurretik.

—Bart deitu egin al zenidan? —esan zion lagunak.

—Bai, egia da! Josebaren mugikorreko zenbakia behar nuen eta ea bazeneukan galdetu behar nizun.

Nuriak arrazoi, azkenean. Joseba ibili zen Maiteri deika azken egunetan. Josebaren zenbakia zen, Maiteri mugikorrean jartzen ziona. Baina disimulatu beharra zeukan, ez zuen nahi Josebak deitu ziolako horrela jarri. Ezer pasako ez balitz bezala jarraitu zuen egun guztian zehar; baina, astea okerrago hasteko, eskuinekoa erabili beharrean, ezkerreko hankarekin jaiki zela konturatu zen.

Gelaren kanpoan jende ugari zegoen. Denak irakaslea etorri zain zeuden. Bakarrik zegoen, baina ez zegoen lasai, Joseba gertuegi zeukan. Bere ondorioak ateratzen ari zen, hormaren gainean etzanda zegoelarik eta, nahigabe, bere eskuineko belarritik, ondorioak nahastu zizkion zerbait entzun zuen:

—Lasai, gizona, hik egindakoa edonori gerta zekiokek, eta ez ezak ahaztu: arrainak

itsasoan baino ugariagoak dituk emakumeak.

Egun neketsuaren ondoren, azkenean, unibertsitateko txirrinak jo zuen. Ziztu bizian gelatik atera, eta etxera iritsi bezain laster, egunerokoaren kaxoia ireki zuen. Begiak zabaldu eta berriro begiratu zuen, kaxoiaren alde ilunenean ere. Baina ez zegoen egunerokoa. Arraroa zen. Egunerokoa erabiltzen zuen, gainera, eta han idazten zuen dena. Burura etortzen zitzaion edozein gauza. Askotan erabiltzen zuen, baina beti ongi gordeta uzten zuen. Kaxoi txiki bat zuen harentzat bakarrik, eta bazekien oraingoan ere han utzita alde egin zuela etxetik. Ez baitzen hori hor barruan zegoela ziurtatu gabe etxetik irteten. Oso garrantzitsua zen berarentzat, bere bizitzaren alde guztiak deskribatuta baitzeuzkan liburuxka potolo hartan.

Garrantzi handirik eman gabe. Lehenengo aurkitu zuen paper zatia hartu, eta idazten hasi zen, logelako ohearen gainean botata.

"Egun arraroa izan da. Goizean, unibertsitateko korridorean entzun dudana, modu berezian iritsi da nire belarrietara. Memento horretan, ni pentsatzen ari nintzenarekin zerikusia zuela nabaritu dut. Oraindik ez dut ongi ulertzen zergatik, baina elkarrizketa horretan zerikusi handia neukala iruditu zait. Bai, ongi entzun dut. Ez dakit Josebari ari zitzaion, baina buruak tipo hari hizketan ari zela esaten dit. Baina ez dut horrela pentsatu nahi. Ez dut nahi pentsatu, "hik egindakoa edonori gerta zekioket" esaldiak, nirekin zerikusia duenik. Niri egin zidanagatik ari zirenik.

Bai, zera! Nola naiz hain txoriburua? Orain gogoratzen dut. Josebaren neska berriaz hitz egiten ariko ziren. Asteburuan batekin ibili dela entzun baitut. Beno, egia esan, ez dakit. Hobe izango da honi buelta gehiago ez ematea."

Nuriaren etxera joan zen. Aspaldian ez zion bisitarik egin, eta berarekin hitz egiteko premia zuen. Haren etxera sartu aurretik, oinetakoak etxearen sarreran utzi zituen. Nuriaren maniarik handiena zen. Familiakoren bat edo konfiantzazko pertsonaren bat izanez gero, ez ziren Nuriaren etxean oinetakoekin ibiltzen. Etxeko sarreran zituen etxerako zapatilak hartu, eta haiekin ibiltzen ziren.

Segituan nabarmendu zion berdin jarraitzen nuela. Aurreko egunean bezala, zer pentsatu ere ez zekiela. Haserririk ez zuela nahi, baina kontatzea hobe izango zela esaten zion. Maitek bazekien dena Nuriari esanez gero, hobeto sentituko zela eta, horregatik, esfortzu txiki bat egin, eta dena kontatzen hasi zitzaion. Nuriak, belarriak erne jarritz, dena ongi entzun zion. Lagundu nahi zion.

—Duela bi urte, dena ezberdina zen, Nuria. Hasieran, biotako inork ez zuen espero elkarrekin egongo ginela. Baina nik uste oso polita zela hitz egiten genuen bakoitzean inguruan sortzen zen argi hura. Inori ez genion ezer esaten, baina elkar noiz ikusi zain egoten ginen. Hitz egiteko edozein huskeria erabiltzen genuen. Beti elkarri hitz bat esateko zer egin pentsatzen ibiltzen ginen. Mementoko bizipen eta zirraren interpre-

tazioaren zain egoten ginen.

Ahoa ireki zuen Nuriak, bere hortz zuriak erakutsiz. Ezin zion barreari eutsi. Uneoro bere irribarre ederra martxan zeukan. "Off" botoia ezabatuta izango balu bezala.

—Benetan, niretzat, ez zegoen sentipen hobeagorik. Zerbait gertatzen zen nire barnean, zerbait mugitu egiten zen. Oraindik ez dut ulertzen zer, baina badakit sabelaren barruan zerbaitek ezin zuela geldirik egon. Hasiera batean, ia garrantzirik ez nion ematen. Baina, inguruko pertsonak hortaz konturatzen hasi zirenean, beldurtu egin ginela konturatu nintzen. Orduan izan zen elkarrekin geunden une haietan pizten zen argi hura ikusi nuen mementoa.

Berak nik baino beldur handiagoa zuen. Ez zituen jendearen hitzak entzun nahi, eta nik uste, horregatik alde egin zuela nire ingurutik. Gainera, uda iristear zegoen, eta beldur nintzen. Ez nuen argi hura galdu nahi. Argia ikusten jarraitzeko gogoia neukan.

—Baina, berak ez zuen argi hura ikusi nahi, ezta?

—Ez dakit; nik uste, ikusi nahi zuela. Baina beldur zen. Eta nik pentsatuta neukan bezalaxe, uda heldu eta argia egun batetik bestera desagertuko balitz bezala gertatu zen. Hondartzan ikusi ginen eguna iritsi arte. Nik ezer esan gabe hitz egiten hasi zitzaidan. Ezer gertatuko ez balitz bezala. Argiak hor jarraituko balu bezala.

Noski, nik jarraitu egin nion argi horri. Ez nion aukera horri alde egiten utziko. Ez horixe! Orduan izan zen guztiaren hasiera. Biok bagenekien lagunak baino gehiago ginela, baina ez genuen ezer esaten.

—Lagunak baino gehiago. Nik uste, hori dela guztiaren erantzuna.

Maitek ez zion kasu handirik egin Nuriak esan zuenari. Berak, behin hasi zela, dena ongi kontatu nahi zion lehengusinari. Inoiz inori kontatu ez zion bezalaxe. Barrena hustu nahi zuen. Urte biren ondoren, barruan gordeta zuena askatzeko gaitasuna zuela erakutsi nahi zion. Gaitasun hori lortu zuela ohartarazi, besterik ez.

—Hainbeste hitz egiteak jada ez zuela balio konturatu ginen. Hitzak musu bihurtzen hasi zirela esan dezaket. Bai, hori da, konturatzerako, elkarrekin geundenean sortzen zen argi hura distiratsuago bihurtu zen. Horrela jarraitu zuen argi distiratsu hark, pare bat urtez, indartsu. Baina duela bi urte, bat-batean, hitz egiteari utzi genion. Beno, hitz egiteari utzi nion.

—Egun batetik bestera?

—Bai. Egia esan, ez da erraza ulertzea. Baina, egun batetik bestera, aurpegira ere ez begiratzea erabaki nuen. Agian, ez nuen ongi jokatu. Berarekin hitz egiten saiatu behar nuen, agian. Baina une hartan, hitz bat gehiago ez esatea erabaki nuen. Hitz egiteko gaitasunik gabe utzi zidan.

—Baina, nola? Ez dut ulertzen.

—Esan dizut. Zaila da ulertzea. Baina, inoiz pentsatuko ez nukeen...

—Ez egin negar, maitea, ez du merezi.

Nuriari ulertzea kostatzen zitzaion bezalaxe, Maiteri zaila egiten zitzaion momentu hura kontaktzen zuen bitartean negar malkoei heltzea. Oraindik, Josebak egin zion min hark, bihotzean zartadak eman, eta negar egitera bultzatzen zuen. Maitek, indar guztiaz, gogor, malko haiek barruan geratzeko saiakera eginda ere, negar malkoak erortzen zitzaizkion masailetan behera.

Nuriak ongi ezagutzen zuen Maite. Bazekien lehengusina nola tratatu. Lasaitzen ahalegindu zen behin eta berriz, ez zuen etsi hura lasaitu arte. Ez zuen estutu nahi; baina, ez bazuen behingoz barrua askatzen, lehen bezala jarraituko zuen. Eta Nuriak ez zuen gehiago horrela ikusi nahi.

—Duela bi urte gertatu zen, Maite. Ahaztu zazu tipo hori! —jada, "tipo" deitzearen arrazoia ulertzen hasi zen Nuria.

Barre txiki bat atera zitzaion Maiteri. Nuriak ulertzen ziola konturatzen hasi zen. Askotan galdetu izan zion "tipo" hitza zergatik erabili ohi zuen. Eta Maitek, egunen batean ohartuko zela erantzuten zion. Une hartan hasi zen, "tipo" hitzaren definizioa ulertzen.

—Nik hainbeste maite nuen. Ez nuen uste hori egiteko gaitasunik izango zuenik.

—Zer gertatu zen?

—Egia esan, nik ere ez dut ulertzen oraindik. Lagunek kontatu zidatena bakarrik dakit.

—Zer esan zizuten?

—Orain dela hiru edo lau urte, lokal bat hartu zuten Joseba eta bere lagunak. Ni, bere neska izanik, askotan han egoten nintzen berarekin. Eta bere lagunekin ere ongi moldatzen nintzen. Nire lagunak ziren.

—Noski. Hainbeste denbora elkarrekin pasa ondoren! —esan zion lehengusinak, esandakoa baieztatuz.

—Gau arrunt bat izango balitz bezala, parrandara atera omen ziren. Normalean, lokalera ez omen ziren azaltzen parrandako gauetan, baina egun hartan, jende gutxi zebilela eta, aspertu egin zirenez, lokalera joan omen ziren.

Lokaleko atea ireki, eta Joseba beste neska batekin ikusi zuten. Denak aho-zabalik geratu ziren. Nor eta Joseba beste neska batekin.

Nuriak ez zekien zer esan. Bera ere harrituta geratu zen. Tipo hori, tipo izanda ere,

ez zuen espero horrelakoa izango zenik. Eta gutxiago, horrelakorik egingo zionik.

—Bai, entzun duzuna, Nuria, entzun duzuna. Eta hori ez da okerrena.

Nuriak, jada ez zekien nora begiratu. Hori ez bazen okerrena, zer izango ote zen hurrengoa?

—Lagunek nik zerbait banekien galdetu zioten. Eta berak, harrotasun guztiaz, ezetz erantzun omen zuen.

—Ez! —esan zuen Josebak.

—Beraz, badakizu zer esan behar diozun, ezta? —zioten lagunek.

Ez zuen erantzuten, zer erantzun ez zekiela bezala geratu omen zen Joseba. Lagunek ziotenez, Josebak bazekien gaizki egiten ari zela, baina ez zuen aitortu nahi. Hori egitearekin gehiago izango balitz bezala iruditzen zitzaion. Oker zebilen, oso oker.

—Ez pentsa hau horrela geratuko denik! Maite zure neska da! Eta zuk ezer ez badiozu esaten, geuk esango diogu!

—Esaiozue, ba! —jarraitzen zuen bere harrotasuna erakutsiz.

Eta horrela gertatu zen. Josebak ez zion ezer esan. Baina bazekien lagunek dena kontatu ziotela Maiteri.

Nuria "off" botoia sakatuko baliote bezala geratu zen; ez zuen hitzik esateko.

—Hortxe bukatu zen, Nuria. Hortik aurrera, ez diot hitz bat ere esan. Baina berak niri ere ez. Eta uste dut azalpen gehiago duela berak niri emateko, nik berari baino.

—Bai, hori egia da. Baina hitz egin behar zenukete.

—Hitz egin? Zertarako? Berak bukatu zuen dena. Berarengatik ni ez naiz errudun sentituko. Nik ahal nuen guztia eman nion. Eta berak niri...

—Bai, arrazoi duzu. Errudun behintzat ez zaitez sentitu. Berak nahi zuelako egin zuen, inork ez zuen hori egitera bultzatu. Baina, nire ustez, oraindik argi horrek piztuta jarraitzen du. Bi urte hauetan, pauso batez bakarrik mugitu zarete. Maitasunaren alde ederrenetik, gorrotoaren alde ilunenera. Besterik ez.

Berriz ere, mugikorra mugitzen hasi zitzaion. Aste guztian deika ari zitzaion zenbaki bera. Baina orain bazekien nor zen.

—Joseba deika ari zait, Nuria —esan zion Maitek, urduri.

—Badakizu zer egin behar duzun, ezta? Telefonoa hartu eta erantzuiozu. Baina ez zaitez urduri jarri.

—Ez nago urduri.

—Nola ez zaudela urduri? Aurpegian nabaritzen zaizu, neska!

Azkenean, poltsikotik mugikorra atera eta, urduritasun handiz, Josebari telefonoa hartu zion. Hark ez zuen uste erantzunik jasoko zuenik, eta une batetik bestera urduritzen hasi zen. Hasieran, biei oso arraroa egin zitzairen elkarren ahotsa entzun eta elkarrekin hitz egiten ari zirela sinestea.

—Maite, Joseba naiz.

—Bai, badakit —esan zuen Maitek.

—Barkaidazu horrela deitzea, baina zurekin hitz egin behar dut.

—Nirekin hitz egin?

—Bai —erantzun zuen Josebak urduri.

—Garai ederrean hitz egin nahi duzu nirekin, motel!

Isiltasuna zen nagusi. Inoiz baino lehorrago ari ziren hitz egiten telefonoz.

Baina Josebak hitz egiteko beharra zuela esan zion, eta Maitek ez zion ezezkorik esan nahi. Egia esan, bazekiten elkarrekin hitz egiteko premia zutela. Bi urteren ondoren horrela bukatzeak bientzako gauza kaltegarriak besterik ez baitzituen ekarri.

—Barkamena eskatu nahi nizun, Maite. Agian, beranduegi izango da, baina horrela ez nago lasai.

Hori esatearekin batera, bere betiko motxilatik liburu bat ateratzen hasi zen Joseba. Une horretan Maitek begiak ongi zabaldu, eta bere egunerokoa zela ikusi zuen. Arnasa sakonki hartu eta izugarritzko begirada bota zion Maitek. Azkenean, Nuriak arrazoi, pentsatu zuen bere artean.

—Orain zatoz horrela niregana? —esan zion Maitek, gogorrarena egitearren.

—Badakit, jada berandu dela. Baina orain konturatzen naiz egin nuenaz, zure egunerokoa irakurri ondoren.

—Irakurri egin duzu, gainera? Ez daukazu lotsarik!

—Barkatu, Maite, nik ez nizun minik eman nahi. Ez dakit non izango ote nuen burua. Egun hartan burua alderantziz pentsatzen hasi zitzaidan.

—Burua alderantziz pentsatzen diozu, ez duzu erremediorik!

Gogorrarena egiten saiatzen ari zen, baina ezin zuen gehiago. Asko sufritu zuen azken urte hauetan, eta zergatik ez zion Josebari min hori erakutsiko? Bere tokian

jartzea komeni zitzaion, gaizki pasa zuela sinestea.

—Nik asko maite zintudan, ez nuen ezer ulertzen. Gainera, une hartan etorri eta barkamena eskatu bazenidan, edo hitz egitera etorri... Baina ez, bat-batean besteak baino gehiago zinela uste zenuen, ni baino gehiago sentitzen zinen. Oker zeunden, oso oker. Neska bati beste neska batekin joateagatik egin zenion minak ez zintuen handiago egiten. Ez horixe! Txikiago egiten zintuela esango nuke nik!

—Bai, badakit. Baina badakizu maite zintudala.

—Orduan zergatik ez zinen une hartan nigana etorri? Ezberdina izango zen memento hura aprobetxatu izan bazenu.

Josebak arrazoi guztia ematen zion Maiteri, berak ere oraindik ez zuen ulertzen gau hartan gertatu zitzaiona. Baina ez zeukan atzera bueltatzerik.

—Gertatu zena gertatu zen. Egin nuena egin nuen, baina bukatu da. Lehengoa naiz, maitea; zuk ezagutu zenuen Joseba hura.

—Nik ezagutu nuen mutil hura hain mutil ona zen...

Irribarre ttipi bat egin zuen Josebak. Maiterengana gerturatu, eta masailetan zituen malkoen gainetik pasa zituen hatzak. Bai, bere hatz potolo haiek.

Josebak ez zuen asko falta negar egiten hasteko. Azkenean, konturatu zen barkamena eskatzeko unea iritsi zela. Maite ondo gordeta zuela barruan, asko maite zuela.

Masailean musu bat eman zion, lasaitzearren. Eta, berriro ere, hitzak musu bihurtu ziren. Nuriak egunero Maiteri esaten zion bezala, lagunak baino zerbait gehiago ziren, maitasunaren alde ederrenetik gorrotoaren alde ilunenera urrats nimiño bat besterik ez zuten eman.


Beraz, maitasuna bukatu zen, edo lehenengo egunean zuten argi distiratsu horrek piztuta jarraitzen zuen? Agian, beranduegi zen. Edo, agian, barkamenak arazo guztiak konpondu eta aurrera jarraitu zuten. Auskalo! Nork ote daki? Baina argi zegoen: bi urteren ondoren, gauzak asko aldatu ziren.

"Azkenean, egunerokoa nire esku artean. Egia esan, nahiago dut egunerokoan idatzi. Lasaiago sentitzen naiz eta, gainera, hobeto ulertzen dut nire burua begiak orri zuri hauetan islatzen ditudanean. Amaz gogoratzen naiz, irekitzeko giltzatxoa hartu eta lehenengo arnasa liburuxkaren orri artean ematen dudanean. Berak oparitu zidan, hamabost urte bete nituen egunean. Nire bizitza liburu batean irudikatzea ongi etorriko zitzaidala esan zidan. Horrexegatik hasi nintzen ni, berak ere egiten baitzuen, ahal izan zuen bitartean. Orain arte zu aipatu ez izanak ez du esan nahi ahaztu zaitudanik, ama. Bihotz barnean zaitut oraindik, ongi gordeta. Biok izaten genituen eztabaida guzti haien artetik, zerbait ona ikasi dudala sentitzen dut une honetan. Beti nenbilen zutaz

gaizki esaka, baina orain gogoratzen naiz eztabaida guzti haietaz. Zuk esaten zenidan bezalaxe, eztabaidatzea beharrezkoa da bizitzan. Eztabaidarik ez balego, ez litzateke bizitza izango, eztabaidengatik konturatzen baikara zenbat maite dugun elkar. Ni konturatu naizen bezalaxe. Badakit zu hil aurretik konturatu behar nuela; baina, ulertuko duzun bezala, norbait falta dugunean konturatzen gara beharrezkoa zaigula."

Malkoak orri zurien gainean erortzen ziren bitartean, Maitek, ama hil zenean, istripuaren tokitik hartu zuen jertsearen zatia hartu zuen. Sudurrera gerturatu, eta haren usaina zuela nabaritu zuen. Usain hori hartu zuen unean, usaimenak ekar ditzakeen oroitzapen guztiez oroitu zen.

Ane Arriola



Ander Larrañaga

Tula hiria

1. atala: Tulako bizimodua

Orain dela urte asko, Europako Errenazimenduaren hasieran gutxi gorabehera, Tula izeneko hiri bat zegoen gaur egungo Peruko iparraldean. Hiria nahiko handia zen bere garairako, 100.000 biztanle zituen eta bere inguruetan 25.000 pertsona bizi ziren. Hiria eremu lau batean zegoen, kilometro batzuetara ez zegoen mendirik eta inguruan oihan zabal eta handi bat zegoen.

Tula ez zen hiri oso zaharra, ehun urte inguru izango zituen. Hiria tribu nomada batek sortu zuen eta hasieran nekazaritza herri txiki bat besterik ez zen. Baina, denborarekin, garatzen joan zen eta hiri komertzial garrantzitsua bihurtu zen. Horren ondorioz, biztanleria asko hazi zen, gehienbat inguruko tribu nomadetakoak hara joan zirelako. Tulak aberastasun handiak zituen: harribitxi, urre eta gema asko gordeta zeuden hiriaren barrualdean.

Hiriaren erdigunean piramide bat zegoen; piramidea nahiko handia zen, 50 metro inguruko altuera zuen eta 30 metroko zabalera. Piramidea eskailera handi batzuek osaturik zegoen eta goialdean aldare bat zegoen, sakrifizioak eta exekuzioak egiteko erabiltzen zena.

Piramidearen inguruan erregearen jauregia eta hiriko beste nobleen etxeak zeuden. Etxe horiek harriz eginak zeuden eta handiak ziren, gutxi gorabehera 50 gela zituen bakoitzak. Bertan, 20 pertsona bizi ahal izango ziren, nahiz eta etxe horietan gehienetan lau edo bost pertsona bizi izaten ziren. Normalean, hiriko beste edozein biztanlerentzat luxuzkoak ziren gauzak zeuzkaten, adibidez, egurrezko altzariak eta ur iturriak.

Piramide inguruan bizi zen jendea hiriko pertsona aberatsenak ziren, gehienbat nobleak, bizitza eroso eraman ohi zuten eta luxuz inguraturik bizi ziren. Hiriko kargu garrantzitsuenak zeuzkaten: apaizak, jeneralak... eta hirian influentzia politiko handia zuten.

Hala ere, hiri hartako beste etxeak egoera oso desberdinean zeuden. Gehienak egurrez eginak zeuden eta txikiak izaten ziren bi edo hiru gelek eta bertan pertsona bat edo bi bizitzeko kapazitatea zuten, nahiz eta normalean bertan 6tik 10 pertsonara bizi ziren.

Etxe haietan bizi zen jendea txiroa zen. Hango biztanleek lan asko egin behar izaten zuten, lan horrengatik oso diru gutxi irabaziz. Gehienetan, nobleen zerbitzari, merkatari, soldadu edo artisau bezalako lanak izaten zituzten. Hiriko biztanle gehienak luxurik gabe bizi ziren eta ez zuten inolako eragin politikorik.

Hiria harresi batez inguraturik zegoen. Harresiak hiri osoa inguratzen zuen, 800 metro eta kilometro baten arteko luzera zuen eta 5 metroko zabalera. Harresiaren zati handiena inguruko harrobietako harriz osaturik zegoen, harriz eginda ez zeuden gauza bakarrak harresiko dorreak eta ateak ziren, horiek egurrezkoak ziren. Harresiaren eginkizun nagusia hiria oihaneko piztiaz eta hiriaren etsaiak ziren tribu nomadez babestea zen.

Hiriaren inguruetan bizi ziren biztanleak harresien barrukoak baino okerrago bizi ziren. Hango jendearen eginkizuna hiria elikatzekeo janaria biltzea zen, gehienbat, nekazaritzan eta abeltzaintzan egiten zuten lan, baina hango biztanleria ez zen beren lurren jabe. Lur horietako gehienak Tulako nobleenak ziren eta nekazariak berentzako egin behar izaten zuten lan. Gehienek ez zuten askatasunik, biztanleriaren zati handia esklaboak ziren, inguruko tribu nomadekin izandako gerretan preso hartutako jendea. Gainera, teoriarik ez ziren nekazariak ez zeuden egoera hobetoagoan, ez ziren beren lurren jabeak eta nobleentzat egin behar izaten zuten lana, lan horregatik ia ezer jaso gabe.

Hiri kanpoko etxeak hiri osoko okerrenak ziren. Hango biztanleak txaboletan bizi ziren, txabola horiek oihaneko zuhaitzen egur mehez eginik zeuden, ez ziren oso etxe sendoak, oso erraz suntsitzen ziren, aire bolada batek ere ahal zituen etxe horiek txikitu. Txabolak oso txikiak ziren, pertsona bat edo birentzat zegoen lekua. Barruan ez zeukaten ezer ezta oherik ere eta txabola haietan bizi zirenek lurrean egin behar zuten lo.

Hiriko biztanleriaren zati handiena moai izeneko etniakoa zen. Etnia horrek berezko hizkuntza eta kultura zuen eta gaur egungo Peru iparraldean eta Ekuadorren hegoaldean bizi ziren. Moai etniakoak pertsona baxuak ziren, ile beltza zuten eta azal marroia. Aurpegi zabal eta borobila eduki ohi zuten eta begi txiki eta estuak, txinatarren antzekoak. Mau familia etnia horretakoa zen. Aitak ehizatik eta amak eta seme-alabek nekazaritza ateratzen zutenarekin bizi ziren. Zortzi seme-alaba zituzten eta amona eta aitona berekin bizi ziren. Mau eta bere familia hiriaren kanpoko etxola batean bizi ziren eta txiroak ziren.

Hiriaren erdian, piramidearen ondoan, erregearen jauregia altxatzen zen. Bertan Tiwaka erregea bizi zen. Tiwaka Tula hiriko bosgarren erregea eta hiriko fundatzailearen ondorengoa zen. Boterean berria zen eta tronuan bi urte besterik ez zaramatzen. Erregearen itxura moai etniakoek zuten itxuraren desberdina zen, Gizon altua zen, gutxi gorabehera 1.90 metro neurtzen zituen, ez zeukan ilerik, burusoila zen, nahiko gizona zegoen eta, bere etniakoak ez bezala, begi handiak eta zabalak zituen. Erregea beti jantzi deigarriekin jantzen zen eta beti eramaten zuen koroa buruan; harroputza zen eta pentsatzen zuen erregea izateagatik guztien gaitetik egon behar zuela. Gainera, ez zituen herriaren beharrak kontuan hartzen, ez zen gobernatzaile ona ezta gupidatsua ere. Diktadore anker baten moduan agintzen zuen eta nahi zuena egiten zuen horren ondorioak kontuan izan gabe.

2. atala: Gerra asmoak

Hiriak bere historian zehar ez zuen gatazka handirik eduki eta ondo konpondu zen inguruko herriekin. Baina, azken aldian, Tiwaka erregea ez zen konformatzen hiri baketsu bateko agintaria izaten. Bere ametsa inperio erraldoi bat sortzea eta haren enperadore bihurtzea zen. Horretarako, Tula hiriaren inguruan zeuden lurralde guztiak konkistatu nahi zituen.

Bere ametsa egia egiteko, Tiwakak armada berria sortu zuen. Tiwaka boterera iritsi baino lehen Tulak armada txiki bat besterik ez zuen eta gaizki armaturik zegoen. Armada hiriko boluntarioek osatzen zuten, ia entrenamendu militarrik ez zuen eta bere eginkizun bakarria hiria babestea zen.

Tiwaka pixkanaka armada aldatzen joan zen. Lehenik, handitzen saiatu zen; horretarako, hirian derrigorrezko zerbitzu militarra ezarri zuen. Horren ondorioz, hiriaren soldadu kopurua 10.000 soldaduetara igo zen urte betean. Gero, armada hori organizatu nahi izan zuen eta, horretarako, entrenamendu militarra eta diziplina gogorra ezarri zituen. Azkenik, armada horri armamentu berria eman nahi izan zion; handik aurrera soldadu bakoitza armarri eta lantza batez armaturik zegoen. Mau, beste batzuekin batera, armadan sartzera derrigortu zuten.


Bere ejertzittoa sortu eta gero, Tiwakak lurralde berriak konkistatu nahi izan zituen eta inperio bat sortzen hasi. Erregearen helburu nagusia kaia zuen hiri bat bereganatzea zen, horrela, itsas armada bat eduki eta itsasotik komertziatu ahal izateko.

Lehenengo konkistarako aukeratu zuen hiriak Tumbes izena zuen. Hiri hark Tularekin erlazio ona zuen eta bere aliatu zaharrenetako bat zen. Gainera, hiri hori erasotzeak Tula gerra handi batean sartu zezakeen, Tumbesek inguruan aliatu asko zeuzkalako eta beste lurraldeek ere ez luketelako ongi ikusiko Tulak gerra hori hasi izana. Hala ere, Tiwaka erregeak hiri hori inbaditu nahi zuen eta ez zuen atzera egiteko asmorik.

Tumbes kostaldeko hiria zen, hiri hark inguruko kairik garrantzitsuena zuen eta, horren ondorioz, aktibitate komertzial handia zuen eta nahiko hiri aberatsa zen. Bere garairako nahiko handia zen eta biztanle asko zituen, Tularen antzeko tamaina zuen; agian, Tula bera baino handiagoa ere izango zen. Baina, Tumbesek armada handia eta ongi prestatu zeukan, Tulako armada baino handiagoa eta hobe zen.

Tiwaka erregeak Tumbes hiria inbaditzeko erabakia hartu eta bi aste geroago, bere armada bildu zuen eta hiri hartara abiatu zen. Erregeak lehenbailehen iritsi nahi zuen bere helburura eta, horregatik, Tumbesera joateko bide motzenetik joatea erabaki zuen. Baina, bide hori ez zen batere erraza, bidean zehar jende oso gutxi ibiltzen zen eta bide horren zati handiena oihan batek estaltzen zuen.

Oihana handia eta iluna zen. Hango zuhaitzak oso altuak ziren eta oihanaren barrualdean ez zuten eguzkia ikusten ere uzten, beren arteko tartek oso estuak ziren eta jen-



Mariana Sayalero

deak zuhaitz tartetik pasatu ahal izateko zailtasun handiak izaten zituen. Oihan horretan pumak edo panterak bezalako piztia arriskutsu ugari bizi zen eta bertan sartzen zen guztiak horiekin topatzeko arrisku handia zuen. Tulakoek ezer gutxi zekiten oihan horretaz eta batzuk beldurra ere bazioten. Bertan sartu zirenean, Tulako soldaduek arazo handiak eduki zituzten aurrera egiteko. Bidea oso zaila zen eta soldadu gehienak nekaturik zeuden; soldadu asko bidean zehar galdu egin ziren.

Oihan horren barruan hiru egun pasa eta gero, Tumbes hirira iristeko bidearen erdia egin zuen Tiwaka erregearen armadak. Baina, gauzak asko okertu ziren berentzat: soldadu gehienak leher eginda zeuden eta ezin zuten aurrera jarraitu. Gero eta janari gutxiago zeukaten eta nahiko janaria ez zuten unera iritsi ziren, armadaren zati handi batek gosea zuen. Soldadu askok desertatu egin zuten eta oihanean ezkutatu ziren. Tiwakaren armada egoera horretan ez zen gai Tumbes hiria hartzeko. Hala ere, erregeak aurrera joan nahi zuen.

Laugarren egunean, gauzak ez ziren hobetu Tulako armadarentzat. Egun horren hasieratik beren inguruan soinu arraro batzuk entzuten ari ziren. Soinuak oihaneko leku desberdinetatik entzuten ziren, norbaiten garrasiak eta ahotsak ematen zuten. Egunean zehar, soinuak ozenagoak egin ziren, gerturatzen ari zen zerbaitek egiten zituela ematen zuen eta soldaduak kezkatzen hasiak zeuden. Baina, Tiwaka erregeak ez zien kasurik egin, pentsatu zuen soinu horiek oihaneko animalia batek egingo zituela.

Soinuak gero eta handiagoak egin ziren eta, momentu batean, milaka pertsona zuhaitzen artetik atera ziren. Pertsona horiek soldaduak zirela ematen zuen, denak berdin zihoazen jantzita, armadura arin bat zeukaten gorputzean, bakoitzak hiru luma zituen buruan eta armarri eta lantza luze batekin edo aizkora batekin armaturik zeuden. Armada hori, Tulako armada ez bezala, osasuntsu eta egoera onean zegoen.

Soldaduak alde guztietatik agertu ziren, horrela Tulako armada inguratuz eta erasoz. Hasieran, Tiwaka erregeak eta bere armadak ez zekiten zer gertatzen zen eta nahasturik zeuden. Denbora gutxian, beste armada Tumbeseko armada zela konturatu ziren eta tranpa batean erori zirela.

Bi armaden arteko borroka odoltsua izan zen, bataila horretan milaka gizon zeuden bata bestearen aurka borrokatzen. Borroka gorputz-gorputzekoa eta gertukoa izan zen. Soldaduek borrokan zehar gehien erabili zuten arma lantza izan zen. Bataila horretan bi aldeetako soldaduek gogor borrokatu zuten, baina, denbora gutxian argi geratu zen Tumbeseko armadak irabaziko zuela guda.

Bi ordu geroago, bi aldeetako soldaduek borrokan jarraitzen zuten, baina bi armadak oso egoera desberdinean zeuden. Tumbeseko soldaduak egoera onean zeuden, borrokan zehar baja gutxi izan zituzten, soldaduak segurtasunez ari ziren eta borrokan jarraitzeko modu onean zeuden. Tulako armada, berriz, egoera oso desberdinean zegoen, borrokan zehar soldaduen erdiak hil ziren eta geratzen ziren soldaduak gaizki pasatzen ari ziren, nekaturik zeuden gehienak, hiltzeko beldurrez paralizaturik zeuden eta ezin

zuten borrokan jarraitu.

Egoera horren aurrean, Tiwaka erregea etsita zegoen, nahasturik, ezin zuen sinetsi ikusten ari zena eta ez zekien zer egin. Ezin zuen irtenbiderik bilatu bere armada egoera hartatik ateratzeko, baina ez zuen ihes egin nahi, horrek Tumbes konkistatzeko ametsa bertan behera uztea suposatuko zuelako. Bere buruari birak eta birak eman eta gero bataila galdua zegoela konturatu zen, ezin zuela ezer egin eta bizirik jarraitzen zuten soldaduei erretiratzeko agindua eman zien.

Tiwaka erregeak eta Tulako armadak azkar ihes egitea lortu zuten; beren bizia salbatu nahian, soldadu gehienek geratzen zitzaizkien energia guztiak biltzea lortu zuten infernu hartatik korrika bizian ateratzeko. Ihesaldian zehar ere, Tulako armadak baja asko izan zituen. Soldadu askok ez zuten lortu Tumbeseko armadaren erasotik ihes egitea eta soldadu etsaiek erail edo preso egin zituzten.

Tiwaka erregeak eta bere armadak ordu askotan egin zuten korrika etsaiengandik ihes egiteko. Sei ordu geroago, Tiwaka erregea Tumbeseko armada atzean uztea lortu zutela eta jada inork ez ziela jarraitzen konturatu zen. Orduan, bere inguruan jarraitzen zuten soldaduak berriro bildu zituen eta Tulara itzultzen saiatu zen. Baina, soldaduak berriro biltzean, bere armadaren zatirik handiena oihan horren barruan hil zela eta espedizio horren hasieran zeuden soldadu kopuruaren laurdenak jarraitzen zuela bizirik ikusi zuen. Mau horien artean zegoen, gutxigatik lortu zuen bataila hartatik ihes egitea eta Tiwaka erregearen armadarekin biltzea erabaki zuen etxera itzuli ahal izateko.

Tulako ejertzitoak egun txarrak pasa zituen itzulerako bidaiari. Galduta zeuden, ihesean orientazioa galdu zuten eta ez zekiten non zeuden ezta nondik joan behar zuten beren hirira itzultzeko. Soldaduak, oihaneke espedizio negargarriaren eta batailako hondamendiaren ondoren, nekatuta zeuden, janari gutxi zeukaten eta oihanean aurkitzen zituzten frutez eta oihanean hilda aurkitzen zituzten animaliez elikatu behar zuten. Hori gutxi balitz, soldadu asko paranoiko zeuden, denbora guztian beldurrez zeuden, soinu bat entzutean Tumbeseko armada berriro agertu eta denak hilko zituzten beldurra jartzen zitzaien.

3. atala: Tulako bataila

Bi aste oihanean galduta pasa eta gero, Tiwaka erregeak eta bere soldaduak Tulara itzultzea lortu zuten. Baina, ez zen itzulera ona izan Tiwaka erregearentzat; izan zuen porrotagatik lotsaturik zegoen. Azken finean, bataila galdu eta gero itzuli behar izan zuten, ezin izan zutelako Tumbeseko aurka garaitu. Gainera, bazekien porrot horrek bere boterea eta herriak zion errespetua gutxituko zituela. Hala ere, Tiwaka erregeak arazo larriagoak zituen, Tumbes hiriarekin gerran jarraitzen zuen eta momentu horretan Tumbesekoek aukera on bat zuten bere hiria erasotzeko. Ez zekien Tula defenditzerik izango zuen, bere armada suntsituta geratu zela kontuan hartuta.

Handik egun batzuetara, Tiwaka erregearen beldurrak egia bihurtu ziren. Egun har-

tan, hiria inguratzen zuten oihanetatik milaka soldadu atera ziren, Tumbeseko armada zen, oihanean aurkitu zutena baino bi aldiz handiagoa zen, gutxi gorabehera 30.000 soldaduz osaturik. Soldaduak, bat-batean, oihaneko alde guztietatik atera ziren eta denbora gutxian Tula hiria guztiz inguratu eta hiria erasotzen hasi ziren.

Hiriaren ingurua inbaditzean, Tumbeseko armadak kanpamendu bat eraiki zuen, hiriaren aurka hobeto borrokatzeko. Tumbeseko soldaduek hiriaren inguruko etxola eta baserri guztiak hartu zituzten, horrela, Tula hiriari bere janari iturria kentzeko eta hiriko biztanleak gosearen ondorioz errenditzera behartzeko. Tumbeseko soldaduek han bizi zen jendea berentzat lan egitera behartu zuten, horrela, setioak irauten zuen denboran janaria errazago lortzeko. Biztanle haien artean Mau eta bere familia zeuden, toki hori hartu zutenean bere etxean zegoen eta Tumbeseko soldaduak bere etxea hartu zuten eta esklabo moduan lan egitera behartu zuten.

Hiru aste geroago, erasoak oraindik jarraitzen zuen. Tumbeseko armadak denbora horretan ezin izan zuen Tulan sartu eta egin zituzten saiakera guztiak gaizki bukatu ziren. Gainera, saiakera horietan gero eta soldadu gehiago hiltzen ari zitzaizkien, jada ejertzitoaren laurdena hilik zegoen eta soldaduak gero eta haserreago zeuden egoera horrekin.

Tulakoak, berriz, egoera hobean zeuden, Tumbeseko armadaren erasoak ondo jasaten ari ziren; batez ere, Tulako biztanleak borrokatzen ari zirelako. Gainera, hiriaren inguruko etxolen inbasioak ez zien gehiegi eragin, hiriaren barruan janaria zeukatelako bildurik eta hiriko biztanleak ez ziren gosea pasatzen ari. Hala ere, Tulako armada oso ahuldurik zegoen eta ezin zuen Tumbeseko kanpamentua erasotu. Dena den, Tulako soldaduak optimista ziren eta irabaztea lortuko zutela pentsatzen zuten.

Tumbeseko armadaren buruak nazkaturik zeuden eta lehenbailen hartu nahi zuten hiria, egoera horretatik ateratzeko. Horretarako, plan bat egin zuten, eraso sorpresa bat egitea eta eraso hartan hiriko alde guztiak gauez ezustean inguratzea zeuzkaten soldadu guztiekin. Baina, eraso hori arriskutsua zen, gaizki ateratzen bazitzairen, ziurrenik, soldadu asko hilko ziren eta ezingo zuten erasoarekin jarraitu, erretiratu egin beharko zuten. Hala ere, Tumbesekoek plan horrekin jarraitu nahi zuten. Armadaren buruak gero eta estuago zeuden eta edozer gauza egingo zuten egoera hartatik ateratzeko.

Tumbeseko armadaren buruek gau hartan bertan eraso zuten Tula hiria. Plan hori gau erdian puntuan hasi zen, ordu hartan Tumbeseko soldaduak hiriko alde guztietatik Tulako harresietara gerturatzen hasi ziren. Beren nagusien plana jarraituz, soldaduak oso poliki eta isilik gerturatu ziren harresietara, handik ordu betera Tulako harresien ondoan zeuden eta harresiak guztiz inguratzen zituzten. Mau eta bere ondoko txabolakoek eraso isila nabaritu zuten, baina ezer ez egitea erabaki zuten. Ordura arte, Tula barrukoek ez zuten ezertxo ere egin berengatik, etsaien eskutan utzi zituzten.

Harresia inguratu zutenean, Tumbeseko soldaduek harresiko egurrezko dorreei sua eman zieten, harresiko zaintzaileak sua itzaltzen entretenitzeko eta inguruan gertatzen

ari zenaz ez konturatzeko. Dorreei su eman eta gero, Tumbeseko soldaduak soka luze batzuen bidez hiriko harresiak eskalatzen hasi ziren, harresia oso azkar eskalatu zuten eta denbora gutxian gehienak harresiaren gainean zeuden. Harresiaren gainera igo zirenean, bertako zaintzaileak ezustean hartu zituzten. Borroka ez zen oso luzea izan, Tumbeseko soldaduek erraz irabazi zieten harresiko soldaduei, besteak baino askoz ere gehiago ziren eta Tulako soldaduak ustekabean harrapatzea lortu zuten.

Harresia hartu eta gero, Tumbeseko soldaduek berriro beren sokak hartu eta Tula hirira jaisten hasi ziren. Beren helburua Tula hiria okupatzea eta Tiwaka erregea hiltzea zen. Baina ez zen hain erraza izango; Tulako armada eta hiriko biztanleak erasoaz konturatu ziren eta etsaiari aurre egiteko prest zeuden. Tumbeseko armada hirian sartu zenean, hiriko biztanleak beren etxeetatik armaturik atera ziren beren aurka borrokatzeko, helburua inbaditzailea hiritik botatzea zen eta horretarako bizia emateko prest zeuden. Biztanle horiek arma gutxi zituzten, gehienek lantza edo kutxilo txiki bat besterik ez zeukaten.

Hiriko biztanle armatuak eta Tumbeseko armada elkartzean hasi zen bataila. Bataila hartan Tulako biztanleek gehienbat lantza txikiak erabili zituzten, Tumbeseko soldaduek, berriz, lantza luzeekin borrokatu zuten. Borroka odoltsua izan zen, bi aldeetakoek hirian kalez kale borrokatu zuten bata bestea hiltzen, bataila hartan segundoko jendea hiltzen ari zen; batez ere, Tulako biztanleak.

Ordu batzuk geroago, ia 10.000 pertsona hilak ziren eta borrokak jarraitzen zuen. Tumbeseko armadak hiriko erdigunera gerturatzea lortu zuen eta irabazi egingo zuela ematen zuen. Baina, orduan, Tulako jende gehiago ateratzen hasi zen beren etxeetatik Tumbeseko ejertzitoak galtzeko beldurra zeukan eta etsaiaren aurka borrokatzeko prest zegoen. Horrek borroka areagotu zuen. Borroka oraindik odoltsuago bihurtu zen eta oraindik jende gehiago hil zen. Baina, denborarekin, Tumbeseko armada terrenoa galtzen hasi zen, eta baja gehiago sufritu zituen. Nahiz eta Tulako biztanleek ez zeukat-en entrenamendu militarrik eta gaizki armaturik zeuden, borroka hartan Tulako biztanleak Tumbeseko ejertzitoko soldaduak baino hiru aldiz gehiago ziren. Horren ondorioz, bataila aurrera joan ahala, Tumbeseko soldaduei borrokan jarraitzea gero eta gehiago kostatzen zitzaien eta beren armada behera joaten ari zen.

Batailak gau osoan jarraitu zuen eta, denborarekin, gero eta argiago ikusten zen Tumbeseko armadak bataila galdua zuela. Egunsentia iristean, Tumbeseko soldaduek hirian okupatutako ia eremu guztia galdua zuten. Berriro harresiaren ondoan aurkitzen ziren eta beren armada egoera oso txarrean zegoen. Tumbeseko ejertzitoko soldaduen laurdena bakarrik geratzen zen bizirik eta geratzen ziren soldaduak leher eginda zeuden eta ezin zuten borrokan jarraitu. Gainera, bizirik geratzen ziren soldaduak denbora guztian atzera joaten ari ziren eta bata bestearen atzetik hiltzen ari ziren.

Hurrengo orduetan, Tumbeseko soldaduak bataila galdua zegoela konturatu ziren eta Tulatik ihes egin zuten. Bataila horren ondoren, Tumbeseko armadak ezin izan zuen erasoarekin jarraitu. Geratzen ziren soldaduak guztiz etsita zeuden eta han geratzen

baldin baziren, suntsitzeko arriskuan zeuden. Azkenean, Tumbeseko soldaduak beren kanpamendua utzi eta Tumbesera itzuli behar izan zuten.

Harrez gero, bi hiriak hain ahulduta geratu ziren ez batak eta ez besteak ezin izan zutela gerran jarraitu. Handik astebetera, bi hiriek bake tratatu bat sinatu zuten. Baina, tratatu horretan Tula izan zen galtzailea, tratatua sinatu aurretik eduki zuten bileran Tumbeseko ordezkariak gerraren erruduna Tiwaka erregea zela esan zuten eta gerran sufritutako galerengatik indemnizazioa jaso nahi zuten. Tulako ordezkariak onartu egin behar izan zuten. Horren ondorioz, Tulak diru kopuru handi bat eman behar izan zion Tumbesi eta lurralde batzuk ere eman behar izan zizkion.

Bestela ere, gerra hori garesti atera zitzaion Tulari. Hiriko biztanleriaren ia erdia hil zen gerra hartan eta Tulako zati handi bat Tulako batailan suntsiturik gelditu zen. Gainera, hiriak zentro komertzial bezala garrantzia galdu zuen, bertan gertatu zen txiki-izioaren ondorioz eta hiria denborarekin garrantzia galtzen joan zen, gero eta txiroagoa bihurtuz. Handik aurrera, Tiwaka erregeak ezin izan zuen konkistako beste gerra bat hasi eta bere inperioa sortzeko ametsa bertan behera utzi behar izan zuen.

4. atala: Lehortea

Handik hilabete batzuetara, Tula hiria arazo larriagoak edukitzen hasi zen. Udara iritsi zenean, tenperaturak asko igo ziren eta inguruko ibai guztiak lehortu ziren, hiriak bere historiako lehorterik okerrera sufritzen ari zen garai hartan. Lehortea hark iraun zuen denboran hiriko baserriarren uztak gutxitzen joan ziren eta handik aste batzuetara, ia ez zen uztarik hazten Tulako baserrietan.

Handik aurrera, hiriko janaria gutxitzen joan zen, eta denbora gutxian hiriko biztanle guztientzat nahiko janari ez egotera iritsi zen. Hiriko jende gehiena gosea sufritzen hasi zen; batez ere, hiriaren inguruetan bizi ziren nekazari txiroak, horiek ia janaririk gabe zeuden eta hiriaren inguruetan egoera oraindik okerragoa bihurtu zen, hango biztanleak gero eta ahulagoak zeuden, eta batzuk, gosearen ondorioz, gaixotzen hasi ziren.

Tiwaka erregearen eta beste nobleen egoera, berriz, oso desberdina zen, berek janaria soberan edukitzen jarraitzen zuten, beste hiriei janaria erosteko dirua zeukatelako. Baina nobleei ez zien kezkatzen hiriko beste biztanleen egoera eta ez zuten janari hori berekin konpartitzen eta ez zuten egiten ezer herriari laguntzeko.

Hurrengo asteetan, egoera oraindik gehiago okertu zen hiriaren kanpoaldeko etxoletan. Mau hiriaren kanpoko beste biztanle guztiak bezala, egoera horretaz nazkaturik zegoen. Mauen etxean ia ez zegoen janaririk bere familia guztia elikatu ahal izateko. Mauk eta bere familia guztiak gosea zuten eta, gainera, Mauen emaztea, gosearen ondorioz, gaixotu egin zen.

Garai hartan, jada, argi zegoen Mau eta bere bizilagunentzat Tiwaka erregeak ez zuela behatz bat ere mugituko berei laguntzeko eta hango biztanleak gero eta haser-

reago zeuden erregearekin eta bere jarrerarekin. Lehorteak iraun zuen denboran, Mau eta hiriaren kanpoko biztanleak askotan joan ziren Tiwaka erregearengana, pasatzen ari ziren egoera jakinaraztera eta laguntza eskatzera. Tiwaka erregeak berengana joan ziren aldi guztietan, argi utzi zuen beren problemak ez zitzaizkiola inporta eta ez ziela lagunduko.

Egun batean, Mau eta bere bizilagunek ezin izan zuten egoera hori gehiago jasan eta beren etxeak oihaneko piztiengandik defendatzeko erabiltzen zituzten armak —gehienbat, lantzak— hartu zituzten eta Tiwaka erregearen gaztelura joatea erabaki zuten laguntza exijitzera. Orduan, Mau eta bere taldea hirian armaturik sartu ziren eta nobleen auzora joan ziren.

Momentu hartan, Tiwaka erregea bere jauregian zegoen. Mau eta bere taldeak, hori jakin zutenean, hara joan ziren; baina jauregia babesten zuten soldaduek ez zieten utzi jauregira sartzen. Mauk eta bere taldeak, haserreturik, guardiei eraso zieten eta jauregian sartu ziren. Jauregian sartu eta gero, korrika bizian, Tiwaka erregearengana joan ziren. Jauregi guztian bilatu zuten, Mauk bere gelan aurkitu zuen arte.

Erregea aurkitu zutenean, Mauk eta bere taldea beregana joan ziren eta laguntza exijitu zioten, baina, Tiwaka erregeak berriz ere esan zien ez ziela inongo laguntzarik emango eta handik alde egiteko agindu zien. Mau, hori entzutean, guztiz haserretu zen, errege harengatik pasatako gudak eta goseak gogoratu zituen. "Ze tirano klase daukagu errege bezala" pentsatu zuen eta, orduan, lantza bat hartu eta Tiwaka erregea hil zuen.

Tiwaka erregea hil eta gero, Mau eta bere taldeak erregearen jauregiko luxuzko gauzak lapurtu zituzten. Jauregi hartan gauza baliotsuak zeuden: urrea, diamanteak eta esmeraldak bezalako harribitxiak. Mau eta bere lagunak ahal izan zuten guztia hartu zuten eta gero dena zaku batean sartu zuten eta jauregitik korrika atera ziren. Jauregitik irten zirenean, hiriko irteerarik gertuenera joan ziren lehenbailehen. Hiritik irten behar zuten inork Tiwaka erregearen heriotza jakin baino lehen. Jauregitik irten eta beren etxeetara itzuli ziren.

Mauk bazekien han geratzen baldin bazen, ziurrenik, arazoak edukiko zituela, hiriko soldaduak ez zirelako geldituko erregearen hiltzailea aurkitu arte eta, berak hil zuela jakiten baldin bazuten, atxilotu, torturatu eta hil egingo zuten. Etxera iritsi zenean, Mauk bere familia bildu zuen eta gertatu zena kontatu zien. Jarraian, bere familia eta erregearen jauregitik hartu zituen gauzekin hiritik urrutira alde egin zuen.

Handik egun batera, Tula osoak zekien erregearen heriotzaren berri. Mauk hiritik alde egin eta ordubetera, erregearen zerbitzari batek aurkitu zuen gorpua bere gelan. Erregearen heriotzak gatazka sortu zuen hiriko nobleen artean, erregeak ez zeukan semerik eta inor ez zuen izendatu bere ondorengo bezala. Baina, handik aste betera, hiriko noble gehienek onarpenarekin Tiwakaren ilobak, Atahualpak, bere burua errege izendatu zuen.

5. atala: Azken erregea

Atahualpa erregea gizon gaztea zen, 17 urte zituen. Alturaz nahiko baxua zen, oso argal zegoen eta itxura ahula zuen. Buru handia eta borobila zuen eta ile beltz luzea. Atahualpa, Tiwakaren anai txikienaren semea zen eta Tiwaka erregea bizi zenean, berekin oso gaizki eramaten zen. Errege berria pertsona nahiko harroputza eta berekoa zen eta, bere osabari bezala, ez zitzaion bere herria gehiegi inporta, bere interesak bakarrik zituen kontuan.

Atahualparen helburua, Tula hiria bere antzinako oparotasunera itzultzea zen. Hiria berriro aberatsa eta boteretsua izatea nahi zuen, eta hiria berriro zentro komertzial eta militar bilakatu nahi zuen. Baina, helburu hori lortzeko, zailtasun handiak zituen, Tula hiria Tumbesen aurkako gerran jasan zituen kalteen ondoren krisi ekonomiko batean zegoelako. Gainera, gerra horren ondorioz, Tulari ia ez zitzaizkion aliatu geratzen. Inguruko lurralde gehienak bere etsai bihurtu ziren eta Tularekin zeuzkaten erlazio guztiak hautsi zituzten.

Atahualpa erregeak herrialde ezezagun bateko herritarren berri entzun zuen. Ordura arte ezezaguna zen herrialdea; herritar haiek espainiarrak zirela esaten zuten. Lurralde horietan berriak ziren eta hangoek ez zekiten gehiegi haiei buruz. Atahualpa erregeak espainiar horiek bere hirira gonbidatu nahi zituen, berekin aliatzen saiatzeko, horrela bere hiriak aliatu indartsu bat eduki zezan. Atahualpak gertuen zegoen armada espainiarrari mezu bat bidali zion Tula hirira etortzera gonbidatuz.

Espainiarrek Atahualpa erregearen mezuari azkar erantzun zioten eta, egun batzuk eta gero, Tula hirira joan ziren. Espainiarrak Tulako biztanleen begietan oso arraroak ziren: azal zuria zuten, burdinazko armadura lodi bat zeramaten eta burdinazko txapela. Beren armak ere arraroak ziren Tulakoentzat, soldaduek burdinazko makil luzea zeramaten eta burdinazko tubo luzea. Gainera, berek zaldiak deitzen zituzten inoiz ikusi gabeko animalia batzuk zeuzkaten.

Armada hartako burua Felipe izeneko jenerala zen. Felipe gizon baxua zen, nahiko zaharra Tulako biztanleentzat, gutxi gorabehera 55 urte zituen. Bere soldaduek bezala, burdinazko armadura lodia zeukan jantzita eta buruan burdinazko txapela. Buru handi eta borobila zuen, buruan ez zeukan ia ilerik, baina bibote handi eta txuria zeukan.

Atahualpa erregeak Felipe jenerala eta bere armada hirira sartzen gonbidatu zituen, bere hiria erakusteko eta beren arteko aliantza bat negoziatzeko. Baina, Felipe jeneralak bere armada osoa hirian sartu zenean, Atahualpa erregea traizionatu zuen eta bere soldaduei hiria inbaditzeko agindua eman zien.

Espainiarrak hiria inbaditzen hasi zirenean, Tulako armadak eta bertako biztanleek beren armak hartu zituzten eta espainiarren aurka borrokatzen hasi ziren, beren hiria defendatu nahian. Hala ere, ezin izan zuten ezer egin espainiarren aurka. Espainiarrek arma oso aurreratuak zeuzkaten garai hartarako eta Tulako soldaduek eta biztanleek arma oso primitiboak zeuzkaten eta ez zeukaten prestakuntza militarrik.

Handik ordu betera, bataila bukatu zegoen. Tulako ejertzitoak ezin izan zuen ezer egin espainiarren aurka eta guztiz suntsiturik geratu zen. Bataila eta gero, espainiarrek Atahualpa erregea atxilotu eta ezpata batekin lepoa moztu zioten. Borrokaren ondoren, hiria espainiarrek harturik geratu zen. Espainiarrek hiria hartu zutenean, hango jendea deabruaren zerbitzaria zela pentsatu zuten eta Felipe jeneralak hiriko biztanle guztiak hiltzeko agindua eman zuen.

Genozidio hartan espainiarrak hiri guztian zehar ibili ziren hango biztanleen bila eta, norbait aurkitzen zutenean, ezpataz lepoa mozten zioten. Egunaren amaieran, hiriko biztanle bat bera ere ez zen bizirik geratzen. Horren ondoren, espainiarrek hiriko aberastasunak lapurtu eta eraman egin zituzten. Azkenik, hiritik joan baino lehen, espainiarrek hiriari su eman zioten. Sute hartan hiri osoa erre zen, etxe guztiak kiskalita geratu ziren, hiriko eraikin guztietatik piramidea bakarrik gelditu zen erre gabe, eta horrela amaitu zen Tularen historia.

Unai Etxeberria